

BAPATEAN 99

Grabaketak: Karlos Aizpurua, Altzalei, Xabier Begiristain, Martin Aramendi, Laxaro Azkune, Xabier Enbeita, Felix Irazustabarrena, Joxin Iturrioz, Patxi Larretxea, Josema Leitza, Aitor Mendiluze, Joxe Anjel Oiartzabal, Jose Luis Pikabea, Jaione Ugalde

Hautaketa eta transkribaketa: Martin Aramendi

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkarte

Doinuen izendapena: Martin Aramendi Doinutegian oinarrituz

Azken orrazketa: Andoni Egaña eta Juanjo Respaldiza

EHBE

Liburu honek, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.
c EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Argitaratzaileak:

BERTSOZALE ELKARTEA
Igeldo pasealekua, 25
Donostia

ELKARLANEAN, S.L.
Portuetxe kalea, 88 bis
Donostia

I.S.B.N.: 84-8331-
L.G.:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea
Bertso saioen mugimendua
Tauletako kontzeptuen azalpena
Zenbait azalpen
Txapelketa eta sariketak
Bat-bateko bertso hautatuak
Bat-bateko sariketak
Saioen aurkibidea
Bertsolarien aurkibidea
Izengoitiak

HITZAURREA

“Fraileen dozenarako bat falta”

Bapatean 88 lehen ale hari urtez urte gehitzen joan gatzaizkion beste hamaika liburuekin batera, osatu dugu dozena; Fraileen dozenaren atarian gaude baina ate joka datorkigu hamairugarrena ere, eta, (superstiziosoen baimenarekin) beste ale irmo bat izango da ezbairik gabe.

“Lan baratza, lan aratza”

Bat-batean kantatutako hainbat bertso biltzen baditu ere, *Bapatean* 99 ez da bat-batean egina; Bat batean eta bestea bestean, hainbat eta hainbat saiotan bildutako bertso andanaren bilketa eta aukeraketa fase luze baten ondorio baino. Esku artean duzun bertso-liburu hau 1999ko bat-bateko bertsoen erakuslehio edo erakuskari bat da. Zuk erabaki zer den: hori soilik edo hori guztia.

“Lehen hala, orain hola, gero ez dakigu nola”

Orain arteko *Bapatean* liburuetako hamaika hitzaurre egileek "Bertso bilduma", "Bertsozko urtekaria", "Urteko bertsolaritza", "Milaka bertsoen erakusgarri xumea", "Bat-bateko bertso gintzaren corpusa" bezala bataiatu dute liburu honen izatea eta nortasuna. Nik nahiago izan dut, erabat oker egon naitekeen susmoa baztertu gabe, urtean zehar kantatutako bertsoen erakuslehio edo eskaparate bezala izendatu, izan ere, hemen agertzen diren bertsoez gain beste milaka bertso geratu baitira hautatu gabe, eta, are tamalgarriagoa dena, grabatu direnak baino gehiago dira grabatu gabe betiko galdu direnak. Baliteke betiko galdu izana baina ez momentu eta toki jakin batean zegokien funtzioa betetzeke.

Aipatu berri dudanaren erakusle da zenbait bertsolariren ahotik entzun ohi dena liburu honetarako norberaren bertsorik onenez itauntzen zaionean: "Nik iaz kantatutako bertsorik onenak ez dira inon gorde, honezkero haizeak eramango zituen!"

“Berezko adurre bie da bertsolarie izateko”

Esaera zahar honetaz baliatu nahi nuke *Bapatean* 88 hartatik *Bapatean* 99 honetara atzeman ditudan zenbait bitxikeri edo aipagarri diren zenbait kontu. Askotan jartzen dira auzitan bertsolaria sortu egiten ote den edo egin egiten den; Egingo nuke, egun, zahar edo helduak gehiago direla lehenbiziko uste edo arrazoiaren (nondik begiratzen den) alde egiten dutenak, eta gazteak edo bertso-eskolak gertuagotik ezagutzen dituztenak (ditugunak) bigarrenaren aldekoak. Zahar, beterano eta gazteen ildotik doa jarraian aipatu nahi nukeena, alegia, lehen aletik hamabigarren honetara bada uka ezin den alde nabarmen bat; Bertsolarien izenak, eta bakoitzari egokitzen zaion bertso-kopurua, arras aldatu dira azken urteotan. *Bapatean* 88 eta *Bapatean* 89 liburuetan azaltzen ziren hirurogeita hamairu bertsolarietatik (asko bi urteetan agertzen dira) hogeita hiruk soilik izan zuten iazko *Bapatean* 98 alerarte ia urtez urte euren bertsoak *urteko bertso-bilduman* ikusteko zoria.

Anekdota edo bitxikeri gisa baino ez dut papereratu datu hau; zenbaitentzat gogoetabide izango dena, eta hainbatentzat arlo guztietan gertatzen denaren, eta bertsolaritza biziko bada gertatu beharreko aldaketa eta berrikuntzaren ondorio.

“Zaharrak baleza eta gazteak baleki”

Azken aleetan bertsolari gazteekin jokutzen diren txapelketa nahiz sariketen aipamena ere egin da, eta hori dela eta plazaz plaza hastear edo hasi berri dauden gazteen bertsoak ere biltzen dira. Gazte hauen bertsoez gozatzeko paradarik ez genuke izango bestela. Beraz, zaharrak ahal du baina gazteak ere badaki.

“Etorriko da denbora bat, gizonak arbolien gañera igoko dirana, emakumien igesi”

Ez dut uste gizonak emakumeengandik ihesi inoiz joango direnik baina baliteke emakumeen beldur izatea, bertso kontuan ari naiz beti ere. *Bapatean* liburuak lehendabizikoz argia ikusi zuenean emakume bakar baten (artean neska gaztea, gazteagoa bai behintzat) bertsoak baino ez zituen biltzen bere orrietan, baina urteak joan ahala dozenatik gora emakumeren bertsoak biltzera iritsi da.

“Gertakaririk txarrenek ere mutur on bat badute”

Iaz ere gertaera gogor eta albiste txarrak bertsoarako gai bihurtu ziren. Gertakari txarrenek ere bai omen dute alderdi onen bat, eta gureari lotuz, esan daiteke bertso on asko entzun ditugula tragedia horietatik abiatuz.

Bapatean 99 honetan, besteak beste, Marero itsasontziaren urperatzea, zakur hiltzaileen (eta ez zakur-hiltzaileak) auzia, Kosovoko gerra, Keniara joandako urpekarien jazoera eta Mahai Nazionalaren kartzelaratzea lirateke bertso-gai.

Bestalde, *Gara* egunkariaren sorrera, ETA-ren su-etena, Lizarra-Garazi hitzarmena eta Viagra santua. Azken gai honek, pastilak berez ematen duen indarra baino handiagoa izango zuen, ziurrenik, bertso-saioetako gai moduan.

“Bertsularia lurraren boza, bere arrazaren mintzoa”

Gehitxo esatea izango da esaera zahar honek dioena Jaungoikoaren hitza dela esatea, baina nik ere gauza onerako gehitxo esan dudanez, besterik ez. On dagizuela!

Amaia Agirre

Bertso-saioen mugimendua

1999. URTEAN ANTOLATU DIREN BERTSO-SAIOAK

1999KO BERTSO-SAIOAK

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza Librekoak	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
GIPUZKOA	96	142	169	15	5	46	54	41	11	18	597
BIZKAIA	63	54	64	8	5	14	45	12	8	5	278
NAFARROA	14	26	45	4	8	9	13	6	2	0	127
ARABA	10	5	11	5	0	4	6	0	0	1	42
IPARRALDEA	5	15	20	0	1	16	7	0	6	2	72
DENERA	188	242	309	32	19	89	125	59	27	26	1116

GIPUZKOA	Jaialdiak	Plaza Librekoak	Lagun Artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- Dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Deba-Behera	3	18	11	0	1	5	8	2	0	1	49
Deba-Garaia	6	10	18	0	0	4	3	6	0	0	47
Goierrri	20	30	38	4	1	5	8	6	1	4	117
Beterri	13	18	22	0	0	7	2	4	2	1	69
Donostialdea	28	33	38	5	1	15	19	7	3	3	152
Kosta-Urola	16	12	25	3	2	6	7	13	0	3	87
Errenterialdea	10	21	17	3	0	4	7	3	5	6	76
Denera	96	142	169	15	5	46	54	41	11	18	597

BIZKAIA	Jai- diak	Plaza Libre- koak	Lagun arteko ak	Sari- - ketak ak	Hitzal- zal- diak ak	Ekital- dipeko ak	Bere- ziak	Txap- el- keta k	Dida- k- tikoak	Gain- era- koak	Dene- ra
Lea Busturia	12	12	5	2	0	1	6	2	0	3	43
Uribe Kosta	19	18	20	2	0	3	7	5	2	0	76
Arratia	5	1	3	0	0	0	2	0	1	0	12
Durangalde a	10	16	12	2	3	3	5	2	0	0	53
Erdalgunea	17	7	24	2	2	7	25	3	5	2	94
Denera	63	54	64	8	5	14	45	12	8	5	278

NAFARROA	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun artekoak	Sari-ketak	Hitzaldiak	Ekital-dipekoak	Bereziak	Txapel-ketak	Didaktikoak	Gainera-koak	Denera
Bidasoa-Baztan	9	16	23	4	0	1	1	1	0	0	55
Araitz-Leitza	1	3	5	0	0	2	1	1	0	0	13
Larraunaldea	1	2	4	0	0	0	1	1	0	0	9
Erdalgunea	3	5	10	0	8	6	10	3	2	0	47
Pirineoaldea	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	3
Denera	14	26	45	4	8	9	13	6	2	0	127

ARABA	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun artekoak	Sari-ketak	Hitzaldiak	Ekital-dipekoak	Bereziak	Txapel-ketak	Didaktikoak	Gainera-koak	Denera
Aiara	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2
Leintz	1	1	4	0	0	0	1	0	0	0	7
Erdalgunea	9	3	6	5	0	4	5	0	0	1	33
Denera	10	5	11	5	0	4	6	0	0	1	42

IPARRALDEA	Jaialdiak	Plaza Librekoak	Lagun artekoak	Sari-ketak	Hitzaldiak	Ekital-dipekoak	Berezia	Txapel-ketak	Didaktikoak	gainera-koak	Denera
Lapurdi	2	12	14	0	1	9	3	0	5	2	48
Nafarroa Behera	1	3	4	0	0	6	4	0	1	0	19
Zuberoa	2	0	2	0	0	1	0	0	0	0	4
Denera	5	15	20	0	1	16	7	1	6	2	73

Tauletako kontzeptuen azalpena

Jaialdiak:	4 bertsolari edo gehiago gai-jartzailearekin
Plaza libre:	2-3 bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartea:	Jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Txapelketak:	Bat-batekoak: Euskal Herriakoa, Herrialdetakoak edo eskolartekoa.
Sariketak:	Bat-batekoak nahiz idatziak: elkarteek, Udalek edo motibo jakin baten inguruan antolatzen direnak.
Hitzaldiak:	Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatuak.
Ekitaldipekoak:	Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...)
Bereziak:	Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak
Gainerakoak:	Aurreko sailetan sartzen ez direnak

Herrialdeak:

GIPUZKOA

Deba-Behera:	Eibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mendaro...
Deba-Garaia:	Elgeta, Oñati, Arrasate, Eskoriatza, Aramaio...
Goierri:	Zegama, Legazpia, Ormaiztegi, Legorreta, Ataun...
Beterri:	Amezketeta, Ikaztegieta, Berastegi, Alkiza, Billabona...
Kosta-Urola:	Zumaia, Azkoitia, Bidania, Aia, Orio...
Donostialdea:	Andoain, Usurbil, Donostia, Astigarraga, Urnieta...
Errenterialdea:	Hondarribia, Oiartzun, Pasaia, Lezo...

BIZKAIA

Lea-Busturia:	Ondarru, Markina, Lekeitio, Aulestia, Ibarrangelu, Nabarniz, Gernika, Muxika...
Uribe-Kosta:	Bermeo, Bakio, Plentzia, Mungia, Sopela, Getxo, Leioa, Derio, Asua, Larrabetzu...
Arratia:	Zaratamo, Orozko, Otxandio, Zeberio, Igorre, Lemoa.
Durangaldea:	Zornotza, Durango, Mallabi, Ermua, Elorrio...
Erdalgunea:	Basauri, Bilbo, Ezkerraldea, Enkarterriak...

NAFARROA

Bidasoa-Baztan:	Bidasoa, Bortziriak, Baztan eta Malerreka
Araitz-Leitza:	Goizueta, Leitza, Areso, Atallu, Betelu...
Larraunaldea:	Sakana, Larraun, Basaburua eta Ultzama
Pirineoaldea:	Orreaga, Luzaide, Eugi
Erdalgunea:	Iruñea, Erribera, Erronkari, Lizarra...

ARABA

Aiaraldea:	Areta, Laudio, Abornikano...
Leintz:	Aramaio eta ingurua
Erdalgunea:	Gainerako Araba

IPARRALDEA

Lapudi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

ZENBAIT AZALPEN

1.- Orain arteko *Bapatean* liburuek 600 bertso inguru jaso dituzte, 95ekoa ezik, hau 300 bertsokoa izan baitzen. 99ko honek 618 bertso jasotzen ditu.

2.- *Bapatean 99* osatzeko irizpideak, aurreko liburuetan ibilitako berberak izan dira.

3.- Liburu hau antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren korpus nagusiak, herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatuko bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta hauen saio kopuruak kontuan harturik. Beraz, liburu honek, plazaz-plaza dabilzan bertsolarien ekarpena islatzen du

4.- Jakin badakigu egiten diren mota guztietako bertso-saioen informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude %ko haundi batean jasota dagoela. Besterik da grabatzen dena: 1999an 235 saio grabatu dira audioan, 338 bat ordu.

5.- 99. urtean bat-batean kantatutako bertsoak ditu kontuan liburu honek, baina Nafarroa, Araba eta Bizkaia edo Eskolartekoan kantatuak ez. Bertso-paperean alorrekorik ere ez da jasotzen, baina bai Gazte Sariketetakoak.

6.- Liburu hau osatzeko oinarria, Xenpelar Dokumentazio Zentruan jasotako informazioa, audio grabazioak eta hauei dagozkien fitxak izan dira.

7.- Lan hau burutzeko, modu batera edo bestera esku hartu dute:

- Arantza Mariskal eta Oihana Aranburu zentroko kideak
- Karlos Aizpurua, Martin Aramendi, Laxaro Azkune, Xabier Begiristain, Xabier Enbeita, Beñat Gaztelurrutia, Felix Irazustabarena, Joxin Iturrioz, Patxi Larretxea, Josema Leitzza, Aitor Mendiluze, Jexux Murua, Jose Anjel Oiartzabal, Xabier Rico, Jaione Ugalde grabaketa eta bilketa lanetan.
- Transkribaketa lanetan Martin Aramendi
- Azken orrazketa lanetan Andoni Egaña eta Juanjo Respaldiza.

8.- Guzti hau burutu ahal izateko, oso garrantzizkoa izan da jasotako diru-laguntza: Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntz Politikarako Sailordetzarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarena.

Bertsozale Elkarte

**TXAPELKETAK, SARIKETAK,
LEHIAKETAK...**

1.- TXAPELKETAK, SARIKETAK, LEHIAKETAK...

1.- HERRIALDE MAILAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

1.- Nafarroa eta Iparraldeko Bertsolari Txapelketa 99

Txapelketa hiru fasetan burutzen da: kanporaketak, finalaurrea eta finala

Kanporaketak

Otsailaren 20an, Tuterako kultur etxean

Manolo Arozena
Nerea Bruño
Ekintza Landa
Iñigo Olaetxea
Julen Zelaieta
Aritz Saragueta

Otsailaren 26an, Burlatako musikan eskolan

Mikel Altzuart
Bittor Elizagoien
Oskar Estanga
Fermin Mihura
Xabier Silveira
Jean Louis Harinordoki "Laka"

Otsailaren 27an, Lizarrako musika eskolan

Estitxu Fernandez
Iñigo Ibarra
Xabier Legarreta
Josema Leitza
Juan Mari Lopez
Pello Goikoetxea

Finalurrekoak

Marxoaren 7an, Beteluko pilotalekuan

Estitxu Arozena
Oskar Estanga
Estitxu Fernandez
Ekintza Landa
Juan Mari Lopez
Iñigo Olaetxea

Martxoaren 14ean, Etxarri Aranzko kultur etxean

Estitxu Arozena
Nerea Bruño
Bittor Elizagoien
Xabier Legarreta
Josema Leitza
Xabier Silveira

Finala

Martxoaren 21ean, Lesakako pilotalekuan

Bittor Elizagoien (txapeldun)

Xabier Silveira

Estitxu Arozena

Juan Mari Lopez

Iñigo Olaetxea

Estitxu Fernandez

Josema Leitza

Xabier Legarreta

Epaimahaia

Jon Abril, Mikel Bujanda, Panpi Etxegoin, Patxi Larretxea, Beñat Soule, Joxe Urroz.
Manu Gomez eta Alberto Sanchez, idazkari lanetan.

Gai-jartzaileak

Josu Etxanobe, Manu Legarra, Ixak Etxeberria, Aitor Irazustabarrena, Arantxa Iparragirre.

Antolatzailea

Nafarroako Bertsozale Elkarte, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura departamentua eta Nafarroako Aurrezki kutxaren laguntzarekin.

2. Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketa 99

Txapelketa hau bost fasetan burutu da: lehen kanporaketak, bigarren kanporaketak, final-laurdenak, finalaurrekoak eta finala.

Taldeko txapelketa izan da Talde bakoitzaren zeregin nagusia hiru lanetan banatu da: kantatzea, gaia jartzea eta epitzea. Guztira hogeitalau talde osatu dira:

Aia: **Nikolas Zendoia**, Joxe Mari Lertxundi, **Luis Otamendi**, Markos Manterola, Arantxa Laskibar, **Joxe Martin Rezabal "Olaso"** eta Pello Esnal.

Andoain-Urnieta: Joxe Fermin Argiñarena, Joxe Manuel Oiartzabal, **Joxe Mari Mujika "Anatx"**, **Jokin Sorozabal**, Aitor Mendiluze eta Jon Garmendia "Txuria"

Azpeitia-Landeta: Beñat Lizaso, **Aritz Etxeberria "Ministro"**, **Andoni Larrañaga**, **Leire Ostolaza** eta Fernando Beloki.

Azpeitia-Oñatz: Laxaro Azkune, **Anjel Larrañaga**, **Jokin Uranga**, **Joxe Agirre**, Xabier Euzkitze eta Koldo Aldalur.

Azpeitia-Urraki: **Joxe Luis Gorrotxategi**, **Imanol Lazkano**, Bereziartua "Gaztañe", Jexux Lopetegi, **Urko Egaña** eta Eduardo Larrañaga.

Deba behea-Elgoibar: **German Meabebasterretxea**, **Jabier Arrizabalaga "Ziarda"**, **Juan Mari Narbaiza**, Agustin Larrañaga, Mariasun Oteiza.

Erniope: Joan Ander Esnaola, **Aitor Usandizaga**, Jon Zaldua, **Amaia Agirre**, **Txomin Garmendia**, **Jexus Mari Irazu** eta Zigor Leunda.

Goierrri-Beasain: **Alaitz Alustiza**, Pello Urratabizkaia, Juan Ramon Gerriko, Euxebio Igartzabal, **Ekaitz Goikoetxea**, Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi, **Joxe Ramon Elortza** eta Aritz Zeberio.

Goierrri-Ordizia: Joxe Mari Barandiaran, Joxepa Madariaga, **Joxe Munduate**, **Mikel Mendizabal**, Juan Inazio Begiristain, **Igor Eguren**, **Xabier Narbarte**, Jon Aiestran eta Felix Lardizabal.

Goierrri-Zaldibia: **Iñaki Murua**, Saroi Jauregi, Joxe Antonio Elozegi "Txex", **Patxi Iraola**, **Iker Zubeldia**, Rufino Iraola, **Mikel Aranburu**, **Alaitz Sarasola** eta Jexus Mari Jauregi "Altzo-Txiki".

Hernani-Iñatzu: **Unai Agirre**, **Estitxu Eizagirre**, Juanjo Uria, Mikel Peruarena, **Iker Alustiza** eta **Ibon Miner**.

Hernani-Iraulio: **Joxe Luis Urdangarin**, Xabier Legarreta "Arano", Joxe Anjel Oiartzabal, **Jon Iraola**, Maitane Legarreta, **Iker Osa**, **Iñaki Zelaia** eta **Eñaut Agirre**.

Hernani-Txisplau: **Gorka Tolosa**, **Ixiar Eizagirre**, Xabier Etxeberria, **Aritz Zerain**, **Maialen Lujanbio** eta Mikel Iturbe.

Hiruerrri: Manuel Agirretxe, **Bernardo Azpillaga "Añoi"**, **Juan Jose Eizmendi "Loidisaletxe II"**, **Millan Telleria**, Jon Agirretxe eta **Joxe Antonio Sasiain**.

Lasarte: **Patxi Etxeberria**, Zigor Iriondo, **Andoni Otamendi**, Imanol Lizardi, **Pablo Suberbiola** eta Iñigo Aiestaran.

Leintz: Miren Arizmendiarieta, Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelai, **Danel Goikolea**, **Jon Sarasua**, **Ainhoa Agirreazaldegui**, **Saioa Arando**, **Kike Dapena "Txirrita"** eta Itxaro Artola.

Oiartzun: Esteban Martiarena, Zuhaitz Lizarralde, Asier Bergaretxe, **Arkaitz Goikoetxea**, Eneko Ezeiza, **Juanito Mitxelena**, **Jon Martin** eta Karlos Aizpurua.

Oñati: **Lander Diaz de Gereñu**, **Joseba Lasagabaster**, Iker Agirre, **Josu Igartua**, Egoitz Aizpuru eta Joseba Agirre.

Tolosa: **Alfontso Jimenez**, **Ibon Karrera**, Maider Otxandorena, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Artola eta **Bixente Gorostidi**.

Xenpelar: Joxe Luis Maritxalar, **Aitor Albistur**, **Jon Ansa**, **Iker Goñi**, **Manex Mujika**, **Mikel Aginaga**, **Josu Oiartzabal**, Mikel Carcedo eta Patxi Petriarena.

Zarautz-Jai Txiki: Aitzol Illaramendi, **Julen Zulaika**, **Andoni Egaña**, **Iñigo Manzisidor "Mantxi"** eta Xabier Etxeberria.

Zarautz-Salbide: Felix Olaskoaga, **Imanol Epelde, Nahikari Gabilondo, Aritz Aranburu**, Martin Etxeberria eta Xabier Etxeberria.

Zumaia: **Jon Maia, Jesus Iribar "Olalde"**, Jose Joakin Aizpurua, Joxe Angel Salegi "**Lizarreta**" eta Eneko Dorronsoro.

Orio: Iñaki Iturain, **Ibai Esoain, Iñaki Gurrutxaga**, Imanol Esoain, **Xabier Sukia eta Euxebio Lasarte**.

Lehen kanporaketak

Irailak 17an, Azpeitiko Soreasu zineman

Azpeitia-Oñatz: Anjel Larrañaga, Jokin Uranga, Joxe Agirre

Leintz: Kike Dapena "Txirrita", Jon Sarasua, Danel Goikolea

Irailak 17an, Hernaniko Eizmendi sagardotegian

Hernani-Txisplau: Gorka Tolosa, Maialen Lujanbio, Aritz Zerain

Urnieta-Andoain: Joxe Mari Mujika "Anatx", Jokin Sorozabal, Jon Garmendia "Txuria"

Irailak 17an, Errezilgo Letea jatetxean

Hiruerrri: Beñardo Azpillaga "Añoi", Millan Telleria, Juan Jose Eizmendi

"Loidisaletxe II"

Erniope: Jexus Mari Irazu, Amaia Agirre, Txomin Garmendia

Irailak 17an, Zarauzko Kurpil elkartean

Zarautz-Jai Txiki: Iñigo Manzisidor "Mantxi", Andoni Egaña, Julen Zulaika

Zarautz-Salbide: Nahikari Gabilondo, Imanol Epelde, Aritz Aranburu

Irailak 18an Oñatiko Pago Uso elkartean

Oñati: Josu Igartua, Joseba Lasagabaster, Lander Diaz de Gereñu

Azpeitia-Landeta: Sebastian Lizaso, Andoni Larrañaga, Leire Ostolaza

Irailak 18an, Ordiziko Argi Berri elkartean

Goierrri-Ordizia: Joxe Munduate, Xabier Narbarte, Igor Eguren

Goierrri-Zaldibia: Patxi Iraola, Iñaki Murua, Mikel Aranburu

Irailak 18an, Aiako Kanua jatetxean

Aia: Nikolas Zendoia, Luis Otamendi, Joxe Martin Rezabal "Olaso"

Lasarte: Pablo Suberbiola, Andoni Otamendi, Patxi Etxeberria

Irailak 24ean Elgoibarko San Migel auzoko frontoian

Deba behea-Elgoibar: Juan Mari Narbaiza, Asier Arrizabalaga "Ziarda", German Meabebasterretxea

Azpeitia-Urraki: Jose Luis Gorrotxategi, Urko Egaña, Imanol Lazkano

Irailak 24ean, Oiartzungo Girizia elkartean

Oiartzun: Juanito Mitxelena, Jon Martin, Arkaitz Goikoetxea

Hernani-Iraulio: Joxe Luis Urdangarin, Jon Iraola, Iker Osa

Irailak 24ean, Zumaiaiko Etxeona jatetxean

Zumaia: Jon Maia, Joxe Anjel Salegi "Lizarreta", Jexus Iribar "Olalde"

Orio: Xabier Sukia, Eusebio Lasarte, Ibai Esoain

Irailak 25ean, Hernaniko Ur Mia elkartean

Hernani-Iñatzu: Unai Agirre, Iker Alustiza, Ibon Miner

Xenpelar: Manex Mujika, Iker Goñi, Josu Oiartzabal

Irailak 25ean, Beasaingo Artzaienea jatetxean

Goierrri-Beasain: Alaitz Alustiza, Ekaitz Goikoetxea, Joxe Ramon Elortza

Toloxa: Alfonso Jimenez, Ibon Karrera, Bixente Gorostidi

Urriak 1ean, Azpeitiko Soreasu zineman
Azpeiti-Urraki: Jose Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Urko Egaña
Deba behea-Elgoibar: German Meabebasterretxea, Jabier Arrizabalaga "Ziarda",
 Juan Mari Narbaiza

Urriak 1ean, Asteasuko Haiztondo elkartean
Erniope: Jexus Mari Irazu, Txomin Garmendia, Aitor Usandizaga
Hiruerri: Millan Telleria, Joxe Antoni Sasiain, Juan Jose Eizmendi "Loidisaletxe II"

Urriak 1ean, Zarauzko Antonianoetan
Zarautz-Salbide: Nahikari Gabilondo, Aritz Aranburu, Imanol Epelde
Zarautz-Jai Txiki: Julen Zulaika, Iñigo Manzisidor "Mantxi", Andoni Egaña

Urriak 2an, Urnietako Sarobe antzokian
Urnieta-Andoain: Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Jon Garmendia "Txuria"
Hernani-Txisplau: Maialen Lujanbio, Aritz Zerain, Ixiar Eizagirre

Urriak 2an Zaldibiko Gaztelu elkartean
Goierry-Zaldibia: Alaitz Sarasola, Iker Zubeldia, Patxi Iraola
Goierry-Ordizia: Mikel Mendizabal, Igor Eguren, Joxe Munduate

Urriak 2an, Lasarteko Goiegi jatetxean
Lasarte: Andoni Otamendi, Pablo Suberbiola, Patxi Etxeberria
Aia: Luis Otamendi, Joxe Martin Rezabal "Olaso", Nikolas Zendoia

Urriak 8an Arrasate Alkartu elkartean
Leintz: Saioa Arando, Jon Sarasua, Ainhoa Agirreazaldegia
Azpeitia-Oñatz: Joxe Agirre, Anjel Larrañaga, Jokin Uranga

Urriak 8an, Hernaniko Peña Olano elkartean
Hernani-Iraulio: Eñaut Agirre, Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia
Oiartzun: Juanito Mitxelena, Arkaitz Goikoetxea, Jon Martin

Urriak 9an, Azpeitiko Soresu zineman
Azpeitia-Landeta: Aritz Etxeberria "Ministro", Andoni Larrañaga, Leire Ostolaza
Oñati: Josu Igartua, Joseba Lasagabaster, Lander Diaz de Gereñu

Urriak 9an, Errenteriako Niessenek
Xenpelar: Mikel Aginaga, Aitor Albistur, Jon Ansa
Hernani-Iñatzu: Unai Agirre, Iker Alustiza, Estitxu Eizagirre

Urriak 9an, Orioko kultur etxean
Orio: Xabier Sukia, Ibai Esoain, Iñaki Gurrutxaga
Zumaia: Jon Maia, Joxe Joakin Aizpurua, Jesus Iribar "Olalde"

Urriak 11ean, Tolosako Usabal sagardotegian
Toloxa: Alfonso Jimenez, Ibon Karrera, Bixente Gorostidi
Goierry-Beasain: Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea, Joxe Ramon Elortza

Bigarren kanporaketa

Urriak 22an Urretxuko Pagoetan
Erniope: Jexus Mari Irazu, Amaia Agirre, Txomin Garmendia
Aia: Luis Otamendi, Nikolas Zendoia, Martin Rezabal "Olaso"

Urriak 23an, Zumaiko Aita Mari zineman
Azpeitia-Urraki: Imanol Lazkano, Jose Luis Gorrotxategi, Urko Egaña
Xenpelar: Manex Mujika, Aitor Albistur, Jon Ansa

Urriak 29an Oñatiko Santa Anan
Zarautz-Jai Txiki: Andoni Egaña, Iñigo Manzisidor "Mantxi", Julen Zulaika
Azpeitia-Oñatz: Sebastian Lizaso, Andoni Larrañaga, Leire Ostolaza

Urriak 30ean, Errenteriako Niessenen

Zumaia: Jon Maia, Jose Anjel Salegi "Lizarreta", Iñaki Aizpurua

Oiartzun: Jon Martin, Juanito Mitxelena, Arkaitz Goikoetxea

Azaroak 5ean Elgoibarko Herriko antzokian

Azpeitia-Landeta: Sebastian Lizaso, Andoni Larrañaga, Leire Ostolaza

Toloxa: Alfonso Jimenez, Bixente Gorostidi, Ibon Karrera

Azaroak 5ean, Beasaingo Usurbe antzokian

Andoain-Urnieta: Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Jon Garmendia "Txuria"

Goierri-Ordizia: Mikel Mendizabal, Xabier Narbarte, Joxe Munduate

Final-laurdenak

Azaroak 12an, Azkoitiko Baztartxo zineman

Erniope: Jexus Mari Irazu, Aitor Usandizaga, Txomin Garmendia

Azpeitia-Urraki: Jose Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Urko Egaña

Azaroak 13an Lasarteko auditoriumean

Zarautz-Jai Txiki: Iñigo Manzisidor "Mantxi", Julen Zulaika, Andoni Egaña

Urnieta-Andoain: Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Jon Garmendia "Txuria"

Azaroak 20an Bergarako Udal pilotalekuan

Zumaia: Jon Maia, Jesus Iribar "Olalde", Joxe Anjel Salegi "Lizarreta"

Azpeitia-Landeta: Sebastian Lizaso, Andoni Larrañaga, Leire Ostolaza

Finalaurrekoak

Azaroak 28an, Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan

Azpetia-Landeta: Leire Ostolaza, Andoni Larrañaga, Sebastian Lizaso

Zarautz-Jai Txiki: Iñigo Manzisidor "Mantxi", Julen Zulaika, Andoni Egaña

Abenduak 5ean, Tolosako Beotibar pilotalekuan

Erniope: Txomin Garmendia, Amaia Agirre, Jexus Mari Irazu

Andoain-Urnieta: Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Jon Garmendia "Txuria"

Finala

Abenduaren 19an Azpeitiko Izarraitz frontoian

Erniope: Amaia Agirre, Jexus Mari Irazu, Txomin Garmendia

Zarautz-Jai Txiki: Julen Zulaika, Andoni Egaña, Iñigo Manzisidor "Mantxi"

Txapelduna: Zarautz-Jai Txiki: Aitzol Illaramendi, Julen Zulaika, Andoni Egaña, Iñigo Manzisidor

"Mantxi" eta Xabier Etxeberria.

Txapeldunordea: Erniope: Joan Ander Esnaola, Aitor Usandizaga, Jon Zaldua, Amaia Agirre, Txomin

Garmendia, Jexus Mari Irazu eta Zigor Leunda.

Talde iraunkorreko epaimahaia

Felix Irazustabarrena, Asier Oiarbide, Martin Aramendi, Jontxu Marcos, Mikel Aizpurua, Xabier Aizpurua, Xabier Azkue, Arantza Loidi, Antton Kazabon eta Joxe Kruz Labaka.

Talde iraunkorreko gai-jartzaileak

Iñaxio Usarralde, Manu Olano, Nikolas Zeberio, Xabino San Sebastian.

Antolatzailea

Gipuzkoako Bertsozale Elkartea, Kutxaren laguntzarekin.

2.- Eskolarteko Txapelketak

Urtero bezala udaberrian burutu ziren Eskolarteko Txapelketak, lehenik herrialdez herrialde eta gero Euskal Herri mailakoa.

Hona emaitza:

Bat-batean:

Bizkaia: finala Bilboko Doña Casilda Parkean, 1999-06-04ean. 14 urte artekoetan:

Amaia Jauregizar (bigarren)
Maidier Martinez
Asier Gozatadi
Xabat Gaiatabeitia (txapeldun)
Ander Elortegi
Mikel Goiriena

15/16 urte artekoetan:

Urki Bilbao
Xabier Paia (txapeldun)
Asier Bidaburu (bigarren)
Jon Rementería

17/18 urte artekoetan:

Alfredo Paia "Fredí"(txapeldun)
Anertz Muniategi (bigarren)
Igor Muniategi
Iñaki Basterretxea

Antolatzaile: Bizkaiko Ikastolen Elkartea

Gipuzkoa: finala Amasako frontoian, 1999-05-28

14 urte artekoetan taldeka:

Goierri (txapeldun): Iban Urdangarin
Oier Zurutuza
Haitz Aierbe
Aitzol Munduate

Finaleko beste partaideak:

Oiartzun:

Aingeru Inziarte
Mikel Aranburu
Xabier Galdos

Antigua:

Imanol Lizarazu
Ane Aranburu
Beñat Gaztelumendi
Itsaso Areizaga

Oñati:

Mirari Sagarzazu
Iker Jimenez
Andoni Goitia
Xabier Pascual

Aipamen berezia: Beñat Gaztelumendi

15/18 urte artekoetan:

Iñaki Gurrutxaga (txapeldun)
Iñigo Izagirre (bigarren)
Iñaki Apalategi
Nerea Elustondo
Gorka Iribar
Beñat Lizaso
Jon Martin
Joseba Otaegi

Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea

Nafarroa: Murugarrenko Aldaiondon 1999-06-5ean

Partehartzaileak:

Erika Lagoma
Xabier Terreros (txapeldun)
Ekiñe Etxepeteleku (bigarren)
Hodei Lujanbio
Joseba Beltza
Eneko Lazkoz

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea

Ipar Euskal Herria: Uztaritze 1999-06-12an

Partehartzaileak:

Miren Artetxe (txapeldun 14 urte artekoetan)
Xumai Murua
Sustrai Kolina
Amets Arzallus (txapeldun 15/18 urte artekoetan)
Eneritz Zabaleta

Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak, Seaskaren laguntzarekin

Euskal Herri mailakoa:

Finala Mungiako pilotalekuan, 1999-06-30

14 urte artekoetan:

Beñat Gaztelumendi (Gipuzkoa) txapeldun
Aitzol Munduate (Gipuzkoa) bigarren
Xabat Galletbeitia (Bizkaia)
Miren Artetxe (Lapurdi)
Maialen Monte (Araba)
Xumai Murua (Lapurdi)
Mikel Goiriena (Bizkaia)
Amaia Jauregizar (Bizkaia)

15/18 urte artekoetan:

Alfredo Paia "Fredí" (Bizkaia) txapeldun
Sustrai Kolina (Lapurdi) bigarren
Olatz Perea (Araba)
Iñigo Izagirre (Gipuzkoa)
Erika Lagoma (Nafarroa)
Irati Anda (Araba)
Iñaki Gurrutxaga (Gipuzkoa)
Igor Muniategi (Bizkaia)
Amets Arzallus (Lapurdi)
Xabier Terreros (Nafarroa)

Bertso idatzietan:

Bizkaian sarituak:

Lehen Hezkuntza: 5. maila: Mirentxu Larrinaga
6. maila: Andoni Aldape

DBH 1. zikloan: Xabat Galletbeitia

DBH 2. zikloan: Iasmina Gorroño

14/18 urte artekoetan: Igor Muniategi

Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen Elkarte

Gipuzkoan sarituak:

LMH 2. zikloan: Ander Izagirre
LMH 3. zikloan Beñat Gaztelumendi
DBH 1. zikloan: Aitzol Munduate
DBH 2. zikloan: Jon Martin

Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte

Nafarroan sarituak:

LH 3. eta LH 4.: Izai Bujanda
LH 5. eta LH 6.: Joanes Ceballos
DBH 1. eta DBH 2.: Naiara Calderon
DBH 3. eta DBH 4.: Celia Ordoki

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentua.

3. Bat-bateko bertso sariketak:

II. Argi Berri Saria

Herria: Ordizia

Antolatzailea: Argi Berri Elkarte

Mailak: Bakarra

Finala: 1999-04-10

Finalistak: Ekaitz Goikoetxea, Iker Osa, Estitxu Eizagirre, Urko Egaña, Mikel Altzuart, Julen Zelaieta

Lehen biak Osinalde sarira pasa dira: Ekaitz Goikoetxea eta Estitxu Eizagirre.

II. Armuño Saria

Herria: Brinkola

Antolatzailea: Armuño Elkarte

Mailak: Bakarra

Finala: 1999-03-27

Finalistak: Leire Ostolaza, Arkaitz Goikoetxea, Iñigo Manzisidor "Mantxi", Ander Oleaga, Alaitz Sarasola, Joseba Gojenola

Lehen biak Osinalde sarira pasa dira: Arkaitz Goikoetxea eta Joseba Gojenola.

II. Axari Saria

Herria: Idiazabal

Antolatzailea: Axari Elkarte

Mailak: Bakarra

Finala: 1999-03-18

Finalistak: Itziar Eizagirre, Eñaut Agirre, Aitor Usandizaga, Haritz Zerain, Jokin Uranga, Oihane Perea

Lehen biak Osinalde sarira pasa dira: Oihane Perea eta Jokin Uranga.

VII. BBK Sariketa

Herrialdea: Bizkaia

Antolatzailea: BBK, Bertsozale Elkartearen laguntza

Mailak: A: 18 urte arte

B: 18-23 urte

Kanporaketak: 1999-03-09 Igorre: Arratia eta Bilbo

1999-03-10 Durango: Durango eta Lea-Artibai

1999-03-16 Bilbo (Txurdinaga): Bilbo eta Busturia

1999-03-17 Markina-Xemein: Lea-Artibai eta Txorierri

1999-03-23 Bermeo: Busturia eta Arratia

1999-03-24 Derio: Txorierri eta Durango

Sailkapena: 1. Txorierri 300 puntu

2. Bilbo 289 puntu

Finalistak: Bilbo:

A maila: Matxalen Zabaljauregi, Jurgi Garitagoitia, Oihana Bartra

B maila: Marta Ortiz, Arkaitz Estiballes, Urtzi Urrutikoetxea

Txorierri:

A maila: Xabier Paia, Igor Muniategi, Ortzi Garitano

B maila: Etxahun Lekue, Anertz Muniategi, Alfredo Paia "Fredí"

IV. Berritxu Saria

Herria: Berriatua

Antolatzailea: Herriko bertsozale taldea

Mailak: Bakarra

Finala: 1999-06-26

Finalistak: Alfredo Paia "Fredí" (lehenengo), Igor Muniategi (bigarren), Gorka

Ostolaza, Iñaki Gurrutxaga, Urki Bilbao, Xabier Terreros, Irati Anda eta Sustrai Kolina

I. Bortzirietako bertso-eskolaren Txapelketa

Herria: Lesaka

Antolatzailea: Bortzitako bertso-eskola

Mailak: Bakarra

Kanporaketak: 1999-01-08 Lesaka: A taldea eta B taldea

1999-01-15 Lesaka: D taldea eta E taldea

Finala: 1999-01-22

Sailkapena: 1. A taldea

2. E taldea

Finalistak: A taldea: Xabier Silveria, Juan Mari Lopez, Julen Zelaieta

E taldea: Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Ekiñe Etxepeteleku

XXIII. Lizardi Saria

Herria: Zarautz

Antolatzailea: Udala

Mailak: Bakarra

Kanporaketak: 1999-08-25

1999-08-27

Finala: 1999-09-03

Finalistak: Estitxu Eizagirre, Jokin Uranga, Oihane Perea, Ekaitz Goikoetxea,

Nahikari Gabilondo, Urko Egaña, Ainhoa Agirreazaldegí (lehenengo) eta Iñigo

Manzisor "Mantxi" (bigarren)

II. Oiartzungo bertsolarien Txapelketa

Herria: Oiartzun
Antolatzailea: Girizia Elkarte eta Oiartzungo Bertso Eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 1999-05-08
Finalistak: Arkaitz Goikoetxea (lehenengo), Juanito Mitxelena, Jon Martin, Sustrai Kolina, Asier Bergaretxe eta Iker Goñi.

VII. Orixe Saria

Herria: Añorga
Antolatzailea: Añorga Kultur eta Kirol Elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 1999-02-26
1999-03-05
1999-03-12
Finala: 1999-03-28
Finalistak: Pablo Suberbiola(lehenengo), Bixente Gorostidi, Unai Agirre, Xabier Silveira (bigarren), Joxe Munduate eta Aitor Sarriegi.

XXVIII. Osinalde Saria

Herria: Gabiria
Antolatzailea: Osinalde Elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 1999-03-27 Axari saria
1999-03-27 Armuño saria
1999-04-10 Argi Berri saria
Finala: 1999-04-24
Finalistak: Arkaitz Goikoetxea (lehenengo), Jokin Uranga, Oihane Perea, Ekaitz Goikoetxea (bigarren),
Estitxu Eizagirre, Joseba Gojenola

X. Prudentzio Deuna Saria

Herrialdea: Araba
Antolatzailea: Arabako Bbertsozale Elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak:
1. Fasea: 1999-03-18 Gasteiz
1999-03-26 Aramaio
2. Fasea: 1999-04-16 Legutio
1999-04-23 Amurrio
Finala: 1999-04-27
Finalistak: Asier Iriondo, Serapio Lopez, Oihane Perea (bigarren), Asier Otamendi (lehenengo), Nagore Soroa eta Zigor Enbeita

4.- Bertsopaper Lehiaketak:

IX. Antzarren Bertsopaper Lehiaketa

Herria: Lazkao

Antolatzailea: Maizpide Euskaltegia eta Goierriko Euskal Eskola kultur elkarte

Mailak: Bakarra (OHoko 6., 7. Eta 8.)

Sarituak: Ez da saririk ematen. Aurkeztutako lanekin liburuxka bat argitaratzen da

XIII. Arrasate Lehiaketak

Herria: Arrasate

Antolatzailea: AED

Mailak: A: 14 urte arte

B: 15-16 urte

C: 17 urtetik aurrera

Sarituak: A: 1. Maitane Mazmela "Misiolariak"
2. Idurre Osa "Ehiza"

B: 1. Jokin Labaien "Gabonak"

2. Janire Bolinaga "Gure gaztaroa"

C: 1. Ander Lizarralde "Azken oihua"

2. Hutsik

XV. Basarri Saria

Herria: Zarautz

Antolatzailea: Udal Euskara Zerbitzua

Mailak: Bakarra

Sarituak: 1. Pello Esnal "Gaur urtebete"

2. Ekaitz Goikoetxea "Bizitza minutuz minutu"

XIII. Baztan Bidasoako bertso-paper Lehiaketa

Herria: Bera

Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte, Bortzirietako bertso eskola

Mailak: A: 10 urte arte

B: 10-14 urte

C: 15-17 urte

D: 18tik gora

Sarituak: A: 1. Dorleta Larque "Udazkena eta bertze urtaroak"

B: 1. Iñaki Eskudero "Hirugarren munduko jendea"

C: 1. Egoitz Zelaieta "Internet"

D: 1. Julen Zelaieta "Pedalarteko bertsoak"

VII. Billabona bertso eta ipuin lehiaketa

Herria: Villabona

Antolatzailea: Udala

Mailak: A: LH-ko 2. Eta 3. Zikloa

B: DHB-ko 1. eta 2. zikloa

Sarituak: A: 1. Alvaro Hilario Cuadrado "Aste Santuak"
2. Beñat Iguaran "Bai Euskarari"

B: 1. Naroa Geresta "Irribarre txiki bat"

2. Iñigo Usandizaga "Aste santuak"

XIII. Egile berrientzako literatur lehiaketa: olerkia, narrazioa laburra, bertso-paperak eta komikia

Herria: Iruñea

Antolatzailea: Udala

Mailak: Bakarra

Sarituak: 1. Xabier Silveira "E. Varelaren igande bat"

II. Gabonetako bertso-paper lehiaketa: Joanito Dorronsoro Saria

Herria: Zumaia

Antolatzailea: Zumaiako Bertso-eskola

Mailak: Bakarra

Sarituak: 1. Eneko Dorronsoro "Mendearen brankatik"
2. Xabier Azkue "Zumaiak XX. mendeari agur"

XII. Garriko eguna

Herria: Muxika (Ariatza)

Antolatzailea: Garriko bertso-eskola

Mailak: A: 11 urte arte

B: 12/13 urte

C: 14/18 urte bitarte

Sarituak: A: Ana Martinez "Azterketak gainditu dozuzalako sari bat eskatzeko dinotsu amak" gaiari

B: Amaia Uribe "Euskal Selektzioa" gaiari

C: Igor Muniategi "Lizarra-Garazi eta hauteskundeak"

I. Ibon Zabala bertso-paper lehiaketa

Herria: Errenteria

Antolatzailea: Lau Haizetara elkarteko Xenpelar Bertso Eskola

Maila: Bakarra

Sarituak: 1. Jon Ansa "Bandera zuririk ez Kosovon"
2. Jon Martin "Neurea zelako hil nuen"

II. Jentilak koplaper lehiaketa

Herria: Igorre

Antolatzailea: Arratiako Bertso Eskola

Mailak: A: 14 urte artekoak

B: 15-19 urte bitartekoak

C: 19 urtetik gorakoak

Sarituak: A: 1. Ibai Bengoetxea "Euskal Herria"

2. Manex Sagarna "Bakea"

B: 1. Ekaitz Goikoetxea "Ilargipeko ametsak"

2. Xiber Uriarte "Erroetara loturik"

C: 1. Arkaitz Estiballes "Gerraren despedida"

2. Eñaut Intxaurreaga "Danak bat"

VII. Joxe Legarreta bertso-paper Lehiaketa

Herria: Hernani

Antolatzailea: Udal euskara zerbitzua

Mailak: A: 14 urte arte

B: 15-18 urte bitarte

C: 18 urtetik aurrera

Sarituak: A: 1. Irati Goikoetxea "Maiz gogoratzen naiz egun hartaz"
B: 1. Ekaitz Goikoetxea "Irakeko leiho ertzetik"
C: 1. Unai Agirre "Non dabil!"
2. Pello Esnal "Ai, Jehova, Jehova!"

I. Julene Azpeitia ipuin eta bertso lehiaketa

Herria: Durango
Antolatzailea: Udaleko euskara saila
Mailak: A: DBH-ko 1. eta 2. mailakoak
B: DBH-ko 3. eta 4. mailakoak
Sarituak: A: Hutsik
Akzesita: Iñigo Igartza "Bertsoak"
B: 1. Txomin Magdalena "Gau baten ikusitakoa"

V. Kabi Goitia Bertso Paper Lehiaketa

Herria: Bilbo (Deustu)
Antolatzailea: Matxintxu euskaltegia
Mailak: A: 17 urte arte
B: 18 urtetik gora
Sarituak: A: 1. Sustrai Kolina "Amamaren baratza"
2. Sustrai Kolina "Bertso berriak torero batek jarriak"
B: 1. Iñaki Aurrekoetxea "Bedeinkarua izan dadila"
2. Iratxe Ibarra "Bide-ertzean"

IX. Koldo Mitxelena saria

Herria: Donostia
Antolatzailea: Donostiako udala. Euskararen udal patronatua
Mailak: B: LHko Bigarren zikloko 2. maila eta hirugarren zikloko 1. maila
C: LHko Hirugarren zikloko 2. maila eta DBHko lehen zikloko 1. eta 2. mailak
Sarituak: B: Unai Gaztelumendi "Xalbador"
C: Beñat Gaztelumendi "Euskara: larri xamar baina gurea"

VIII. Lazkao-Txiki Bertso Paper lehiaketa

Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkarteak
Mailak: A: 13 urte arte
B: 14-18 urte artekoak
C: 1980an edo aurretik jaiotakoak
Sarituak: A: 1. Oier Zurutuza
2. Aitzol Munduate
B: 1. Irati Goikoetxea "Erbia eta dordoka"
2. Amets Arzallus "Gasolina superra"
C: 1. Nikolas Zendoia "Astoa"
2. Rufino Iraola "San Frantziskoren liburutik"

XII. Manuel Lekuona Bertso Paper lehiaketa

Antolatzailea: Girizia Elkarteak
Mailak: A: 16 urte arte
B: 16 urtetik aurrera

Sarituak: A: 1. Sustrai Kolina "Maite zaitut"
2. Miren Artetxe "Iparraldea"
B: 1. Arkaitz Estiballes "Nolakoa zinen Bilbo?"
2. Unai Agirre "Hiriko ospitalean"

I. Mendaro Txirristaka Bertso Paper saria

Heria: Mendaro
Antolatzailea: Udala
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Ekaitz Goikoetxea
2. Jokin Urain

XV. Mutrikuko Bertso Paper lehiaketa

Heria: Mutriku
Antolatzailea: AEK
Mailak: A: 14 urte artea
B: 15-18 urte artekoak
C: 19 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Aitziber Azkue
B: Jokin Urain
C: 1. Ekaitz Goikoetxea "Egunsentia"

XII. Orixe Bertso Paper lehiaketa

Antolatzailea: Orixako kultura batzordea
Mailak: A: 1. 14 urte bitarte
B: 1. 15-20 urte bitarte
C: 21 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Irati Goikoetxea "Martintxo"
B: 1. Ekaitz Goikoetxea "Euskaraz bizi"
C: 1. Alaitz Sarasola "Mokadu goxoa"

V. San Andres Bertso Paper lehiaketa

Heria: Eibar
Antolatzailea: ...eta Kitto! Euskara taldea
Mailak: A: 14 urte arte
B: 14 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Iñigo Zurita "San Andresak"
B: 1. Oihana Arakistain "Ama, non zaude?"
2. Beñat Mallabia "Soldaduzka"

II. San Antontxu Bertso Paper lehiaketa

Heria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket bertsolaritza elkarteak
Mailak: A: 18 urte arte
B: 18 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Irati Goikoetxea
2. Igor Muniategi
B: 1. Ekaitz Goikoetxea
2. Moises Enbeita

XXIII. Santixabel Bertso Paper lehiaketa

Heria: Usurbil

Antolatzailea: Bota Punttuba bertso eskola

Mailak: Bakarra

Sarituak: Joxe Mari Arzallus gaia: Kanpanorrean dagoen ezkutuko kamara bat zara: nola ikusten duzu Usurbil?

VIII. Xabier Munibe Bertso Paper lehiaketa

Heria: Azkoitia

Antolatzailea: Udaberri eta Indarlan guraso elkarteak

Mailak: A maila: 12-14 urte artekoak

B maila: 14-16 urte artekoak

Sarituak: A: 1. Haitz Aierbe "Eskutitza nere maiteari"

2. Beñat Txapartegi "Gerrarik ez"

B: 1. Irati Goikoetxea "Birigarroa"

2. Egoitz Alkorta "Ametsetako neska"

XI. Zapirain anaiak Bertso Paper lehiaketa

Heria: Errenteria

Antolatzailea: Lau Haizetara: Xenpelar bertso eskola

Maila: Bakarra

Sarituak: 1. Jon Ansa "Bandera zuririk ez Kosovon"

2. Jon Martin "Neurea zelako hil zuen"

**BAT-BATEKO
BERTSO HAUTATUAK**

OÑATI (1999-01-05)

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, Mendizabal, Amuriza eta Peñagarikano.

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Oñatiko Udaleko Kultur Sailak eratutako jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan hasi zen eta ohi bezala jende asko Zubikoa pilotalekuan.

Egaña-S.Lizaso

Gaia: Xebastian korbata da eta Egaña eskotea.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Kantatzera nijoa

Egaña: Korbata ta eskote
 zer-nolako pinta!
 Diferenteak gera
 pentsatzen jarrita,
 diferentzia zer den
 edonork daki-ta:
 zu batzutan itsusi
 ni beti polita. (bis)

S.Lizaso: Zurekin ere polit
 ez dabilta denak,
 hemen biok ditugu
 norbere ahalmenak;
 diferentziak ere
 oso nabarmenak:
 zuri begira daude
 ni janzten nautenak. (bis)

Egaña: Korbatak ematen du
 lastima ta pena,
 beti bistan dagola
 hori da txarrena;
 ta eskoteak badu
 alde nabarmena:
 izkutatzen dedana
 dela politena. (bis)

S.Lizaso: Horrela bada dena
 agertu osorik
 eta egingo dizu
 jendeak kasorik.
 Nahiz ta udan ez dezun
 inoiz preziorik,

neguan ez daukazu
estimaziorik. (bis)

Egaña: Korbata mintzatu da
txepelen planian,
ez nuen hitz egingo
hala izanian;
ni estimatzen naute
gehien-gehienian
negu parte horretan
gutxien darian. (bis)

S.Lizaso: Zu polita bazera
ni ez naiz kirtena,
asko zuri begira
neurritik irtena,
bainan nun jantzi denak
ondo ez dakitena,
batzutan bizkarrean
zera politena. (bis)

Egaña: Esplikazioren bat
nahi dizut eskeini:
korbata, zuk ez dezu
hainbeste harmoni;
beti igoal-igoalak
mila zeremoni
ta arnasaldi bakoitzak
kanbiatzen nau ni. (bis)

S.Lizaso: Aldatzen zeradela
arnas bakoitzean,
jendea jartzen baita
zurekin trantzean;
zeu're ez zera beti
patxadako antzean,
urduri jartzen zera
ni arrimatzean. (bis)

TOLOSA (1999-01-16)

Bertsolariak: S.Lizaso, Iturriaga, Lujanbio, Peñagarikano, Mendiluze eta U.Agirre.

Gai-jartzailea: Amaia Agirre

AEK-k urtero eratzen duen jaialdia. Beotibar pilotalekuan, gaueko hamar eta erdietan, laurehun entzuletik gora. Saio gora beheratsua izan bazen ere, guztiek eskaini zuten printzaren bat edo beste. Peñaren bakarkako lanak jaso zuen txalorik gehien.

Lujanbio-Peñagarikano

Gaia: Askotan pentsatzen dugu besteek guregatik esaten dutenari ez zaiola kaso egin behar eta guk gure bidean segi behar dugula. Baina aspaldi honetan zuek biok oso harrituta eta kezkatuta zabiltzate zuengatik egiten diren komentarioak direla eta.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Peñagarikano: Bertso munduan ibiltzen gera
biok nola edo hala;
hau gaztetxoa, ni beterano,
badaukat nere itzala;
eta jendeak esames asko,
alde batera normala;
nik segiko det eta nahi dunak
nahi duna esan dezala. (bis)

Lujanbio: Nahi dunak esan beza nahi duna,
hoi da gauza naturala,
baina, aizu Peña, azkenaldian
sarritan entzun det hala:
"Anjel Mari honek builarik ez du
gaur egiten lehen bezala",
esaten dute depresioak
jota omen zabiltzala. (bis)

Peñagarikano: Itxura danez orain jendea
kezkatzen dago hasita,
bainan hala ere ez nun galdu nahi
gaur Beotibarko zita;
eta jendea tristetu egin da
ni hain isilik ikusita,
zu're hargatik etorri zera
guzia beltzez jantzita. (bis)

Lujanbio: Guztia beltzez jantzita nator
baina ez det galdu bururik;
zure jazkerai dagokionez
ordea hauxe entzun dut nik:
ez dabilkizu lehengo txaketaik
eta lehengo piurik,
esaten dute ez daukazula
orain zein seduziturik. (bis)

Peñagarikano: Jendea isilik egongo balitz
nik neronek askoz nahio,
"txapelketara hoi ez da joaten
ta urtean berrehun saio;

behin ere ez da ezkonduko hoi",
ze kristo ta ze arraio!;
zer bizimodu daramakidan
zeini zer inporta zaio? (bis)

Lujanbio: Ba al dakizu zer entzun nion
bati lehengo egunian?
"Anjel Mari horrek idea berrik
dabilzkila garunian";
esaten dute begiratuta
zure kopeta gunian,
txapelketara joango zerala
burusoiltzen zeranian. (bis)

Peñagarikano: Adar jotzaile haundia zera
ta matraka nabarmena;
hemen jendeak ondo entzun du
neskatok esan duena.
Zuk besterena esaten dezu,
horrek ematen dit pena
eta oraindik ez dezu esan
zutaz esaten dutena. (bis)

Lujanbio: Hoixe nahi nuen hain juxtu ere,
zure papera juzgatu
ta neri buruz ze esaten dan
nahiago det ez aipatu;
bestek esaten baldin badute
euren ahotan geratu,
nik aholku bat emango diet:
ahal dan okerren pentsatu. (bis)

Peñagarikano: Esaten dute "burusoiltzean
jantzi behar du txapela,
bainan bizitzan beti izango da
mutilxaharra ta txepela".
Depresioak jo behar zaitu
ni neu jo nauan bezela,
esaten dute Sebastianekin
maiteminduta zaudela. (bis)

Lujanbio: A ze nolako kotilleoak
dabilzkigun parez pare!
Gaizki esaka hola ibiltzea
ez da inoren mesede.
Hala ere puntu txiki bat bada
hori esan dunan alde,
maiteminduta nagoelako
Xebastianekin ere. (bis)

S.Lizaso

Puntua jarrita

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Sastarretik hasita

U.Agirre: Zenbat kilo dituzu
zuk lagun Lizaso?

S.Lizaso: Ehundik gora lau-bost bat
baditut akaso;
baina hori jakiteko
zuzen ta eroso,
lurrean etzango naiz
nahi banauzu jaso.

Mendiluze: Zuk zer egiten dezu
oholtzatik kanpora?

S.Lizaso: Alperrik ez det galtzen
sekula denbora;
bukatzean joaten naiz
lagunen ondora,
berriketan egoteko
puxka'ten gustora.

U.Agirre: Zenbat parranda egiten
dituzu urtian?

S.Lizaso: Garbi esango dizut
ohartu zaitian:
txintxo ibili ohi naiz
tartian-tartian
eta parrandan berriz
ahal dudan guztian.

Mendiluze: Ta urtean zenbat bertso
botatzen dituzu?

S.Lizaso: Galdera zail samarra
egin dezu aizu;
herri askotatikan
hainbeste abisu...
nerekin ibili ta
kontatu itzazu.

Iturriaga: Azkena da-ta esan

zazu nahi duzuna;

S.Lizaso: lehen ere gauza bera
egin dut laguna;
zuena zan galdera,
ta nik erantzuna
hau da bertsolariak
egin behar duna.

Peñagarikano

Gaia: Herri honetakoak diren Xabier Telleriak eta Kike Amunarrizek atera berri dute liburu bat, izena *Txorakikeriak* daukana, eta zuk, Peña, gutxiago ez zarela pentsatu eta Peñakeriak liburua idazteari ekin diozu. Kontaizkiguzu horko istorioren batzuk-edo.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adiskidea Andoaindikan

Gizonezkook zakila degu,
hori ezin da izkuta;
lehendabiziko peñakeriaz
ez bedi inor asusta!
Harremanetan ipintzen degu
bere puntan goma puska,
horri euskeraz deitzen diogu
"lukainkako katiuska".

Beste hitz-joko bat egin behar det
ta ez zenuten usteko,
ministro azienda nola dan txinoz,
hori dut erakusteko;
ministro hori "txanpon" omen da,
beraz dirua du lepo;
eta "txanpon poff" errusieraz
kiebra egin dula esateko.

Liburu hortan peñakeriak
eta hitz-jokoak tope!
Oaingo txiste hau nere ilobei
asko gustatzen zaiote:
ijito batek bere semeai
nola hots egiten ote?
"Hijito mio" deitze'omen dio,
halaxe esan didate.

MARKINA (1999-01-17)

Bertsolariak: J.Sarasua, I.Elortza, Mendiluze eta Peñagarikano

Gai-jartzailea: Joxe Felix Zamakona

Barinagan, Sanantolinetan, urtero eratzen duten jaialdia. Elizan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan. Entzule asko eta saio polita oro har.

I.Elortza-J.Sarasua

Gaia: Hemengo bertsolariak Kanarietan izan berri dira inprobisatzaileen topaketa batzuetan. Hara hemen gaur, Jon, non agertzen zaizun, Igor, neska gazte dezimista hau, ume bat besoetan dakarrela.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

I.Elortza: Kanarietan eon ginan
ederto pasatzen;
lagun haundiak egin,
hotelera zuzen;
orain hemen nator ni
umeagaz ozen,
ez al dautsazu honi
zure antzik hartzen? (bis)

J.Sarasua: Antza izan liteke
erdi aitzakia.
Kanarias da bero
eiten dun tokia,
baina insinuaketa
ez zen egokia;
nik soilik bota nuen
zortziko txikia. (bis)

I.Elortza: Esan dogu, alkarraz
egon gara aurten;
zeozer egin gendun
hotel merke baten.
Zortziko txikia dau
gaur Jontxuk esaten,
eskerrak ez jatazan
zortzi txiki urten! (bis)

J.Sarasua: Zera gertatzen zaio
hainbat neskatili:
azpikoa berotu
hamaika mutili;

orain horren estu ez
nazazu erabili,
Egaña ere ez al zan
ondoan ibili? (bis)

I.Elortza: Bakean bizi daiten
itxi Egañari,
proiektu haundi bat deukot,
egon zaite adi:
ume honek egingo dauz
saioak ugari,
Kanarian repentista
ta hemen bertsolari. (bis)

J.Sarasua: Palmasen txakur askok
egin zizun zaunka;
nik neuk ezer ez daukat
Egañaren aurka,
baina ume hau ez da
Sarasuan marka,
ez du antiojurik
ta ile gutxi dauka. (bis)

I.Elortza: Laster urtengo jakoz
ule batzuk gora
ta gero helduko da
miope tonora.
Medikuen eskutan
ixtea da hoba,
ADNaren froga
egin beharko da. (bis)

J.Sarasua: Froga hori egitea
gaur ez da kasua,
ez zan nerea izan
zure enbarazua.
Mutiko polita da,
isil ta gozua,
gutxi protestatzen du,
ez da Sarasua. (bis)

OIARTZUN (1999-01-17)

Bertsolariak: S.Lizaso, Maia, Iturriaga, Mendizabal, Sorozabal, Lujanbio eta Jon Martin.

Gai-jartzailea: Laxaro Azkune

Euskal Errepresaliatuak Euskal Herrira lelopean Senideakek eraturako jaialdia. Mila entzule inguru Elorsoro kiroldegian. Bertsotan egiteko giro beroa.

Mendizabal-Sorozabal-S.Lizaso

Gaia: Euskal Herrian dugun pentsalari handi batek, Joxe Azurmendik, bere liburu batean dio euskaldunok artxipielago bat omen garela, eta justu banatzen gaituen hori omen da elkar lotzeko ere dugun lokailua: itsasoa. Nik zuei galdetzen dizuet, ea euskaldunon artean zer den bai berezi eta bai lotzen gaituena ere.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ama Birjina Erkudengoa

Mendizabal: Itsas erdian hainbat euskaldun
nunbait ote gera galdu,
bereztasun aipagarrinak
nahi ditut hemen azaldu:
norbaiti lagun behar bazaio
euskalduna horren kargu,
bainan haserre jarritakoan
etsai gogorrek gera gu.

Sorozabal: Euskara da bat batzen gaituna
ta nortasuna bestea,
pozgarria da bide horretan
noizbait batera hastera.
Bada hori nahi ez duenikan,
hori da gauza tristea;
une honetan garaipena da
batasun honi eustea.

S.Lizaso: Aukera ona orain degu ta
galtzeak ez du merezi,
desfidantza ta konpenezina
bidal ditzagun ihesi.
Abertzale ta ez direnaren
tarte hoinbeste hesi;
sentimentuak elkartzen gaitu,
sentimentuak berezi.

Mendizabal: “Herri bat ginen, herri bat gera”
diogu gaur amorruan,
beste batzuek hartu nahiean
dabilta beren karruan.
Eskubideen aldarrikapen
jatorrenaren korduan,
uhartetxo bat izan nahi degu
penintsularen barruan.

- Sorozabal: Uhartetxo bat omen gera gu
gaur Europaren aurrian
ta hemen gaude geure harremanak
gaur indartu beharrian.
Aldamenean ditugu asko
hain errezelo txarrian,
ta hoiek ere kutsa ditzagun
askatasun egarrian.
- S.Lizaso: Errepaso bat historiari,
begira atzealdera;
gure aztarrenak nondik datozen
ezin arrastoik atera.
Bi estaduren erdian gaude
eskatuz geure aukera;
herri zaharrena izanagatik
herri txarrena ez gera.
- Mendizabal: Herri zaharrena omen gerala
eta goaz orpoz orpo,
aldamenetik aspaldidanik
hasi ziran mokoz moko.
Erabaki bat aipatu eta
bukatu hainbat oztopo,
gerana izaten uzten badigu
Espaini ez degu gorroto.
- Sorozabal: Batzuentzako utopia da
nahi degun askatasuna,
errealitate nahi genukenok
hor degu eginkizuna.
Ez dakit garbi bide hori den
argia edo iluna,
baina gutxinez izan bedi guk
erabakitzen deguna.
- S.Lizaso: Lehen “zazpiak bat” oihukatzen zen,
hori ez zen nobedade;
batetik hiru, bestetikan bat,
besteak ere han daude.
Proiektuakin nahiz ta konforme
ez dagoen zenbait jende,
Nafarroara begira gaude
iparrikan galdu gabe.

ZEGAMA (1999-01-23)

Bertsolariak: Mañukorta, Peñagarikano, Mendizabal, Egaña, J. Agirre eta S.Lizaso.

Gai-jartzailea: Pello Urretabizkaia.

Zegamako Kasinoak urtero eratzen duen jaialdia. Kanpoan hotz egiten bazuen ere, kiroldegian nahikoa giro ona, berogailua jarri zuten eta. Gaueko hamar eta erdiak jota hasi zen saioa.

S.Lizaso

Gaia: Zu zara Lizarra-Garazi bezala ezagutu dugun tren horren makinista. Kontaiguzu orain arteko ibilbidea nondik nora joan den eta zure esku balego nora iristea gustatuko litzaizukeen.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Euskal Herria sekulan ez da
lorerik gabeko jardín;
lora bakoitzak bere arantza,
hortaz ez gera ezjakín.
Alderdi eta sindikatuak
halako baten bat egin.
Trenak hasera Lizarran zuen
eta helmuga Garazin;
seguru baino mantso dijoa
nahi duena igo dadín. (bis)

Estatelisten begietan da
gorrotoaren distira
ta barrikadak jarriaz datoz
trenbidearen erdira.
Trabak ugari izanagatik
denak gaintituko dira,
ta tren mantsoak jarrai dezala
beti aurrera begira,
askatasuna eta pakea
zain dituen geltokira. (bis)

Mendizabal

Puntua jarrita

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Xarmangarria zera

Urretabizkaia: Hamaika lotsagabe

bizi da munduan!

Mendizabal: Arrazoi hori daukat
oraindik goguan;
Lazkao Txiki zenak
hemen bota zuan:
"zu bakarrik zinala
uste al zenduan? .

Mendizabal

Gaia: Hainbat iragarki ikusi ditugu, irratian entzun ere bai, eta gaur honela zioen: "Zazpi egun falta dira". Zer datorkizu burura?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Joan zan urteko uztaila genun
oso garai nabarmena,
egunkari bat asaltatuaz
hankaz gora jarri dena.
Zazpi hilabete igaro dira
bainan bada jarraipena,
zazpi egun barru izango baita
geure kaleetan barrena.
Askatasunez etor dadila
indarrez itxi zutena! (bis)

Mayor Orejak zer egin zuen
orain nahi nuke gogora,
adierazpen askatasuna
bota baitzuen zulora.
EGIN lurpera joanagatik
GARA altxatu da gora,
denon laguntza izan du eta
guztiok gaude gustora;
datorren jaiari Euskal Herria
libreago izango da. (bis)

BILBO (1999-01-29)

Bertsolariak: Iturriaga eta Lujanbio

Gai-jartzailea: Joxemi Larrabeiti

Kafe Antzokian eratu ohi dituzten bertso afarietako bat. Hirurogeita hamar afaltiar eta bertsotan jarduteko giro aparta. Lehenbiziko zatian librean aritu ziren bertsolariak eta bigarren zatian gai-jartzailearen esanetara. Saio ona, oro har, eta entzuleak pozik.

Iturriaga-Lujanbio

Gaia: Zuen arteko maitasuna ezinezkoa da; hain hurbil, hain urrun; Unai iragana zara eta Maialen geroa.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Euskal Herriko neska pollitak

Iturriaga: Gure arteko maitasun honi
bide bat jarri beharko,
edo zubi bat bide batekin
inora ez goazelako.
Heldu nahi zaitut, laztandu nahi ta
beti ateratzen da txarto,
ni atzo heldu nintzelako ta
zu bihar zatozelako. (bis)

Lujanbio: Nahiko maitasun, nahiko desio
nahiko gogo, nahiko fede;
hain hurbil eta aldi berean
gu biok hain urrun gaude;
zu izan zinen, ni izango naiz,
baina ez batzea hobe,
ez zu ta ez ni gaur egunean
ez gara ezertxo ere. (bis)

Iturriaga: Elkarrezinak batuak gaitu
gaurko honetan gu hemen,
Romeo eta Julietan gisan
hau ezinezkoa omen.
Zuk nire aldean bentajatxo bat:
geroa duzu bederen;
zuk badakizu zer izan naizen
ta nik ez dakit zer zaren. (bis)

Lujanbio: Arrazoi dezu, ze izango naizen
ezin dezakezu jakin;
ze izan zinen nik ondo dakit:
oroitzapen bat behinepin.
Ez zait samina maitemintzea
etorkizun hurbilakin,
okerrago da maitemintzea
aldegin duenarekin. (bis)

Iturriaga: Gu omen gara gero historiak
izango ditun bi zati,

baina zuk ez ta nik ere ezin
hortan ezer erabaki.
Gaur eguna da gure artean,
zertan dabilen badaki
eta txarrena hirugarrenak
agintzen duela beti. (bis)

Lujanbio: Iragana ta etorkizuna,
oroitzapen ta eredu,
elkarrengandik beti hain hurre,
beti hain hurbil gaude gu;
ia bat gera baina elkar uki
sekula ezin dezakegu,
gaur egunaren korapiloa
beti tartean baitegu. (bis)

Iturriaga

Gaia: Zeren bila zabilta?

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Habanera

Galdera ez da hain zaila baina
erreza ere ez da tira;
nire barne arazoak
atera behar argira.
"Zeren bila eta zer nahi?",
hoiek galdera asko dira,
zein ote dan nire izarra
ta zein dan nire distira;
salto egin nahi nuke nik
bizitzan aro berrira,
maitasuna ta bakea
ekarri nire herrira,
baina lehen erabilia
dugun gaiaren harira,
iraganean bila ni
ta geroari begira.

Ze demontre ateratzen dan
tipo honen barrenetik?:
bertsotan urrundua naiz
Bizkaiako txapeletik;
karreran ez naiz agertu
laurogeita hamabostetik,
ta ze hostiatan nabilen
neronek ere ez dakit.

Noraez honek gainera
barruan min ematen dit,
ta buruak esaten dit
"Unai hik ederto dakik,
topatu behar dok zerbait
heure barne muinetatik
eta Unai izan behar dok
Iturriagaren gainetik".

Ni ez bainaiz konformatzen
tokatu zaidan paperaz
ta bizitza triste honek
eskeini didan aukeraz.
Jendeak komentauko du
"konforme ez hago, beraz",
baina konforme egotea
ez da suertatzen hain erraz;
aspertu egin naiz sarri
bai bertsoez ta bai temaz,
inoiz ez bainaiz sentitu
horri aurre egiteko kapaz;
bizitzak eramaten nau
ni olatuetan hegaz,
beti amets baten bila
eta beti itxartzen naz.

MUTILOA (1999-02-12)

Bertsolariak: Murua, Peñagarikano, S.Lizaso eta Egaña

Gai-jartzailea: Joserra Garzia

Lierniko Mujika jatetxean, inauterietako ostiralean, urtero egiten den bertso afaria. Hirurogeiren bat afaltiar, giro bikaina eta ia hiru orduko saioa. Estreinako zatian Joserrak jarritako gaien gainean jardun zuten bertsolariek, eta bigarreanean, Joserrak berak aurkeztu, baina afaltiarrek jarritako gaien gainean.

S.Lizaso-Egaña

Gaia: Bi andre zarete eta desagertu berri den Marero ontzian zenituzten senarrak. Orain gorpu bat agertu da, eta Xebastianek desio du, bihotz betean, bere senarrarena izan dadila. Andonik, berriz, aukeran, nahiago bere senarrarena ez izatea.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

S.Lizaso: Itsasoa zen gure bizitzan

oinarri edo zutabe
eta senarrak harutz joan ziran
beti xuabe-xuabe.
Ta itsasoak sorpresa txar bat
gorde zuen bere alde,
gorpu bat bistan, "nerea ote?",
zalantza horrekin gaude;
hil danik ere ez dut sinesten
gorpurik ikusi gabe. (bis)

Egaña: Lehertzen sentitzen ditut bihotza,
garuna eta bi loki,
gizonan faltan edozer gauza
iruditzen baitzait txiki.
Gorpuarekin zer arraiotan
oroitzapenei atxiki?
Uraren pera joan zen eta
iruditzen zait egoki:
itsaso bera izan dezala
bizileku ta hiltoki. (bis)

S.Lizaso: Urte guztian izaten zuten
itsasoratzeko txanda
eta hiltoki hori izan du,
nor ez dago antzemanda?
Itsasoari egin nahi diot
behin ta berriro demanda:
itzuli behintzat gorpuak guri
lehen horrenbeste izanda;
behin betirako agurtu nahi dut
azken muxu bat emanda. (bis)

Egaña: Zure senarra maite zenuen,
nik'e maite nuen berdin;
behin betirako zela uste nun
itsasoan galdu aitzin.
Orain aurrean ikusi nahi ta
inola ikusi ezin,
baina muxua sentitu ohi dut,
nahi ote zenuke jakin:
hondartzaraino ailegatzen den
olatu bakoitzarekin. (bis)

S.Lizaso: Zuk dadukazun itxaropena
ez dut nerekin tamalez,
itsasoari negarrez beti
hain egoera apalez;
berriro ere "eman gorpua",
eskatzen diot mesedez;
joan-etorrian nik itsasoa

bizi dut halabeharrez,
itsasoa bizirikan dago
bainan nere senarra ez. (bis)

Egaña: Behin betirako ez da izaten
larrosa ta erramua;
behin irrapartsu kontatu zidan
"ene emazte, banua";
eurak uste ta itsas hondoak
zedukan nunbait amua.
Guk zer maitatzen degun kontatu
nahi dizut, nahiz den damua:
nik senarraren mamia eta
zuk senarraren mamua. (bis)

S.Lizaso: Nik mamurikan ez dut maite ta
zuk ez egin aipamena;
gorpurik gabe handiago da
nik sentitzen dudana pena.
Garai batean itsasotikan
lortu ohi genduen dena,
ta itsasoak berak eraman
nere lagunik maitena;
gorrotatzera iritsiko naiz
lehen hainbat maite nuena. (bis)

Egaña: Egun haietan gailurtu omen zen
lehengo itsaso barea;
alperrik gure otoitza eta
jendean misererea.
Gorpua zure senarra dela
azaldu dezu fedea;
datorren hura banatzea da
itsasoaren legea:
nerea bada zurea da ta
zurea bada nerea. (bis)

BILBO (1999-02-13)

Bertsolariak: Ibarra, I.Elortza, Egaña eta J.Sarasua

Gai-jartzaile: Marta Ortiz

Santutxuko bertso eskolak urtero eratzen duen inauterietako saioa. Eguerdiko ordu
batean izan zen, Plaza Barrian.

I.Elortza-Egaña

Gaia: Zu, Igor, Andoniren telefono mugikorra zara. Joandako hiru asteetan deskonektatuta egon zara eta gaur barrero konektatu zaitu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

I.Elortza: Azkenaldian gure jabeak
hor alboan itxi gaitu;
barrero ere konektatu nau,
mezuak zelan amaitu?
Parka Andoni, zeure bidetik
lehen legez trankil jarraitu,
nik sentitzen dot zure ezbeharra
baina ez zaitu inork deitu. (bis)

Egaña: Nere ustetan izango nuen
majina bat konpromisu,
hiru astean ez dut eduki
ez dei eta ez abisu.
Nahiko garesti kostea zera
ta listoa zera aizu,
nextkaren baten mezu polit bat
zeuk inbentatu ezazu. (bis)

I.Elortza: Pentsa dagigun Martana zela,
hau dala nire bandoa:
"inauteriko saiotarako
eduki gendun gogoa,
eguerdian izan behar zana
orain aldatzera doa:
egunsentiko zortziretan da
Plaza Barriko saioa". (bis)

Egaña: Mezu txar hori ez entzutea
nahiago nuen kasikan,
goizean zortzik aldera ezin
Bilbora joan pozikan.
Inola ere ez nun espero
era hortako gauzikan,
zu ez zerade telefonoa
alkahuetea baizikan! (bis)

I.Elortza: Ta azkenengo errekadua
orain gura dot ekarri,
ordaindu ez dozu beti ordaintzen
baina erabili sarri.
Pantallatxoan hau idatzi dot
ta zergatik zeuk igarri:
hamar mila ta bostehun pezeta
zor dautsozuz MoviStarri (bis)

Egaña: Horrenbeste zor daukat orduan,
sakelaren kalterako;
Moviestar da hartzekoduna,
ez dit ezer aterako,
harreman hori kaltegarria
baita nere usterako;
deskonektatu egingo zaitut
beste hiru asterako. (bis)

AZKOITIA (1999-02-20)

Bertsolariak: Egaña, I.Elortza, Lujanbio eta J.Sarasua.

Gai-jartzailea: Laxaro Azkune

Maxizatzen Euskara Elkarteak Korrika Kulturalaren barruan eratutako jaialdia.
Baztartxo zineman, gaueko hamar eta erdietan; laurehun entzuletik gora, gehienak gazteak.

Lujanbio

Gaia: Azkoitian dagoen kultur ingurune ezagunenetako bat Matadeixe izenekoa da seguru asko, garai batean ganadu hiltegi abandonatu bat izana eta gazteek martxan jarri zutena. Bertso pare bat mereziko ditu.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Garai batean ganadu hiltegi
zela-ta asko harritu,
hobe ganadu hiltegi orok
aukera hoiek balitu.
Gazte batzuek hartu zuten ta
goitik behera erdibitu,
mataderoak zer egiten dun
ezin gaizki iruditu:
ofizialkeri danak akatu
eta ametsak erditu.

Mataderoak urteak ditu
akaso bi edo hiru,
traba pila bat tarteko baina
denbora alde datorkigu.
Ta politikak gure kontrako
ezpata zorrotz beti du;
ez degu behar ez presupuesto

ta ez zuen hainbat diru,
inork eman zai egon gabe're
guk geuk egiten dakigu.

IRUN (1999-03-19)

Bertsolariak: Mendiluze, Sorozabal, Egaña, Maia, S.Lizaso eta Murua.

Gai-jartzailea: Patxi Larretxea

Korrika Kulturalaren barruan Irungo AEK-k eraturako jaialdia. Amaia antzokian, eguerdiko hamabietan, berrehunen bat entzule.

Mendiluze-Murua

Gaia: Zuek bi korrikalari zarete, baina berezi samarrak. Herrietan-eta jende askok parte hartzen du Korrikan, baina izaten dira oso jende gutxi ibiltzen deneko lekuak ere. Zu, Iñaki, mendian gotti, lekukoarekin izerdi patsetan, zoazen korrikalaria zara, eta zu, Aitor, munduko kros txapelduna. Elkarrekin topo egin duzue, eta zuen solasaldia.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Mendiluze: Mendian gora bagoazela
alkarren pare azaldu,
zu ikusita nik nekatzeko
bildur guztia det galdu;
hori da hori izerdi pila,
ezin nezake igualdu,
eskuan dezun testigu horrek
hainbesteko karga al du? (bis)

Murua: Karga dexente, zama astuna
daukat eskutan jarrita,
bizibidea korrikalari
ez dut neuretzako maita;
bainan presa ta lasaitasunak
nigan kontraste polita:
euskera lasai bizi izan dadin
ari naiz beti korrika. (bis)

Mendiluze: Korrika ari zerala baina
hori nekatuan traza!
Urruti dezu indarra eta
estua dezu arnasa;
ta euskerari eingo diozu
nahiko mesede eskasa,
egun osoan ez zera izango
hitz egiteko kapaza. (bis)

Murua: Zuk ere isilik hobe zenduke
mingainaren maratila,
prenda hartzeko moduko ez da
nere jarrera umila;
aldapan gora testiguakin
nere egoera da zaila,
euskeran alde nekatzen naiz ni
ta zu diruaren bila. (bis)

Mendiluze: Egia da bai nere saria
izaten dela dirua,
korrikatikan ateratzen det
nik nere bizimodua;
baina ikusita hunkitu egin naiz
eta heldu zait ordua,
ez det lekuko hutsa izan nahi,
utzidazu testigua. (bis)

Murua: Korrikalari batzuk bederen
zentzu pixkat badaukate,
nahiz ta batzutan zeuen buruaz
gehitxo arduratzen zerate.
Erdibanatu testiguan zama,
ez da gu biontzat kalte,
segi korrika ta ez gelditu
euskera askatu arte! (bis)

Murua-Maia

Gaia: Zuek berrogeita hamar urte inguruan zabilzaten bi gizon zarete, hogeit bat urte daramatzazue ezkontuta. Orain arte ostatuan egiten zenuten topo, tragoak hartzen eta bititza erraz horretan, baina azkenaldian gero eta gehiagotan arropa hedatzen ikusten duzue elkar.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Lurralde dena dabil

Maia: Hemen nago balkoian
gustora halare,
zure leihoa daukat
orain parez pare.
Ohartu ez bazera
beti hemen gaude,
zer ari da gertatzen
gu ohartu gabe? (bis)

Murua:Gauzak aldatu dira
ta gainera zinez,
tenderero estandarrak
balira gutxinez!
Hemen gabiltz etxeko
lan hauek eginez,
ni hanka punttan eta
hau gerriko minez.

Maia: Mina ta gauza hoiek
izan dira aurten,
lehenago ez zirenak
horrela izaten.
Lehen trapu zikin denak
tabernan esaten
ta orain trapu garbiei
jaboia ematen.

Murua:Gauzak aldatu dira
ta zertan ikara?
Trapu hedatzen ere
gu moldatzen gara;
lehen tabernan geundenak
etxekoandre, hara,
orain andre panpoxak
doaz tabernara.

Maia: Erropak hartu eta
etxian barrena,
komunikatu asmoz
balkoira hurrena.
Mezu sekretu hori
ulertzen ez dena,
zer idatzi dezu hor
kantzontziluena?

Murua.Zer idatziko nuen,
betiko antzera!
Erropa zuriekin
lardats ari zera.
Kantzontziluak sartu
lixiba artera
edota iseki itzazu
marroiaz atzera.

Sorozabal-Egaña

Gaia: Andoni bake prozesuetan aditua dugu. Azken urteetan munduan izan diren hainbat bake prozesutan hartu du parte eta Adams, Arafat eta horien aholkulari izan da. Andonik bake prozesuak aurrera ateratzen du ahalmena. Gaur, Euskal Herriko bake prozesua dela eta, Jokin, lehendakaria, etorri zaio aholku eske.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko

Sorozabal: Zuk badakizu nik herri honi
diodala maitasuna
ta horregatik hartu nuela
daukadan eginkizuna.
Kargua hartu nuenetikan
hor ikusten det hutsuna.
Une honetan kezka bat bada
asko zanpatzen gaituna:
nola emango'iot Gobernu honi
bere egonkortasuna? (bis)

Egaña: Ai Ibarretxe, aholku gisan
zerbait nahi nizuke kanta:
zure Gobernu horrek badauka
ezegonkorraren planta;
hemendik "zarta" jasaten dezu
eta bestetikan "kanka",
baina Lizarra-Garazikoa
oso degu tren xarmanta
ta bertan segi trenbide hori
urrutira dijoa-ta. (bis)

Sorozabal: Zuk diozunez gure tren hori
heldu leike urrutira,
dagoeneko jarrita gaude
urrun ortzira begira.
Lehenbizi batzuk etorri ziren
abitzeko geltokira,
baina nik denak nahi nituzke hor,
bada hainbat tira-bira;
ta orain igo ez diren hoiek
gero igoko al dira? (bis)

Egaña: PSOE ez da asko mugitu
pake-bide asuntuan
ta PP ere Gobernu honen
kontra ari da kantuan;
PNVk badu indar mordo bat,
eduki zazu kontuan
ta PP ere igo liteke

tren hortara momentuan,
zuen laguntza ukatu ezker
Madrilgo Parlamentuan. (bis)

Sorozabal: Plana zehatza egin didazu
ta igual ez da plan txarra,
baina agian izan liteke
betetzeko zail samarra.
Gure ondoko zenbaitengandik
iritsiko zait marmarra;
seguru asko horixe daukat
nik irtenbide bakarra,
baina ez dakit izango dudan
adorea ta indarra. (bis)

Egaña: Zure alderdian bertan daukazu
ez dakit zenbat enredo,
prozesuaren aurka baitaude
Neguri aldean-edo.
Ai Ibarretxe, bidea zein den
jakina da honezkero:
Madrilen makur jokatu eta
bentajarik ez espero,
bidea bigun bihur liteke
gogor jokatu ezker. (bis)

Maia

Gaia: Betidanik izan dituzu zakurrak gustuko eta etxean orain ere mordo, mota guztietakoak daukazu. Gaur, kalean zoazela, zure aurrean ikusi duzu nola txakur batek ume bat harrapatu eta hil zorian utzi duen. Kontatu zure burutapenak.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Txakurra dala eta ez dala
aldatu zait umorea,
egia garbi, eman behar zaio
hemen bakoitzai berea.
Hor ikusi det eszena txar bat,
hori da pizti pare!
Segurtasuna segurtatzeko
ez al da askoz hobea?:
soka berean lotu behar dira
txakurra eta jabea. (bis)

Hor ikusi det ume gaizto bat
arnasa erdi itoa.
Azkenaldian zurrumurrutan

bete zaigu lapikoa.
Kate gogorra ala biguna,
ez al da jada nahikoa?
Piztia pizti izan da beti,
ez da gezurretakoa
eta piztiak zer egiten du?:
guk erakutsitakoa. (bis)

Debate hori berriro dago
gaurko plazaren erdian;
batzuk gezurrez ari dira ta
beste batzuek egian.
Arriskuren bat badagoela,
izan liteke agian.
Hipokresiak utzi ditzagun
ta jarri haien begian,
txakurrak lotu ditzagun baina
maitasunaren harian. (bis)

IGORRE (1999-03-20)

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, Mendiluze, Ibarra, Iturriaga eta I.Elortza.

Gai-jartzailea: Karmelo Uriarte

Arratiako bertso eskolak sasoi honetan urtero eratzen duen jaialdia. Korrika zela eta, saioaren aurretik afaria izan zen kiroldegian bertan. Saioaren erdian Korrikarekin bat egin eta bertso bat kantatu zuen Andoni Egañak telefono bidez. Entzule asko, laurehun eta berrogeita hamar inguru.

I.Elortza-Mendiluze

Gaia: Seminarioan bost urte eman dituen mutila zara, Igor. Irtetea erabaki duzu eta kanpora irten zarenean, lehen laguna izandako neska hau daukazu itxaroten.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Nere senarrarekin

I.Elortza: Orain dala bost urte
zugaz zenbat jardun,
baina banaketako
bidea hartu gendun.
Triste pasatu dodaz
gaba eta egun,
izan nahi al zenduke
barriz nire lagun? (bis)

Mendiluze: Zuk gogoa zenuen
bertara sartzeko,
bainan azkenean zen
denbora galtzeko.
Nik gogoa badaukat
bai zuri heltzeko,
galdutako denbora
berreskuratzeke. (bis)

I.Elortza: Ondino heltzeko dagoz
urterik onenak,
berreskuratu baietz
galduriko denak!
Seminarioan itxi
dodaz nire penak
oraintxe eingo doguz
jesukristorenak! (bis)

Mendiluze: Beraz atera zera
intentzio finez,
ni horren esperantzan
zai nengoen zinez;
eta irtengo zinen
zeozer jakinez,
misiolariaren
postura gutxinez? (bis)

I.Elortza: Nahiz ta zure galdera
ondo dodan entzun,
parkatu, baiezkorik
nik ezin erantzun.
Baina ia erakutsi
ahal badaustazun,
azken bost urteetan
zer ikasi dozun. (bis)

Mendiluze: Orain bost urte utzi
zenuen etxea,
geroztik egin dezu
denbora galtzea;
ta nik erakustea,
hauxe da trantzea,
zer den bene-benetan
belaunikatzea! (bis)

I.Elortza: Dana esan daustazu
ozen ta korrika
ta nik nire barruak
dodaz eskegita;
etzunda hartuko dot

postura polita,
belaunikatu zaite
gainean jarrita. (bis)

Mendiluze: Zuk segituan hasi
nahi dezu lanean,
bainan saia gaitezen
gu bide onean.
Aitaren egin zazu
zuk nere gainean,
baina gelditu zaite
semearenean. (bis)

I.Elortza: Onartu beharko dot
zure esakera,
semea otu jata
baina keba-keba!
Kondoi makina bat be
badogu ganera,
zetan gabiz berbatan,
goazen ogera! (bis)

LESAKA (1999-03-21)

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala

Elizagoien

Txapeldunaren agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Amari eta nere buruai
nere eskeintza apala,
euskal presoei bertze zati bat,
nola dan gauza normala.
Berriz txapeldun, berriz Lesakan,
orain bortz urte bezala.
Antolakuntzai egin nahi diot
nere eskari zabala:
Lesakerrian egin dezaten
orain urtero finala. (bis)

BERGARA (1999-03-27)

Bertsolariak: S.Lizaso, Peñagarikano, Irazu, Egaña, Mendiluze eta J.Sarasua.

Gai-jartzailea: Joserra Garzia

Bergarako Udalak erramu zapatuan urtero eratzen duen jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, pilotalekuan.

J.Sarasua

Gaia: Orain arteko gai gehienak nahiko gai desgraziazkoak ziren eta oraindik ez ditugu aipatu Serbia, Kosovo eta horrelakoak. Lizarrako hostoa orbeltzen ari dela ematen du, gosea Afrika guztian, Hirugarren Mundua bizi ezinik... Serio, benetan, merezi al du mundu honetara hurrak ekartzea?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Denok pentsakor utzi ote gaitu
Joserraren esakerak?
Hemen gehienok bildurtzen gaitu
munduak duen tankerak.
Alde batetik laburrak dira
giza bizitzaren hegak,
guk bidetxo bat jarri diogu
ta ahal bada eman aukerak;
merezi duen edo eta ez
noizbait esango du berak. (bis)

Nik neuk bakarrik esan dezaket
zer eman duen nireak:
eduki ditut une lotuak
eduki ditut libreak.
Egia da bai gauza txar asko
daukala mundu gureak.
Nola kantatu merezi duen
jaioberrian bideak?
Galdera hiri egiten diat:
merezi al dik hireak? (bis)

Egaña-J.Sarasua-Mendiluze-Irazu-Peñagarikano-S-Lizaso

Gaia: Badakizu gizarte modu honek gauza on asko sortu dituela, baina gaixotasun berriak ere bai. Horietako gehienak buru aldekoak omen dira, estresak, depresioak eta horrelakoak. Gaixotasun horiek sendatzeko medizinarenean alor berri bat sortu da eta sekulako dirutzak ordaintzen dituzte aberatsek, depresioekin-eta daudenean; eta mediku horiek daukaten filosofia zera da: gauza guztien alde ona ikusi behar dela, desgraziarik handienean ere badagoela alde ona, eta horri begiratzen irakasten dute. Medikuntza

berri horretako medikurik ospetsuena Andoni Egaña doktorea dugu. Beste hauek, berriz, denak gaixo daude eta kontsultan hartuko ditu banan-banan. Desgraziak, depresioak, beren neurak kontatuko dizkiote eta ea Andonik erakusten dien desgrazia horien alde ona.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

J.Sarasua: Mediku jauna zure aurrean
nahi nuke negarrez hasi,
depresioak jota naukazu
burua hiltzear kasi.
Haur txiki baten aita izan naiz,
etxean dut bizi-bizi;
lagun txar batek esan berri dit
igoal ez dula merezi. (bis)

Egaña: Ohetik jeiki, ura berotu
edo esnea bestela;
ondoren berriz ahal dan goxoen
aldatu bere pardela.
Ni ohartzen naiz dabilkizula
lantegi zail ta itzela,
baina bentaja: orain etxean
bi ume bazeratela. (bis)

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Antton eta Maria

Mendiluze: Ezin det depresio
honetatik irten,
biderik ba ote den
ez dakit dakiten.
Saiatzen naiz besteei
hori ekiditen;
arazoak entzuten
beti det jakiten,
ta neri inork ez dit
kasurik egiten. (bis)

Egaña: Deprimituta zaude
Mendiluze, klaro,
bakartian txokoan
zabiltza zeharo;
zure problemak ezin
besteri igaro,
baina alderdi on bat
horretan badago:
kontseju txarrik behintzat

ez dezu izango! (bis)

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Irazu: Gozamena det ohe goxoa
 ta zoriona teilatu.
 Azkenaldian galdera zailak
 nere barruan pilatu,
 gaixotasunen soka luzea
 barruan korapilatu;
 negar eiteko desgrazi bat nahi
 eta ezin det bilatu! (bis)

Egaña: Iruditzen zait dakarkidala
 gaixotasun bat mardula,
 holako pizti arrarorikan
 ez det ikusi sekula.
 Negar eiteko desgrazirik ez,
 Irazu bejondeizula!
 Bentaja dezu zure etxean
 telebistaik ez dezula. (bis)

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Mando baten gainian I

Peñagarikano: Nik beti egiten det
 bijili ta barau,
 lehen txakur bat maite nuen
 "guau, guau, guau, guau, guau, guau";
 baina altan jarri da
 ta utzi egin nau.
 Nola konpon dezaket
 nere arazo hau?

Egaña: Bizitza zakurra ta
 txakurra penetan,
 halaxe azaldu zait
 konsulta honetan.
 Honek alderdi onik
 ez dauka benetan,
 hau sartzen da medizinan
 salbuespenetan.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko.

S.Lizaso: Lehen eztarritik operatua
 hamahiru bat urte edo

eta geroztik rebisioak
egiten ditut urtero.
Azken boladan farinjitisak
sortu dit hainbat endredo
eta daukadan kez karen kez kak
ia bihurtu nau ero:
bertsotan nola jarrai dezaket
ahotsa galdu ezker o? (bis)

Egaña: Hainbat urtetan nabarmena da
zure ahots desgastea,
garai bateko joritasuna
dezu gaurko eskastea;
ahotsa berriz ondu liteke,
zaudela lasai gaztea.
Gaixotasunak ez du ordea
alderdi dena triste a:
mundu hontako zorionsuna
orain zure emaztea. (bis)

ZUMAIA (1999-04-09)

Bertsolariak: Mendiluze, Peñagarikano, J.Sarasua, Maia, Egaña eta S.Lizaso.

Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea

Santelmo jaietan bertso eskolak urtero antolatzen duen jaialdia. Gauean izan zen, Aita Mari zinema jendez beterik zela.

Mendiluze-J.Sarasua-Egaña

Gaia: Inork esan ez dezan bertso sai oetako ideologia muturrekoegia dela, joan gaitezen Madrila. Zuek Madrileko irrati bateko tertulia bateko kideak zarete. Jarri zaitezte Euskal Herriari begira.

Neurria: 8ko nag.

Doinua Uso zuri bat inguratu zait

Mendiluze: Lehenago ere ustela zena
berriro ere ustela,
lehen bezelaxe guretzako da
Euskal Herriko pastela,
bainan entzun det alde hartatik
berriak badatoztela,
ba al dakizute nazionalistak
elkartu egin direla?

J.Sarasua: Aspergarria ere bazaigu
Euskal Herriko rolloa,
azkenaldian Gobernuak'e
egin du kriston falloa;
ETArentzat ta HBrentzat
izugarrizko txoltoa,
lehen Arzalluz apaiza gendun
ta orain monagilloa.

Egaña: Ez da egia, monagillotzan
ez da ibiliko bela;
bi terrorista ziran ETBn
beren etxean bezela,
looka erabat aldatu zuten
mozorro, kaiku, txapela,
ta ziur nago baten begiak
Arzalluzenak zirela.

Mendiluze: Egia da bai mozorroturik
jarri zela hortarako,
dirudienez bai baitituzte
aspaldian hainbat pakto,
Lizarra deitzen duten herria
aukeratu dute bapo,
ez dakit ziur nun dagon baina
ez dut ikasi beharko.

J.Sarasua: Danok begira egon ginen bai
ETAren entrebistara,
hainbat detalle ta xehetasun
ekarri zituzten hara.
Kaputxa ere orain txuria
jantzi dute badaezpada
eta txuriak nondikan lortu
Setienek emanda ez bada?

Egaña: Elizak ere jokatu du bai
ustegabeko papera
ta PNV erori zaigu
ezkerrekoen menpera.
Nazionalismo erotsu hauek
ostu digute kartera,
erremedio bakarra dago:
ejerzitoa atera.

Mendiluze: Soldadu batzuk hara bidali,
beharrezko balitz mila,
dirudienez bertan etsaia
dagoelako hurbila.
Ertzantza ere nolaz ez da joan

bideo berrian bila?
Beraiek ere parte al diren
laister argitu dadila!

J.Sarasua: Ejerzitoa, ejerzitoa,
horri nola egin uko?
Euskal Herria banatuko da
geu konturatu orduko.
Alperrik galtzen ari garela
lehentasunak lekuko,
Serbia aldean ez ote zaigu
misilikan sobratuko?

Egaña: Edozer gauza zilegi dela
nazionalisten ustea
ta bozgorailu asko dauzkate,
hori da gauza tristea.
Lortu genuen periodiku bat
sustrai-sustraitik haustea,
orain onena izango degu
ETB ere ixtea.

Mendiluze: Beraz moldatu behar genuke
kontu hau ahalik errezen,
Franco bizirik egongo balitz
aspaldi konponduko zen:
Argi utzi degu Euskal Herrian
ez direla ari zuzen;
bueno, kultura utzi dezagun
eta politika goazen.

J.Sarasua: Kultura dala ta politika,
zeinen hitz-joko txepela!
Denok dakigu Euskal Herrian
dana nahastuta dutela.
Plazetan ere zabaltzen dute
mezu pila bat itzela,
zeinek ez daki bertsolariak
ETAn nominan daudela?

Egaña: Haiek gerrara baldin badoaz
ipini gaitezen gotor,
beti bezala jokatu degu
erdi garbi, erdi sator.
Halare gure iritzi denak
azaldu ditugu jator;
orain barkatu hamaiketako
informatiboa dator.

DONOSTIA (1999-04-11)

Bertsolariak: J.Arzallus, A.Arzallus, A.Sarasua, Artetxe, Alkat, Xalbador II.a eta Mihura.

Gai-jartzailea: Beñat Soule

Maurice Sorhouet-i omenaldia, Bertsularien Lagunakek eratua. Lehenbizi bazkaria egin zuten eta ondotik saioa.

A.Arzallus-Artetxe

Gaia: Badakizue, Frantzian egin dela berrikitan jende kondaketa bat, eta horren arabera estimatua da, egun, munduan sei miliar biztanle badirela. Hemendik mende erdi baten buruko bederatzi miliar izanen dira. Zer gogoeta eginarazten dizue horrek?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

- A.Arzallus: Azkenaldian gatazka asko
heldu da Euskal Herrira
eta barnetik zail da jartzea
gatazka hoiei begira;
pertsona hoiek dira medio,
horrenbeste tira-bira,
ze mesedea batzuek orain
bertan joango balira! (bis)
- Artetxe: Honbertze ume egiten gu gaur,
badugu hainbat meritu,
baina halere ez dugu behar
ordurarte guk izitu.
Kondaketa horrek ondorioak
azkarki ekarren ditu,
bizilekua txikitu eta
pobretasuna haunditu. (bis)
- A.Arzallus: Orain arteko martxa berdinen
joango gara aurrera
eta kontua ez da aldatzen,
askorentzako galera.
Gero ere berdin gertatuko da,
aldaketa hoiek bai zera!
Batzuek eskas izanen dira
eta besteak sobera. (bis)
- Artetxe: Pobrezi dena deuseztatzeko
bil dezagun hainbat indar,
pobretasuna zabaldu baita

kontinenteetan zehar.
Hamaika umek gosearekin
egin ohi dute negar,
nahiz txiki naizen eta lekua
askorik ez dudan behar. (bis)

A.Arzallus: Orain artean ere izan da
hainbat inkesta ta froga
eta guzti hau konpondu asmoz
faltako zaigu denbora.
Nik ez dakit noiz izango diran
beatzi miliartik gora,
mundu batean denak kabitzen
nahikoa lan izango da! (bis)

Artetxe: Populazioz gainezka dago
gure Lur planeta zaharra
eta badauka hustuketaren
baten haundia beharra.
Pizturik dagon bitarte hortan
gure iguzki izarra,
leku gutxio hartu dezagun
eta atxiki indarra. (bis)

ABADIÑO (1999-04-30)

Bertsolariak: Mañukorta, Peñagarikano, Irazu, O.Enbeita eta Sorozabal

Gai-jartzailea: Unai Hormaetxea

Matienan, Sanprudentziotan, urtero eratzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan, ikastetxean. Berrehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

Mañukorta-Sorozabal

Gaia: Zu, Jokin, sabel-hiztun famatua zaitugu. Zure pertsonaien artean Mañukorta izenekoa da jendeari gehien gustatzen zaiona.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hasiko al naiz hasiko al naiz

Sorozabal: Gure bikote artista hori
helduko da urrutira,
hainbat entsaio egin ditugu
ispiluari begira,
nere eskua gerrian sartuz
biok hainbat tira-bira,
ezer ez dute ulertzen baina

denak parrez lehertzen dira.

Mañukorta: Nere nausia sortua gendun
Andoaineko lurrian,
moñeko ona dezu artista,
ez zaite egon bildurrian.
Gu apurtzeko bikoterikan
ez da gugandik hurrian,
ai, zer gauz onak eingo ditugun
jende guztian aurrian!

Sorozabal: Mundu hontako geldokeria
guk ezin genuen jasan,
“zirku berri bat ein behar diagu”
guk biok elkarri esan;
haseran ez zan arrakastarik
gure herritako plazan,
baina bekainak mugitze hori
inbentu latza izan zan.

Mañukorta: Nere nagusi mutur txorrotxa
argia eta apala,
eta *moñeko* bizkar makurra
guztiz hain degu zabala!
Mundu guztian eiten badegu
hor gu biok eginahala,
bihar edo etzi puskatuko da
gure zirko mundiala.

Sorozabal: Guk arrakasta daukagunetik
dirua ere blasta-blasta,
eskua sartzen diot gerritik
ta gehiago ezin aska;
segi ta segi numerogintzan
ta ez dute esaten “basta!”,
beti numero berdina dugu
baina beti arrakasta.

Mañukorta: Nagusia ta *moñeko* onak
kontuak ongi atera.,
bekain ta eztarri ongi abestu
eiten ditugu batera;
atzerarikan ez degu ikasi
ta jo dezagun aurrera,
martxa honetan laister gerade
gu biok Hollywoodera!

Sorozabal: Hollywoodera Mañu ta biok
iritsi gintezke aurki,
lehenago ere honek ikusi

zuen hango hainbat toki,
Ameriketan ibiltzea ere
noizbait baitzun erabaki,
hara juateko prestatua da,
ingelesez ere badaki.

Mañukorta: Honek esan dun hizkuntza hori
gaur ez da ikasten errez,
baina burutik oso argiak
gu jaio ginaden berez.
Aurrera zintzo jarrai ezkerro,
lanean gogoz orain lez,
ingles ez dakit ikasiko deun
baina eingo deu ingelesez.

Sorozabal: Beno, honezkero hasi beharko
numerotxoa bukatzen,
zaila delako hauen arreta
denbora luzez mantentzen.
Aizazu Mañu, lehen ere beti
hori egin dezu zuzen,
denak agurtu itzazu eta
kamerinora goazen.

Mañukorta: Nagusi jaun ta *moñeko* onak
egin degu gure lana,
ez dakit ongi emango gendun
eman behar gendun dana;
arrakasta bat guztizko ona
zuegandikan izana.
Bihotz erditik emate'izutet
danoi besarkada bana.

Sorozabal

Gaia: Alaitz eta Mainerren abesti bat jarri zioten: "Amets bat izan dut eztizkoa..."

Neurria: Berezia

Doinua: Uso zuria errazu

Batera eta bestera
gu korrika bizi gera
zaldi eroen antzera;
ta mundu hontan ametsak badu
berebiziko aukera,
errealitate gordin hontatik
ihes egiteko era. (bis)

Nor ez da hortan ariko,
ametsetan ibiliko
zorionez berekiko?
Gero ametsa betetzen bada,
nolako poza betiko
eta betetzen ez baldin bada,
ametsa zen eta kito! (bis)

BILBO (1999-05-08)

Bertsolariak: O.Enbeita, Ugartetxea, Gaztelurrutia eta Estiballes.

Gai-jartzailea: Leire Aurrekoetxea

Santutxuko bertso eskolak maiatzeko larunbatetan antolatzen dituen jaialdietako bat.
Eguerdiko hamabi eta erdietan, Bidebarrieta liburutegian. Berrogeiren bat entzule, han
eta hemen sakabanatuta.

Gaztelurrutia-O.Enbeita

Gaia: Zu, Oihane, Arkaitz Estiballesen agenda zara eta zu, Beñat, Arkaitz
Ugartetxearena. Zein dago okupatuago ondorengo egunetan?

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Gaztelurrutia: Sarritan eukitzen nau
nunbaiten galduta,
gero eskutan hartu
ta zenbat burruka!
Gure Arkaitz ez dabil
horren lanpetuta,
honek siesta ere
apuntatzen du-ta! (bis)

O.Enbeita: Ezin heldurik dabil
eta ez da jausten,
bere ibilbidea
ezin baitu eten,
baina toki askotara
ez zaigu joaten,
sarritan bainago ni
komisari baten. (bis)

Gaztelurrutia: Gure Arkaitzen denak
kontatu beharko,
hala agindu dute
gutxienez gaurko:
amodio kontutan

ikusten dut txarto,
neska izenik behintzat
ez du jartzen asko. (bis)

O.Enbeita: Miren, Gotzone, Ana,
Marta eta Lurdes,
honek agenda dauka
betea izenez;
nobia bat lortzea
ez daduka errez,
lekua apuntatzen du
baina ordua ez. (bis)

Gaztelurrutia: Arkaitz aspaldi baten
zitzaigun nagitu,
baina Estiballesek
ondo errenditu;
neska izen ugari,
ia ezin kabitut!
Lahengusina guztiak
apuntatzen ditu. (bis)

O.Enbeita: Lehengusinekin ezin
egin baita plana,
bi mutilek gaurkoan
falta dute dama;
ta areagotzeko
gure Arkaitzen drama,
telefono bakar bat:
Ugartetxeana. (bis)

ITSASONDO (1999-05-08)

Bertsolariak: Lujanbio, Irazu, Egaña, Sarasola, Lazkano eta I.Elortza

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Udalak kultur astearen barruan urtero eratzen duen jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan,
Errota pilotalekuan, hirurehun bat entzule.

Lujanbio-Sarasola

Gaia: Zu, Maialen, printzesa izango zara. Kaletik bueltatxo bat egin eta etxera etorri
zarenean, hor ikusi duzu Alaitz, zure neskamea, ispiluaren aurrean, zure trajerik
dotorena eta zure bitxiak jantzita.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Kantatzera nijoa

Lujanbio: Nere jantzi guzikin
ai, ume txepela,
uste du hartu dula
brilloa itzela;
nik jantzita hartzen det
jainkosa papela,
zuri gelditzen zaizu
disfrazaz bezela. (bis)

Sarasola: Gure printzesa honek
badauka mitoa,
baina jantzia gendun
nere neurrikoa;
mantalarekin nengon
erdipurdikoa,
eta honekin berriz
kategorikoa. (bis)

Lujanbio: Zure mantal zahar hori
zergatik aparta
zure itxurarako
egokina da-ta?
Nik jantzi hoiekin det
elegante planta,
honek printzesa nahi ta
dirudi infanta! (bis)

Sarasola: Infantak izango du
nere inbidia,
jantziai hartu diot
neretzat neurria;
printzesaren plantekin
hau da komeria,
koronatu beharrik
ere ez det ia! (bis)

Lujanbio: Jazkera dadukazu
eleganteena,
baina antzematen zaizu
aurpegian pena.
Hartu nahiko bazendu
printzesaren sena,
zuk zeuk sinistea da
inportanteena. (bis)

Sarasola: Orain ni naiz printzesa
ta ez egin iseka,
agintzen hasiko naiz
ta jarri arreta:

sukaldera joateko
hartu zazu beta,
babarrunan eltzea
sutan dago eta. (bis)

Lujanbio: Jantziai ari zera
ondo eragiten,
builan hitz egin dezu,
nik bezela kirten;
ta derrepentean ez
agindukin irten,
nik ez baitakit zure
paperik egiten! (bis)

Egaña-Irazu

Gaia: 2005. urtea da; Donostiako belodromo berrituan hogeit hamar mila bertso entzule.
Bukatzeaz dago Bertsolari Txapelketa Nagusia; une honetan ari da Andoni Egaña
Irazuri txapela jartzen.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adiskidea Andoaindikan

Egaña: Egun osoan bertso kantari
jardun zerate jo ta su;
azken unean txapel haundia
ondo merezia dezu;
nere lekuko zu izan zera,
bejondeizula Irazu!
Hainbat urtean eraman dedan
karga bat kendu didazu.

Irazu: Hara Andoni, ustekabean
bota dituzu epelak,
bi mila eta batgarrengoa
bota zenitun ustelak;
orduan ere irabazi nun,
zer estutua ubelak!
Ordun ainako grazirik ez du
nere bigarren txapelak.

Egaña: Bigarrengoa geza degula
arrazoi dezu laguna,
bi mila eta batgarrengoa
ederra eta kuttuna;
baina gaurkoak sortu behar dizu
halako alaitasuna,
berez balio doblekoa da

Egañak jarri dizuna.

Irazu: Bihotza taupan ari zait eta
gutxi falta zait hiltzeko,
oholtzan aurre muturrian jarri
eta bertan amiltzeko.
Zuk ere lehen txapela zendun,
orain atera galtzeko;
tori, zuretzat ematen dizut
belarriak tapatzeko.

Egaña: Txapelik gabe ondo nabil ni
zutikan eta etzanda,
garai batean nerea izan zen
ta orain da zure txanda.
Azken agurra denen aurrean
kantatu ezazu "danba",
ta Lazkanori eskein zaiozu
joan dan urtean hil zan-da.

Irazu: Egia da bai bere irudia
ez det eduki gordian,
baina badago beste gazte bat
merezimentu hobian,
Bizkai aldian gaizki ibilia,
ez arazorik gabian;
nere txapela utzi behar det
Elortzaren hilobian.

Lazkano-I.Elortza

Puntutan

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Mendian bizi naiz ta

I.Elortza: Imanol, entzun duzu,
akatu gaituzte,

Lazkano: bainan egia danik
ez zazute uste;

I.Elortza: nik oraindik badauzkat
beste horrenbeste,

Lazkano: hoiek berak bakarrik
luzitu nahi'tuzte.

Lazkano: Besteak akabatu
berak ongi bizi,

I.Elortza: gero joango zaizkigu
etxera ihesi;

Lazkano: gizon normalak ez du
hoinbeste malezi,
I.Elortza: nik ez dut ezer entzun,
ez ditut ikusi.

I.Elortza: Horren gazte hiltzerik
ez nuen espero,
Lazkano: hori ikusiko da
seguruna gero;
I.Elortza: kortozirkuiton batek
hilko nindun edo,
Lazkano: holako arriskuak
ditugu egunero.

Lazkano: Arriskutikan libre
inor ere ez dago,
I.Elortza: baina oraindik bizi
nahi nuke luzaro.
Lazkano: Berak hilko dirade
seguru lehenago,
I.Elortza: geuk eurak akatzea
ez al da hobeago?

I.Elortza: Hauek ere ez dute
bizitza betiko
Lazkano: eta ez ote dira
presaka hoiiek hilko?
I.Elortza: Alde bat ta bestera
baietz laister ito,
Lazkano: bizita ere piura
ona ez dute eukiko!

Lazkano: Batak tabakoa ta
besteak porrua,
I.Elortza: Irazuk horrelaxe
eiten du korrua;
Lazkano: erdi usteldurikan
daukate barrua,
I.Elortza: hauei ere helduko
zaie azken ordua.

I.Elortza: Eta gu geu ez gara
hiletara joango,
Lazkano: nik behintzat ez diotet
propinik emango!
I.Elortza: Familiai "sentitzen dut"
ez diot esango,
Lazkano: hoiien azkena ez da
txukuna izango.

Lazkano: Bota nahi genituzten
taldetik kanpora,
I.Elortza: baina gu laister igo
gara lepo gora;
Lazkano: luze biziko gera
geuretzat mejora,
I.Elortza: atzean konpontzea
hobe izango da.

I.Elortza: Joan ta kokoteko bat
emango diegu,
Lazkano: ordun entierrua
berehala degu;
I.Elortza: ez dute uste baina
indartsu gaude gu,
Lazkano: eta egingo degu
luzatzeko modu.

Lazkano: Hoiien entierrora
joan beharko da,
I.Elortza: malkoak joango zaizkit
begitatik gora;
Lazkano: aurki bukatuko da
orain duten moda,
I.Elortza: neuk sartuko nituzke
gustora zulora!

LEGORRETA (1999-05-13)

Bertsolariak: J.Agirre, Lujanbio, S.Lizaso, Egaña, Peñagarikano eta Mendiluze

Gai-jartzailea: Txato Agirre

Herriko jaietan urtero antolatzen duten saioa. Gauean izan zen, herriko zineman, ehun eta berrogeita hamarren bat entzule bertan zirela.

S.Lizaso-J.Agirre

Gaia: Zuek biok nekazariak zarete. Azken boladan entzuten ari gara badirela produktu transgenikoak, hau da, jenero artifizialak, bai barazkiak eta bai ganaduak berehalaxe hazten dituztenak; eta ez dakigu zer gertatzen den, baina egia da Sebastianek zure denbora erdian hazten dituela txekorrak.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Mando baten gainean I

S.Lizaso: Baserritar bakoitzak
bere pikardia,
horretarako argi

behar du begia;
nik garbi ikasia dut
nundik dan bidia,
emaitza bera baina
kostoia erdia.

J.Agirre: Bainan etenda zabilta
zu ere kordela,
gizatasun haundirik
ez dezu horrela;
zure xekor zahar hoiek
daukaten okela
uste dut zakurrak ere
utziko lukeela.

S.Lizaso: Txekorrak ematen ditut
haragitegira
eta jendea jartzen da
beraiei begira;
prezioa nola dan
lehengoan erdira,
anburgesa egin ta
denak saltzen dira.

J.Agirre: Negoziuan hasita
zaude oso trebe,
oandikan akordau gabe
hamaika badaude!
Zure txahalaren xerradak
jartzen badirade,
zartaia gelditzen da
oliorik gabe.

S.Lizaso: Badakizu olioak
ugari daudela,
hori eiten dunai jarri
merkean txartela.
Nik ere egin nahi det
bizkorran papela,
kartera azkar gizendu
txekorrak bezela.

J.Agirre: Kartera aldetikan
ez zabilta zu xehe,
zu baino pobreago
ibiltzen da Joxe;
zekorrak hazten dituzu
azkar eta aixe,
baina flojo samarrak
zeu zean bezelaxe.

ZALDIBIA (1999-05-16)

Bertsolariak: Gabilondo, Iturriaga, Irazu eta A.Agirre.

Gai-jartzailea: Saroi Jauregi

Jarriaren hogeigarren urteurrena zela-eta antolatutako bertso bazkaria, Gaztelu Elkartean. Hasieran librean jardun zuten lau bertsolariek eta ondoren gai-jartzailearen esanetara.

Irazu-A.Agirre

Gaia: Kartutxo bakar bat geratzen zaion eskupeta eskuan duen ehiztariaren aurrean zaudete biok. Zu, Jexux Mari, azeria zara eta, zu, Amaia, basurdea. Ehiztaria dudan dago tiroa nori bota eta zuek dudan zaudete nor salbatuko den.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Irazu: Ehiztari zahar honekin
 nolako borroka,
 pizti geran denori
 hor dabil mokoka!
 Biotatik aukeran
 hobe zuri bota,
 tiro bakarrarekin
 ez zaitu hilko-ta! (bis)

A.Agirre: Eskopetai begira
 egonak luzaro,
 heriotza dakusat
 geroz ta hurbilago.
 Aprobetxatzekotan
 hau hobeto dago,
 ni barru ta kanpotik
 lokaztuta nago. (bis)

Irazu: Zu ustelduta zaude
 ta ni gori-gori,
 nahiko oilasko janda
 bizkar gaina lori;
 zuretzat har itzazu
 tiro bat edo bi,
 azeriak nahio du
 zepoan erori. (bis)

A.Agirre: Azeria maisu da
 azerikerian,
 baina ez da libratuko
 oraingo aldian;

jo azeriai tiro
kopeta erdian,
jarri disekatuta
etxe atarian. (bis)

Irazu: Disekatzea degu
sekulako marka,
neretzat litzateke
aspertze galanta;
arriskurik ez degu,
besteik ez da falta,
ehiztari famatua
Iturriaga da-ta! (bis)

A.Agirre: Ehiztaria Unai da,
biontzat mesede,
apunteri kontuan
ez baitegu trebe;
geldi geratuko naiz
bere parez pare,
ez baikaitu hilko ezta
hogeirekin ere! (bis)

Irazu-Gabilondo

Gaia: Irazu oporretan safari batean joan da eta Nahikari aurkitu du beltz ezpain-handi baten inguruan, su ondoan dantzan.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Irazu: Safaritxo bat beti izan dut
nik bizitzako ametsa,
Kongo aldera joatea ez da
bate lantegi erreza.
Tribu batera hurbildu eta
hauxe da hauxe sorpresa,
ezpain haundien ondoan dago,
hauxe da hauxe tigresa!

Gabilondo: Kongo aldean ezagutu det
hainbat neska eta mutil,
dantzarako prest jarri ohi gera
ta gero sutondora bil;
euskal ohiturak mantentzen ditut
gogoz, trebe bezain abil,
sanjuanak nola ospatzen diren
erakutsi nahian nabil.

- Irazu: Euskal Herritik alde egin eta
nolako eskandalua!
Afrika beltzai kendua dio
ia gaueroko lua;
Zarautz aldeko euskal arima
sartu dun errezelua,
lepotik behera hor daramaki
baserritar painuelua.
- Gabilondo: Ni orain triste ez naiz aurkitzen
Euskal Herritik aparte,
zuriak hona heldu izana
hautzako ez da kalte;
ta esker ona azaldu nahian
badute hainbat borondate,
sua zer zen'e ez baitzekiten
ni iritsi nintzan arte.
- Irazu: Une batean uztartu zaizkit
baietza eta ezetza,
tribu hontara hurbildu eta
desio lizunen ertza
eta sutara ez dakit nola
eramango dedan pertza,
lehen'e zuritik aspertua naiz,
nahio det pantera beltza.
- Gabilondo: Zure ustetan safarirako
hemen badezu aukera,
baina hemengo jendearekin
ezin emaitzik atera.
Kontuz ibili, toki txarrera
etorri zera ehizera,
pertza barruan bukatu baietz
kontuz ibiltze'ez bazera!
- Irazu: Kanibalena hurbildu eta
nago seko bildurtuta,
zu bizirikan baldin bazaude
nago pixkat lasaituta.
Tribuko buru, buru jaunakin
hor zabilta ligatuta,
pintura pixkat kendu ezkerro
Altzo-Txikin antza dauka.
- Gabilondo: Ehizatu nahian omen zabilta
pantera beltza aparta
ta aholku bat emango dizut
helburu denak lagata:

zure fusila hartu ondoren
gure ondotik aparta,
animalirik haundinak hemen
bi hankekoak dira-ta.

Irazu

Gaia: Zein da zuretzat bizitza honi aurre egiteko filosofia egokia?

Neurria: Berezia

Doinua: Sorlekua utziz gero

Filosofi asko daude,
behar lukete behinepin,
horregatik bakarrera
sekula mugatu ezin;
eta nerea zer izan leike?,
azaldu beharko det fin:
ondokoaren guztia entzun ta
norberak nahi duna egin.

Bizitzeko hainbeste bai,
baina lanetik ihesi;
borondatez jokatu ta
derrigorra galerazi;
egun hutseko bizimoduak
ez du gehiegi merezi,
salerosia ahaztu eta
alkiler batean bizi.

Bertsolaritza izan leike
eguneroko arnasa,
erdia da konpromezu,
beste erdia jolasa;
bizitza ere horixe baita
nahaspila ta anabasa,
hiru-lau gezur txukun kontatu
ta ahalik ondona pasa.

BILBO (1999-05-22)

Bertsolariak: Iturriaga, I.Elortza, Ibarra eta A.Lopategi

Gai-jartzailea: Urtzi Urrutikoetxea

Santutxuko bertso eskolak maiatzeko larunbatetan antolatzen dituen jaialdietako bat.
Eguerdiko hamabi eta erdietan, Bidebarrieta liburutegian. Laurogei entzule.

Ibarra-Iturriaga

Gaia: Nafarroako Bardeetara jo behar dugu orain. Zu, Iratxe, artzain ibili zara beti Bardeetan, beti ezagutu duzu tiro poligonoa, ikusi izan duzu ardiak nola aztoratzen diren. Baina gaur, James Bond jaitsi da zure artaldearen erdira paratxuta batean.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Ibarra: Honaino erori da
 zerutik laguna,
 orain arte're ez zegon
 hau behintzat iluna.
 Nahiz ta niretzat ez den
 hain ezezaguna,
 bere itxuragatik
 ez da euskalduna. (bis)

Iturriaga: Paratxut eta guzti
 nator bapo-bapo,
 ardi artean ez nago
 ez ni horren txarto;
 Britainiako koroan
 gizon naizelako,
 James lagunentzako ta
 Bond ardientzako. (bis)

Ibarra: Hitz-joko hori gero
 iruditu zait lar,
 baina zure aurrean
 ez dut eingo negar.
 Neuk ere berdin-berdin
 edo erantzun behar:
 Ritxar naiz zuretzako
 ta hemen baserritxar. (bis)

Iturriaga: Nere Nokia piztuta
 mezutxo bat egin,
 e.mail bat bidali dut
 internetarekin.
 Lehengo informazioz
 banekien jakin,
 base bat zendutela
 Ritxar izenakin. (bis)

Ibarra: Baina ez du egingo
 oraindik eztanda,
 beraz heldua zaizu
 haren propaganda;

hara sartzeko beraz,
botako dut danba:
zeu be sartu zintezke
"be-be-be" esanda. (bis)

Iturriaga: Hori da kontraseña
edo ostantzean,
hanka sartzea gura
hona etortzean,
zuk zure "be-be-be-be"
hori aipatzean;
aspaldi egon nintzen
ni Sabin Etxean. (bis)

HERNANI (1999-06-04)

Bertsolariak: Mendiluze, Osa, Alustiza eta Legarreta.

Gai-jartzailea: Jon Iraola

Osinaga auzoko jaien barruan eraturako saioa. Gaueko hamaiketan, Arriatxu ikastolan.

Arano-Mendiluze

Gaia: Zuek biok etorkizun igarleak zarete. Nola ikusten dituzue Osinagako festak 2100. urtean?

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Antton eta Maria

Mendiluze: Festa onak igertzen
ditugu behinepin,
abuztun bukatzeko
maiatzean ekin;
jende pila bat bertan
umoriarekin,
musika eta dantza
denetik lor dedin
eta bertsolariak
linterna banakin. (bis)

Arano: Orduan'e izango da
hainbat jende jator,
hainbat baserritar ta
hainbat burugogor;
sagardotegietan
milaka egoskor,

baina zerbait aldatu
liteke ziur hor:
barran ez da egongo
zuetako inor. (bis)

Mendiluze: Gauzak hobetu nahian
aldaketen truke,
guk zer igertzen degun
galdetu digute,
ta zuengan pentsatu
nahi genuen guk'e;
barran inor ere ez,
hala degu uste,
kafia aterpean
serbituko dute. (bis)

Arano: Errepara zaitezte
bigarrenko kezkan,
errepara zaitezte
ixkinako neskan;
hemendik ehun urtera
zer izango ez dan!
Produktoa garesti
Osinako festan,
Keler txiki botila
hoge mila peztan. (bis)

Mendiluze: Hala gerta liteke,
egia degu bai,
bainan hala ta guzti
zaudetela lasai;
orduan ere denak
Keler txikian zai,
hoge mila peztatan
jarrita nolanahi,
orduan ere inork
ez baitu urik nahi. (bis)

Arano: Adelantu gehiegi
ez degu jasango,
beraz oso aurrera
ez gera juango;
erdi burusoilduta
hemengo ta hango,
bertsolari bakoitzak
sasoiko bi zango,
ta hankapean kablerik
ez dute izango. (bis)

Mendiluze: Nola aldatuko den
hemengo partea
galdetu digute ta
hobe esatea;
igertzeko genuen
guk borondatea
ta gustokoa bazen
guri eman pakea,
zuen lana delako
hala izatea. (bis)

Arano: Osina juango da
nahiko urrutira,
adelantuk medio
ditugula, tira;
baina komeniko da
dakigun neurrira,
neska brillantedunak,
begira-begira,
autopista berritik
etorriko dira. (bis)

ERRENTERIA (1999-06-12)

Bertsolariak: Egaña, S.Lizaso, Peñagarikano, Irazu eta J.Agirre

Gai-jartzailea: Antton Kazabon

Kilometroak 99ko ekitaldien barruan Landare Elkartek eratutako jaialdia. Kiroldegian izan zen, gaueko hamarretan. Bat-bateko bertsoen aurretik, Jon eta Oihane Enbeitak egun horretarako jarritako hiru bertso sorta kantatu zituzten, Aimar Arejita gitarrarekin lagun zutela.

J.Agirre-Irazu

Gaia: Agirre aitona eta Irazu biloba. Aitonak esaten du lehengo garaiak hobeak zirela; bilobak, berriz, oraingoak.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Uso zuri bat inguratu zait

J.Agirre: Nik gauza asko probatu ditut
urte asko daukadanez,
zuk orandikan gutxi dakizu
oso gaztea zeranez.
Oaingo aldean sano ginan lehen
nik pentsatutzen dedanez,
drogarik eta konturik gabe

talo ta esnea janez.

Irazu: Zaharrak beti egiten du bai
garai zaharren propaganda,
zure bizitza nerea ez bezain
zaila ta latza izan da;
taloa eta esnearena
hor bota didazu "danba",
hainbestekua ez zera egin
talo ta esnia janda!

J.Agirre: Gazte maitea, biok ez degu
guk pentsatuzten berdintsu,
lehenago ere izaten ziran
hamaika gizon indartsu!
Taloak ez duela indarririk
iruditutzen al zaizu?
Baina zuk lan asko egiteko
esku txuriak dauzkazu.

Irazu: Baina halare urte askorik
ez zaizu jun mingainera;
zure etxian sobra dauzkazu
jakusia ta bainera;
telebista´re sateliteaz,
zazpi kanalez gainera,
ta badaezpada bertsota ere
kotxian etorri zera.

J.Agirre: Adiskidea, oinez ere ez naiz
ibili gabe sekula,
orain korrika ibiltzeko ez det
benetan sasoi mardula;
ta esan didazu bainera ere
etxean sobrante dula,
esan litake zikin usaia
neri entzun didazula.

Irazu: Urteak beti aurrera doaz,
ez daude guri begira
eta zu Joxe iritsi zera
jubilatuen neurrira;
garai bateko gozamen danak
oroimenaren kabira,
zerorri zinan lehen hobia,
garaiak berdintsu dira.

J.Agirre: Alperrikan da garai berdina
dala esaten hastia,
urte batzutan ugaldtu da hemen

eskandalo ta nahastia
eta tristea izango degu
jubilatzea iristia,
baina hortara ez da juaten
norberak nahi dun guztia.

Irazu: Urteetatik ez degu beti
nahi degun guztia jaten,
baina ez dezu itxura txarrik
jendiantzako ematen;
eta gerora neroni ere,
hau ez da errez jasaten,
neure burua zure edadian
gauza berberak esaten.

Irazu

Gaia: Egin egunkaria itxi zuten, baina ikerkuntza taldekoek aurrera jarraitzen dute eta
Ardi Beltza aldizkaria bai omen dator. Zerbait ba al dakizu horretaz?

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Espainian behera

Aldizkari berria
kalean da aurki,
geroni izango gera
beraren barruti;
Gara ta Ardi Beltza
poliki-poliki,
Orejari tiroa
kulatatik beti,
berak bat itxi zuen
ta guk bi ireki. (bis)

Pepe Rei hor dator bai
bere lagunekin,
sarri erakutsi dun
konpromezuakin.
Noraino heldu leiken
nahiz ezin dan jakin,
hitza eman dezagun
Ardi Beltzarekin,
otso beltzak ez dezan
nahi duenik egin. (bis)

SUNBILLA (1999-06-20)

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, Egaña, Elizagoien, E.Arozena eta Silveira.

Gai-jartzailea: Patxi Larretxea

Neska gazteak izeneko taldeak eraturako jaialdia. Pilotalekuan izan zen, igande arratsaldeko seietan. Entzule asko.

Silveira-Elizagoien

Gaia: Badakizue Bittorrek eraikuntzan egiten duela lan eta hauek biak lagunak direnez eta Xabier lan bila zebilenez, Bittorri joan zaio lan eske. Baiezkoa eman dio horrek, eta lehenbiziko lan egunean hogeituroko teilatu gainera bidali du teilak kentzera. Bata teilatu gainean eta bestea beheran zaretela, zuen saioa.

Neurria: 10eko txi,

Doinua: Esnesaltzailearena

Silveira: Beteta daudelako
 INEMeko listak, (bis)
 Bittorregana eraman
 ninun nere bistak.
 Teilak jartzen gu izan
 gintezke artistak,
 baina lurretik oso
 urrun dauzkat hankak;
 igeltseroak gara
 ta ez trapezistak! (bis)

Elizagoien: Teilatura joan zera
 soka eta guzi, (bis)
 hasi lanean eta
 marmar hoiek utzi;
 hor dauden teila denak
 kendu bixi-bixi,
 igo aurretik hauxe
 behar zendun ikasi:
 lagunak gera bainan
 Bittor da nagusi. (bis)

Silveira: Ohean nengoela
 zorronek zorronek (bis)
 despertadoreak jo,
 niri ez inporta;
 bino honat etorri
 ta hemendik bota,
 hemendik beheti noa
 ni mekauendioska,
 Bittor teilatutikan

gaixorik dago-ta. (bis)

Elizagoien: Astelehen goiza da-ta
etorri da alai, (bis)
holako langilerik
ez daukagu nunahi!
Segi zazu lanean
teilatuan lasai,
azpitikan zuk Bittor
baitaukazu itzai,
tripa joango zaizu,
beldurra ere bai. (bis)

Silveira: Nagusia nik uste
dagoela ero, (bis)
lan hau bidaltzerikan
ez nuen espero;
ai, hau egin behar badut
goizero-goizero,
bera zai dagoela
dio bero-bero;
zuk helduko al diazu
erori ezkeror? (bis)

Elizagoien: Gazte xamarra dela
ez al da nabari? (bis)
Bildurrez beterikan
lanean da ari;
orain arte sortu du
arrangu ugari,
baina teilatutikan
ez dedin erori,
belarritakotikan
lotu gailurrari. (bis)

Silveira: Lan egin behar dugu
eguzki nahiz laino, (bis)
hemen jarri dut inun
ez hainbat enpeino;
baina teillatu honek
nau kopetaraino
ta hemendik ohatzera
banoie, ze koño,
langabe hobe nago
lan honetan bino! (bis)

ANDOAIN (1999-06-24)

Bertsolariak: J.Lopategi, Amuriza, Telleria, Peñagarikano, O.Enbeita eta E.Arozena.

Gai-jartzailea: Antton Kazabon

San Juan egunean urtero egiten den jaialdia. Aurreko urteetan ez bezala plazan egin zuten. Entzule asko, gehienak urtetsuak. Bertso batetik besterako tartean txalorik ez. Oso giro sargoria eta azkenerako euri tanta batzuk ere bai.

Amuriza-J.Lopategi

Gaia: Bi lagun zahar dira eta ezkontuta bizi dira biak. Xabierrek dio bikotearekin leiala izan behar dela eta bera hala dela. Jonek, berriz, ezetz, bera askoz ere liberalagoa dela eta ez duela leiala izan beharrik emaztea maite izateko, eta gainera ez dela leiala bere bizitzan.

Neurria: Berezia

Doinua: Uso zuria errazu

Amuriza: Zenbait kontu beharrezko
aldrebesak dira asko. (bis)
Honi txakurrak bezela hortik
joatea zaio berezko
eta ni berriz leial ta txintxo,
hargatikan nago fresko. (bis)

J.Lopategi: Bakoitza bere modura
etorri ginan mundura. (bis)
Batzuk bakarra izaten dute,
besteek askoren ardura,
lorerik lore bilatzen dut nik
sentitzen dudak freskura. (bis)

Amuriza: Badu honek hainbat jenio
ta lorerik lore dio; (bis)
ni beharbada antiguala naiz
baina pozik oraindio,
frutua galtzen duen loreak
ez du ezertako balio. (bis)

J.Lopategi: Maitasunaren erreka
eguneroko arreta; (bis)
hara ta hona azazkatzen naiz
toki denetan kolpeka,
etxeko laran egunero ta
beste denetan tarteka. (bis)

Amuriza: Etxetik besten plazara
sari mugitua zara. (bis)

Kanpoan inork ez zaitu maite,
ibili hona ta hara,
eta etxean ere ez aurki
nor bait enteratzen bada. (bis)

J.Lopategi: Emazte hau dut jakintsu,
enteratua daukazu. (bis)
Sobranteakin jokatzen dut nik
edonundikan jo ta su;
zu hortarako gauza ez bazara
biagra hartu ezazu. (bis)

Amuriza: Kontu horiek datozkit,
martxa hortan ez da stopik. (bis)
Azeri beltz honen ibilerak
oraintxe argitu zaizkit;
horrexegatik zure andreak
kinuak egiten dizkit. (bis)

J.Lopategi: Kinuan badezu poza
horrekin bakarrik goza. (bis)
Zuri gertatzen zaizuna esaten
ia ematen dit lotsa:
bizarra dezu luze-luzea
ta gainerakoa motza. (bis)

E.Arozena-O.Enbeita

Gaia:Horiek denak jakiteko, zorionez, hemen ditugu aurreko bien emazteak; Oihane da Amurizaren emaztea, senar leialaren emaztea eta Estitxu Lopategirena. Egia ote da esan duten guztia?

Neurria: Berezia

Doinua: Uso zuria errazu

O.Enbeita: Erdi senar erdi apaiz,
maite nauela dio maiz. (bis)
Nik harremanik perfektuena
aukeratu nuen garaiz:
txakurra daukat katean eta
ni libre ibili ohi naiz. (bis)

E.Arozena: Mintzatu zara arraro,
zure senarra gehiago; (bis)
nerea berriz liberala da
ta ni ere liberalago,
ni pozik nago maitatzen bainau
besteak baino gehiago. (bis)

- O.Enbeita: Guk maitasuna lehenbizi,
hori ez baitugu hautsi. (bis)
Sexua ere oparotasun
haundiz nahi dudanez bizi,
besteengandik ikasi ohi dut
ta berari irakatsi. (bis)
- E.Arozena: A zer nolako trantzea
bera ere enteratzea! (bis)
Autoestima ahularentzat
ze ederra den lortzea
lore gazteak ezagutu ta
berriz ere etortzea. (bis)
- O.Enbeita: Biok gaude erdi berdin,
erdi desberdinarekin; (bis)
Lopategi atzo etorri zen ta
nigaz ligatzeai ekin,
baina zu lasai egon zaitezke,
ez nion kasurik egin. (bis)
- E.Arozena: Kasu ez egina jakinik
lana erdia eginik. (bis)
Zure harremanen injustizia
handik ikusten ditut nik,
hemen bakoitzak merezi baitu
ematen duena soilik. (bis)
- O.Enbeita: Gardentasunez beteta,
baina iluna kopeta. (bis)
Esandakoan arrazoi asko
daukazu neska gordeta,
niretzat asko, gizon askori
asko ematen diet eta. (bis)
- E.Arozena: Hartu-emanen sartuta
norrena ote da kulpa? (bis)
Segi ezazu zure etxera
zure esanak hartuta,
bestela zure senarrak laister
zerbait susmatuko du-ta! (bis)

ZARAUZ (1999-06-27)

Bertsolariak: Gabilondo, Mantxi, Peñagarikano, Irazu, J.Agirre eta S.Lizaso

Gai-jartzailea: Imanol Epelde

Sanpelaiotan urterokoa den jaialdia eta urtero bezala plaza bete entzule. Gaueko hamar eta erdiak jota hasi zen.

S.Lizaso-J.Agirre

Puntuka

Neurria: 8ko txi

Doinua: Maritxu nora zoaz

S.Lizaso: Hirurogeita hamar urte
ta sasoi betean,

J.Agirre: zein engainatuko dezu
hori esatean?

S.Lizaso: Egia da eta ez da
zuretzat kaltean

J.Agirre: ia sinisten dizuten
halakoen batean.

J.Agirre: Aitona aitona da
hori ezin uka,

S.Lizaso: baina honek aitonaren
plantik ez daduka.

J.Agirre: Nere partez sasoi
orain honek dauka,

S.Lizaso: oraindik ondo egiten du
bertsotan burruka.

S.Lizaso: Beti umil papelean,
hau da axeria!

J.Agirre: Beste izenikan ez al det?
hau da mixeria!

S.Lizaso: Inork ez zaitu etzan ta
ezin exeria,

J.Agirre: nik daukat kontua ta
zuk kategoria.

J.Agirre: Xebastian beti degu
gizon sonatua;

S.Lizaso: baina zertarako da
oker famatua?

J.Agirre: Lanian behintzat zera
gutxi penatua,

S.Lizaso: Gutxi egin ta ondo bizi
nere sekretua.

S.Lizaso: Hori gezurra denik
nik ez det esaten,
J.Agirre: ia segitzen dezun
holaxen izaten.
S.Lizaso: Zuk'e ikasiko dezu
halakoren baten!
J.Agirre: Gurasoak sihaska onean
zu hazi zinuzten.

J.Agirre: Berez mardula da ta
etxe onekua
S.Lizaso: eta gosea gutxi
sufritutakua.
J.Agirre: Zu bezela ez da izan
aldamenekua;
S.Lizaso: txekorrikan bai al dezu
zuk nik ainakua?

S.Lizaso: Morroia ere ez da
ez langile fina,
J.Agirre: bere denboran hori
gauz gutxi egin.
S.Lizaso: Hutsa litzake zedorri
langile bazina!
J.Agirre: Nik pentsatzen dedala
Peña ere berdina.

J.Agirre: Beraz amorratua
ni ez naiz lanian,
S.Lizaso: lanaren igesi zabiltz
juan dan aspaldian;
J.Agirre: eta aitona gainera
erdi agonian,
S.Lizaso: Joxe ez al zera bizi
parrandan mendian?

S.Lizaso: Beti etxetik kanpora
atzakian bila,
J.Agirre: bera ere hortan da hau
gizon bat abila;
S.Lizaso: hargatikan sortzen degu
hainbat iskanbila;
J.Agirre: nik ez diot sinisten ta
hor konpon dadila.

J.Agirre: Etxetikan kanpora
dauka honek sona,

S.Lizaso: hori ez al da izaten
beti're gozona?
J.Agirre: Kanporako jatorra,
etxian ez ona
S.Lizaso: eta ni bezin golfoa
ez al da aitona?

S.Lizaso: Sekretuak kontatzen
zertarako ari?
J.Agirre: Alde batera arrazoi
eman dezu hori.
S.Lizaso: Azkena eman behar
hasten dan lanari,
J.Agirre: horrek ematen digu
nahikoa komeri.

LASARTE (1999-06-29)

Bertsolariak: Sorozabal, J.Agirre, J.Sarasua, And. Otamendi, Egaña eta Etxeberria.

Gai-jartzailea: Iñigo Aiestaran

Ttakun Elkarteak Sanpedrotan urtero eratzen duen jaialdia. Manuel Lekuona kultur etxean, gaueko hamar eta erdietan, lauhun eta berrogeita hamar entzule.

Etxeberria-J.Agirre

Gaia: Sarritan entzun izan dut, gizona hirurogeita hamar urtera iristen denean, ajea besterik ez duela izaten. Zuek itxura txarrik ez daukazue, baina minen bat, ezinen bat, oinazeren bat izango duzue. Nola bizi da gizona hirurogeita hamar urtera inguratzen denean?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ari naizela ari naizela

Etxeberria: Aitortzen degu ez geradela
zenbait gazte bezin abil,
jaunari eskerrak neroni ere
gaur ederki xamar nabil.
Honi begira egoten naiz ta
beti serio ta umil,
hirurogeita ta hamar urtekin
gazte bat bezela dabil.

J.Agirre: Bainan urteak ez dira izaten
alperrikan pasatuak,
garai bateko kontuak daude
orain bapo aldatuak.

Hemen aitonak ez gaude noski
figura ederra hartuak,
gogor ziranak bigundu eta
biun ziranak gogortuak.

Etxeberria: Beti izan naiz arretatsua
lagunarekin fijatzen
ta telebistan ere egon naiz
Agirre hau bijilatzen.
Pentsatu nuen “aitona hori
batere ez zaigu zahartzen”;
betaurrekorik jantzi gabe
ari zan sega pikatzen.

J.Agirre: Joxe Agirrek lehen ere segak
sari pikatuak ditu,
iritzira ere ondo jotzen det
nahi baldin baezu aditu.
Bainan brilua aldegin zait,
zimurturak ugaritu;
aizazu Patxi adarra jotzen
albotikan ez aritu.

Etxeberria: Hainbat urtetan lagun izanda
begira egon natzaio,
demonino hau beti sasoian,
nik ez dakit zer arraio!
Atzen urtetan bertsoan ondo
bainan gauza bat gerta'io,
nik ikusi det eta andrea
kejatutzen hasi zaio.

J.Agirre: Noizbaiten izan ote zera zu
andreangana juanik,
ez det esango bate kejarik
kontatuko ez duanik.
Egia da bai merezi baino
hobea hartu nuan nik,
bainan andrerik bai al da inor
gizona famatzen dunik?

Etxeberria: Hau han ez zegoen egun batian
biok hitz egin genduan,
ta esan ziran “nere senarra
Patxi zuk behar zenduan”;
nik esan nion “ez zera egongo
kejatutzeko moduan?”;
erantzun zidan “aspertu egin naiz
aitona horren onduan.”

J.Agirre: Ikasi zazu auzokoari
 pake-pakean uztera,
 zu joan al zinan zeure tipoa
 andreaki erakustera?
 Ta iluntze hartan neri andreak
 hola esan ziran ostera:
 “Diferentzia haundirik ez da
 aiton batetik bestera”.

J.Sarasua

Gaia: Beethovenek sinfonia bat bukatu gabe utzi omen zuen. Orain jakin berri dugu idazle ospetsu batek aspaldi argitaratutako liburua ere bukatu gabe utzi zuela, eta margolarien koadroekin ere askotan gertatu da hori. Bertsotan historia bat kontatuko al zenuke, bukaerarik gabe utzita?

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Historia bat kontatuko det
nahi badezue sinestu.
Hiru anai ziren etxean eta
hirurak haserre, estu;
aita hil baitzen ta herentziak
bidea ez zun erreztu,
haserre zeuden etxea zeinek
izan eta nor saihestu,
ta bitartean etxea zegon
kanpoko arrotzen esku.

Ederra zen bai nahiz txikia izan
etxe zaharraren itzala,
baina zaharrenak esaten zuen
beretzako behar zala.
Txikia ere iraultzailea
gogorra bezain petrala.
Hainbat urtetan konpondu ezinik
ibili ta berehala,
denborarekin ohartu ziren
elkarlana behar zala.

Hiru anaiak abitu ziren
elkarlanaren eredu,
“gure jabetza eskuratzeko
bildu egin behar degu”.
Diruagatik bildu zirela,
batzuk badira testigu
ta ez dakigu zer gertatu zan

sari edota kastigu ,
ta etxe zaharra berritu zuten
oraindikan ez dakigu

LESAKA (1999-07-10)

Bertsolariak: Silveira, Amuriza, Lopez, E.Arozena, Lujanbio eta S.Lizaso.

Gai-jartzailea: Estitxu Fernandez

Sanferminetan urterokoa den jaialdia. Kanpoan egiten diren saioetan sarritan gertatzen den bezala, jende asko gora eta behera eta ume asko jolasean. Kanturako nahiz entzuteko ez da egoerarik atseginena.

S.Lizaso-Lujanbio

Gaia: Maialen akupuntorengana joan zara zu, Xebastian, eta lehenbiziko saioan hor hasi zaizu orratzak sartzen eta sartzen, azkenean oihu bat egin duzun arte.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Nere senarrarekin

Lujanbio: Gizon honek daukana
nahia ta ezina,
beso banatan sartu
dizkat orratz bina;
garraxia egin du
ahal zunik haundina,
hain gizon handia ta
horren kaxkarina! (bis)

S.Lizaso: Akupunturarekin
behar zenbait tratu,
goxo-goxo hasi ta
gerora baldartu;
aurretik esatea
ez baitzait ohartu,
leku sensibleetan
orratzik ez sartu. (bis)

Lujanbio: Honek barrua dauka
aitzekiz beteta,
alperrikakoa da
bere berriketa.
Leku sensibleeri
nork jarri arreta,
zentimetroko azala
dadukazu eta?

S.Lizaso: Nahiz ta aurretik nitun
mila amets egin
akupunturarekin,
nahi hainbat etekin.
Baina ez daukat giro
mediku honekin,
zezena ematen dut
banderillarekin! (bis)

Lujanbio: Bere azal gainean
nahiko grasa batu,
loditu egin zaio
eta nork zulatu?
Orratzekin ezin det
konponbideik hartu,
mailu ta iltzeekin
behar det probatu. (bis)

S.Lizaso: Alperrikan ez zazu
hartu hainbat neke,
zuregana heldu naiz
sendagaien eske,
ta gainera fatura
ez dago hain merke;
lehengoak atera ta
zu hor konpon zaite! (bis)

BELAUNTZA (1999-07-11)

Bertsolariak: Mendiluze, Irazu, O.Enbeita eta Lujanbio

Gai-jartzailea: Karlos Aizpurua

Gazte festen barruan eratutako bertso jaialdia. Arratsaldeko seiak aldera hasi zen, herriko plaza entzulez bete samarrik zela.

Irazu-Mendiluze

Gaia: Aitor bere etxean dago gauez; ekaitza, tximista, trumoa, euria... eta bakar-bakarrrik dago etxean. Eta halako batean norbaitek atea jo du, hurbildu da atera, galdetu ere bai “nor da?”, eta Jexux Marik erantzun “heriotza naiz, zure bila nator”.

Neurria: Lauko handia

Doinua: Kontu barri bat suzeditu da

- Mendiluze: “Herioa naiz, zugana nator”,
diozu adiskidea,
ez dakit zuzen zabiltzan eta
konprobatu helbidea.
- Irazu: Nik helbidea eskuratu ta
propio etorri naiz hona,
ai Mendiluze, zuretzat dator
biaje merke ta ona
- Mendiluze: Biajatzea debalde bada
guztiok degu atsegin,
baina zergatik zatoz nigana
nik ez badizut hots egin.
- Irazu: Hots egin ez ta etorria naiz,
sentitzen dezun trantzea!
Pena haundirik ez izateko
onena gazte hiltzea.
- Mendiluze: Egia da bai gazte hil eta
pozik gintezke gertatu,
baina hoi ez da bizitzea ta
penak nahi ditut probatu.
- Irazu: Probatu laiste probatu leizke,
berta-bertatik ikusi,
begira nola etorri naizen
nere sega eta guzi.
- Mendiluze: Nigana sega hartuta zatoz
baina atetik igaro,
gainera aizu, konsejuxo bat:
hoi modaz pasia dago.
- Irazu: Hoi ez da behin’e modaz pasatzen,
argi ibili zaitia,
azken orduan onena dezu
errezatzera joatia.
- Mendiluze: Joatea hobe zuk zenduke bai
beste batena nolana, ni,
hartara norbait poztuko dezu,
besteak ez baina ni bai.
- Irazu: Nere eskutatik, barkatu baino,
ez da libratuko inor,
lehen beste bat eramana det
orain zure bila nator.

- Mendiluze: Alper-alperrik segiko dezu
kontu horrekin ate joka,
horrelakorik ez det desio
ez dizut irekiko ta.
- Irazu: Zuk ez iriki, sartu behar det
eta eraman nabarmen,
eta gainera izan behar du
ekaitza pasa baino lehen.
- Mendiluze: Etor zaite ba eta auzi hau
molda zagun nolabaite,
borondateaz eta diruaz
dena konpondu daiteke.
- Irazu: Bion artian ordun tratua
egin genezake garaiz,
zu juan zaite nere tokian,
ni hemen geldituko naiz.
- Mendiluze: Jungo nitzake zure tokian
halako momentu baten,
baina pena det, sotana beltzak
neri ez dit ondo ematen.
- Irazu: Belaxe ondo emango dizu,
hain zera gizon prestua!
Maiteminduta ez zaude baino
eman zaidazu eskua.
- Mendiluze: Eskua eman ez ta ostikoz
joko zaitut zuzenian,
ta ea hobeto moldatzen geran
hurrena zatozenian.

AIA (1999-07-24)

Bertsolariak: Lujanbio, S.Lizaso, Peñagarikano, Irazu eta Egaña

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Santiago auzoko jaietan urtero eratzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdiak jota hasi zen. Frontoia bete entzule; bertsotan egiteko giro ona.

Lujanbio-Egaña

Gaia: Zuk, Maialen, nahiz eta karrera bukatu, ezin duzu lanik aurkitu. Hori dela eta, itsasoan lanean hastea erabaki duzu, atunetan hain zuzen ere. Itsasontzian sartu eta arrantzale zahar honekin hizketaldi bat egitea erabaki duzu.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Lujanbio: Hondartzan beti egiten nuen
salto, bainatu ta korri,
itsas lanean bukatzerikan
ezin nezakeen igerri.
Urdin itxura hartzen nion nik
aspaldi itsaso horri;
azkenaldian iruditzen zait
erdi beltz ta erdi gorri. (bis)

Egaña: Zure barruan arrenkura bat
gazte, badezu gordea;
ikusten zaitut lan hontarako
animorikan gabea.
Itsasoa da beltz eta gorri,
ez beti-beti, ordea,
askotan baita marinelaren
esperantzaren berdea. (bis)

Lujanbio: Nere sendiai gaur bi hilabete
penaz esan nion “aio”,
barku batean han sartu nitzan
atun zahar batzun karraio.
Esperientzidun marinelari
galdezka hasi natzaio,
bizimodu bat ez ote dan hau
lanbide bat baino gehio. (bis)

Egaña: Nik erantzuna emango dizut
gazte, egon zaite lasai;
antxoa edo hegaluxetan
ibiltzen gera nolana;hi;
kresalak ia azala janda
ur gazitan sarritan blai,
bizitza hemen utzi ohi dugu
eta bizia ere bai. (bis)

Lujanbio: Sarri haserre egoten da-ta
beste askotan gozoa,
urrutietan bizimodua
ez da oso erosoia.
Nola aguanta liteke Andoni,

sentipenen eraso?
Itsas handian lehorra nahi ta
lehorrean itsasoa. (bis)

Egaña: Falta zaiguna miresten degu,
halaxe da-ta akabo!
Ez da ardoraik, antuxunetik
egin itzazu bi trago.
Orain apustu egingo nuke,
zalantzarikan ez dago:
kanpaina baten ikasi baietz
karreran baino gehiago! (bis)

VILLABONA (1999-07-30)

Bertsolariak: Amuriza, Egaña, Irazu, S.Lizaso eta A.Agirre

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Santio jaietan urterokoa den jaialdia. Gauean izan zen, kiroldegian. Entzule asko,
bostehunen bat edo, eta saio polita.

Irazu-Egaña

Gaia: Kasu honetan Egañak ez du inongo paperik, bertsolaria izango da eta, Irazu,
berriz, okina. Bertso saioak bukatu eta Egaña etxeratzerako goizeko lau eta erdiak-
bostak izaten dira. Ordu horretan, okina jaiki eta lanera abiatzen da. Ezkaratzean, zuen
elkarrizketa.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Egaña: Bertso kantari hiru-lau egun
pasatzen ditut asteko,
kotxea hartu ta iluntzero
bihurtzen naiz erbesteko.
Kaixo okina, lan hau errexa
denik ez dezu usteko;
egitekoak egin ditut nik,
garaia da zu hasteko. (bis)

Irazu: Antzekotasun haundikoa da
gure lanbide klasea,
ordutegitan ni bezelaxe
aldrebes ibili zea;
bertso saiuan jarduna dezu,
bazendun nahiko haizea;
orain nik ase beharko diet

zuk utzitako gosea. (bis)

Egaña: Munduan alde denak ditunik
nolatan ez degun inor,
hemen den-denok kejaren batzuk
badaduzkagu derrigor.
Ni festatikan etxe aldera
ta zu okindeira jator;
zu zapalduta ikusten zaitut,
ni legamituta nator. (bis)

Irazu: Alde ederra daukagu biok,
ez dago ez dudarikan,
diferentzia nabarmena da
zein izan litekeen bitan:
sarri askotan botako zendun
bezperako bertsorikan,
baina jendiak ez du gustoko
bezperako ogirikan. (bis)

Egaña: Beste zedozer esango dizut
zure hitzek eraginda,
desberdina da bi ofiziook
beregana daukaten ginda:
nik bi hitz berdin bota ezkeron
esaten dute “ezin da”
eta zu berriz luzitzen zera
denak berdinak eginda. (bis)

Irazu: Berdintasunan alde txarrikan
ez zazula erabili,
hainbat gozamen ematen diet
hainbeste neska-mutili;
zure dohaiak ere labean
bertsotan dira itzali,
zu integrala irtetzen zera
ta gatzik gabe itzuli. (bis)

Egaña: Disimuloan gatzik gabea
deitu alajangoikoa!
Nere ustetan gaur arte nintzan
bertsolari puntakoa.
Ordu txikiak aurrera doaz,
hitzetik bada nahikoa;
nere ohera ta hi lanera,
demonio zopakoa! (bis)

Irazu: Zure kasoan gauz bera dira
zopako eta bezpera,
tabernatikan taberna zuk'e

ogi gisan ibilera.
Orain daukazun etorkizuna
desberdina baino bera,
bero-beroa egongo da-ta
segi zaiozu labera. (bis)

S.Lizaso-Amuriza

Gaia: Zu, Xabier, modan dagoen Santiagoko bide hori egiten ari zera eta errepidean
zoazela, estu eta larri, izerdi patsetan, Sebastian kamineroarekin topo egin duzu; pala
kontra, itzalean jarrita, hor dago lasai kamineroa.

Neurria: Seiko txikia
Doinua: Bertsoak jarri dizkat

Amuriza: Errezena egin det:
bidean hasera;
kaminerua hemen
nolako plazerra!
Nundik doa bidea
inoiz joan bazera? (bis)

S.Lizaso: Santiagora zoaz zu
Bizkaitik irtenda,
bainan galdera horri
hartu behar prenda;
biderik ez da joaten,
norbera joaten da. (bis)

Amuriza: Bizkaiatik hasi ta
lehertuta natorrek,
ez baitute atsedetik
hain bide samurrek.
Zenbat sasi ebaki dik
atxur kirten horrek? (bis)

S.Lizaso: Sasiak ezin ebaki
ta ezta're huntzak,
ez du ezer egiten
inoiz kerten hutsak,
bainan kenduko dizkizut
bizkarreko hautsak. (bis)

Amuriza: Biaje mugitu bat
nahi nuen munduan,
kamineru bat horra
atxurren onduan,
Santiagoren zaldi

hilaren moduan. (bis)

S.Lizaso: Ni bizirikan nago-ta
ia hilean zu;
fedean horrenbeste
indar badaukazu,
laguntza Santiagori
eskatu zaiozu. (bis)

Amuriza: Harek beharko du egin
neronen defentsa;
dena sasi ta larra,
hau bide marketsa!
Orain konprenitzen det
bide hauen traketsa. (bis)

S.Lizaso: Bizkaitik Santiagora
zuaz zu erromes,
zandalia ta guzti,
gainera aldrebes;
apaiza ez zera izango
kasualidadez? (bis)

Amuriza: Irakurri bainuen
ebanjelioa,
apaiza naiz bidean
izerdi jarioa
eta zu karakolen
solidarioa. (bis)

S.Lizaso: Gu ez gerade jarriko
gaur konponbidean,
tinko nola gabiltzan
nor bere idean;
ni bazkaltzera nijoa
zuk segi bidean. (bis)

ZIZURKIL (1999-08-15)

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, A.Agirre, Irazu, Mendiluze eta Lujanbio

Gai-jartzailea: Antton Kazabon

Jai batzordeak antolatutako jaialdia. Gaueko hamaiketan, Zizurkilgo plazan; berrehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

Egaña-A. Agirre

Gaia: Urte dexente daramazue elkarrekin, baina Egaña senarrak, gaur, emaztea desberdin ikusi du: kontent, alai, itxura aldatuta... Senarrak, ordea, bere erruz dela uste du eta galdezka hastea pentsatu du.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre Madalen, andre Madalen

Egaña: Inoiz ez zinan orain bezela
irriparrezka aritu,
inoiz ez zinan neri begira
ontzaren gisan gelditu,
inoiz ez zendun hanketan behintzat
azkazalikan gorritu;
seguru nago kanbio honek
izen-abizenak ditu.

A. Agirre: Zerbait bitxia bada neregan,
hori nolatan izkuta?
Baina amaieran jarri behar det
gure arteko burruka;
izen-abizen batzuk badaude,
hori ezin dizut uka,
izena ez ezik izana ere
zuk baino hobe dauka.

Egaña: Bion artean gozatu arren
hainbat farra eta trago,
nere emazte, onartu zazu,
hori izan zen lehenago;
orain norbaitek zuretzat badu
hainbat maila eta grado,
seguru nago hura ez dala
ni bezain ona izango.

A. Agirre: Gure artean ustekabea
sortu da mila endredo,
zurekin beti hotz nengoen ta
azkenaldin nabil bero;
nere aitortza egiterikan
senar, ez zazu espero,
berriz zugana etorriko naiz
harek fallatu ezker.

Egaña: Lehendikan ere Egañak bazun
bere buruan hainbat sen,
orain sospetxak hartua nengon
ta nenbilen oso zuzen;

dibortzio ta holakoetan
ez naiz hasiko pentsatzen
saiatuko naiz bestean suan
txingarrak aprobetxatzen.

A.Agirre: Beraz bigarren plater gisara
egongo zera nere zai,
nere itxura dala-ta hartu
diozu zerbaiti usai.
Arrazoi dezu, lagunak gera
ta zertan bihurtu etsai?
Zuk ere berdin eingo zenuke
baina inork ez zaitu nahi.

Egaña: Beraz zu ere aurkitzen zaitut
aurreratzeko planean,
bigarren plater izanda ere
segi nahi nuke lanean.
Nik amodio asko ez daukat,
aitortzen det azkenean,
baina bildurra ematen dezu
hola jartzen zeranean.

Lujanbio-Egaña

Gaia: Maialenek egundoko parranda bota du. Goizeko seietan, hala ere, kotxean sartzeko intentziotan dabil. Baina ezin du atea ireki. Azkenean kotxearekin hasi da hizketan, Andoni kotxearekin, hain zuzen.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Lujanbio: Gaur egin det parranda
berebizikua,
halare gidatzeko
det indar nahikua;
zabal zazu atia
demonio kaikua!
Zu atzo ez al zinan
automatikua? (bis)

Egaña: Albotikan esan dit
"atea ireki";
gaurkoan nagusiak
edan du galanki,
balantzaka hasita
lurrean da aurki,
hori ez zaizu pasako
automatikoki! (bis)

Lujanbio: Hau da kotxe harroa,
ni eroi, bai zera!
Nahiz ta ibili naizen
aurrekoz atzera;
zabal zazu atia
nere esku ertzera
edo kristalik gabe
geratuko zera! (bis)

Egaña: Lehengoan mozkortu zan
ta gaur ere berdin,
bost kolpe bota dizkit,
bostetan huts egin.
Gaurko gau giro hori
ez al da atsegin?
Aizu, erruedetan
pixarik ez egin. (bis)

Lujanbio: Erantzun egiten dit,
gainera parrezka;
ez da ez txarra izan
gaur gaueko festa,
halare atearena
ez da azken kezka,
etxerako bidea
badakizu, ezta? (bis)

Egaña: Gaurkoz hobe zenuke
etxera joan gabe,
atea zabalduko
dizut parez pare;
mozkortxio pasatu
umil eta bare,
neronek etzango det
asientoa're! (bis)

Lujanbio: Beraz bota nahi dezu
siloia atzera,
nahiz ta ni ez iritsi
hori eskatzera;
norbait baldin badago
geldi bide ertzera,
norbaitek eramango
gaitu gu etxera. (bis)

Egaña: Neska gazte honekin
a ze pelikula!
Dakarkien legatza
ezin disimula;
hain mozkorrik ez nuen
ikusi sekula,
ta gero niri jarri
BB matrikula! (bis)

ARANTZA (1999-08-16)

Bertsolariak: Elizagoien, S.Lizaso, B.Lizaso eta Fernandez.

Gai-jartzailea: Patxi Larretxea

Herri bestetan ohikoa den jaialdia. Ilunabarreko zortziak jota hasi zen, plaza entzulez beterik zela.

Elizagoien

Gaia: Arantzako herriko etxean dagoen Espainiako bandera zara. Orain dela urte batzuk, txukun-txukun plantxatu eta lehenbiziko ateratzen zintuzten balkoira jaietan. Azken urte hauetan ez zaituzte atera. Aurten ere, bertzeak balkoira zihoazela, zokoan, hautsez beteta, hantxe geratu zara.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Garai batean maite ninduten,
ezin ukatu inola,
bainan gaur egun neregatikan
bate ez zaie axola.
Xokoan nago hautsez beterik,
sutan dadukat odola;
nun dago Guardia Zibila eta
nun bandera espainola?
Ia ezin dut sinitsi ere
lehengo herrian nagola! (bis)

Kaja batean hautsez beteta
ez dut pasatuko hotzik,
bainan balkoira ezin naiz irten
ta ez naiz sentitzen pozik.
Zuen herrian egonagatik
nik ez dut sentitzen lotsik;
barkatu bainan banderan aurka

ez zazute egin hitzik,
banderak ez du bate errurik
ekarri nautenek baizik. (bis)

Zulo batean hautsez beteta
nago ni umil-umila,
hautsaz gainera nere gainean
baitadukat pipi pila.
Nunbait aurka dut zuen herria
eta hemengo kuadrila;
agur Arantza maitegarria,
orain banoa Madrila,
Ynestrillasei deituko diot
etor dadin nere bila. (bis)

B.Lizaso-S.Lizaso

Gaia: Demagun larunbat gaua dela, goizeko ordu txikiak, eta Lizasotarren etxean telefonoak hots egin du. Harritzekoa bada ere, Xebastianek hartu du; Beñat da beste aldean.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

B.Lizaso: Orain artean juergak botatzen
nahiz izan naizen abila,
oraingo hontan, aita, egin det
majina bat marabilla.
Nafarroara joan ondoren,
han hamaika iskanbila,
Arantzan nago erdi galduta
ta etorri zaite bila. (bis)

S.Lizaso: Goizeko hirurak eta semea
burutik sano al dago?
Lehenen tinbreak sustoa eman dit
ta pentsatu dut “akabo!”;
nik zure bila joateko ez dut
behar dan hainbeste gogo,
nola etorri ikasi behar du
nola joan baino lehenago. (bis)

B.Lizaso: Etorri zaite aitatxo bila,
eskatzen dizut mesedez,
kendu kartera Bittorri eta
mozkorturik nagoenez.
Aholkutxo bat eman didazu
ta erantzungo dizut errez:

nola etorri ikasia det
baina nola joan oaindik ez. (bis)

S.Lizaso: Gauza gehiegi ez dakizula
lehendik nengon antzemandu,
errezena da gazte garaian
batek egiten parranda.
Goitikan behera oinez abitu,
ez egin hainbat demanda
eta freskatu San Juango errekan
nahiko ur fresko edanda. (bis)

B.Lizaso: Gogoaz kontra uretik hasi,
ez nuan besterik falta!
Ordu hauetan bestela badut
majina bat zalaparta.
Telefonotik ez zazu eman
mesedez hainbeste lata
ta amari ez esan deus ere
larritu egingo da-ta. (bis)

S.Lizaso Barka zaidazu semea zure
ametsa ezin bete,
amari zerbait kontatzeko nik
hartu behar dut tartea;
neri're asko kostatzen baitzait
Arantzatikan joatea,
hobe izango da zure bila han
amai joateko esatea. (bis)

B.Lizaso: Ama etortze hori aitatzeko
ez da izango kaltera,
goizeko lautan herriko plazan
hantxe elkartzeko gera.
Baina zerorrek ere badezu
gaur etortzeko aukera,
Lesakara joan zinaden eta
honuntz etorriko zera! (bis)

S.Lizaso: Mesede bat lehen egin nizun ta
bigarrena nahi kolpian,
zure aitaren pazientzia
orain ez dago toplan;
ta ejemploak erakusten du
beti era egokian,
ohera noa ta nahi badezu
zatoz auto estopian. (bis)

S.Lizaso

Gaia: Orain dela hamabost-hogei urte hire aitaren gerizpean, hire aitaren eskutik etorri hintzen Arantzara bertsotara. Gaur lehen aldiz hire semea ekarri duk. Ze burutapen etorri zaizkik bidean heldu hintzela? Zer gomendio eman dizkiok semeari?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Egia da bai denborarekin
gauzak aldatzen direla;
nik esan diot “zuzen bete zak
ahal baduk heure papela”.
Lehen saioetan esaten zuten
Lizason seme nintzela,
urte batzuek gerogo nator
Lizason aita bezela;
detalle horrek zera esan nahi du:
zahartzen ari naizela. (bis)

Bainan hala ere nere ustetan
badadukat zer esanik,
nere barruan nola ez dudan
etsipenarentzat planik.
Erreleboan ez da oinarritzen
bertsolari baten lanik,
urte mordo bat bertso kantari
daramagu aita ta nik,
honen haserak ez du esan nahi
nere amaiera danik. (bis)

GOIZUETA (1999-08-17)

Bertsolariak: Silveira, E.Arozena, Arano, S.Lizaso, J.Sarasua eta Egaña

Gai-jartzailea: Manolo Arozena

Jai batzordeak eratutako jaialdia. Eguerdiko hamabi eta erdietan, herriko plazan. Saio polita eta bizia, arreta handiz jarraitu zutena entzuleek.

E.Arozena-S.Lizaso

Gaia: Ttiki-ttikitatik elkarrekin hazi zareten neska-mutilak zarete; auzoko lagun bezala ezagutu duzue beti elkar. Halako batean maitemindu eta ezkondu egin behar duzuela erabaki duzue, baina paperak egiten hasi zaretenean, anai-arrebak omen zaretela eta ez duzue ezkontzerik.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

- S.Lizaso: Umetatikan hartuemana
oinarri edo zutabe,
ta ezkontzeko planak eginda
bada hainbat nobedade.
Ezin ezkondu, dirudienez
anai-arrebak gerade,
elkar maitatzen segi dezagun
papelikan ere gabe.
- E.Arozena: Paperik gabe elkar bizitzen,
hortan bota duzu nahiko;
orain artean uzten genuen
egun haundi hau biharko,
baina ezkontzak zeozer dakar
ta hori aitortu beharko,
gauzak argitu beharko dira
umeak izaterako.
- S.Lizaso: Izaten zaila izango degu,
horretan dago kakoa,
izan ta haurra ez baita izango
nahi degun bezelakoa.
Azken batean argitu behar
senidetasun jokoa:
odola degu berdina eta
bihotza ere antzekoa.
- E.Arozena: Bihotza dugu antzekoa ta
odola bataz besteko,
nere ustetan gauza horiek
pentsatu behar hobeto.
Gero berandu izan daiteke
guk eginaz damutzeko,
morbo gehiegi daukanez honek
gauza ongi ateratzeko.
- S.Lizaso: Ez da erreza elkarrizketan
gai honi buruz jarduten,
azken boladan ohituak gaude
gauza berriak entzuten.
Galdera bat dut nere buruan,
inork ez dit erantzuten,
orain artean gordea zena
zergatik esan diguten.
- E.Arozena: Orain artean gordea zegon
ta orain atera da saltsa,

gaurtik aurrera ez dugu eginen
lehen bezain umorez dantza.
Gauzak ilunak ikusi arren
nik badaukat esperantza,
igual paperen akatsa dugu
ta ez bihotzen akatsa.

Silveira-Egaña

Gaia: Xabierrek dio ez dela amaren umerik Euskal Herria aldatuko duenik. Andonik,
berriz, gauzak aldatzen ari direla dio.

Neurria 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Silveira: Jerry Adams bat behar omen zen,
Otegi irten zen bela
ta berak ere ez du gauzatu
gure aldaketa epela.
Horretaz diot aman semerik
kapaza ez dagoela
eta pa kolmo, ze pena ni're
aitan semea naizela! (bis)

Egaña: Esperantzaren kandela hori
ez zazu lurrera tira,
personak beti jarri behar du
begiratzuz urrutira.
Gauzak dexente alda litezke
hurrengo urteei begira,
aman semerik ez bada ere
bilobak sortuko dira. (bis)

Silveira: Zergatik gara horrenitsuak
gu etorkizunarekin?
Nahi dugu baina sufrimenduak
ezin gugandik aldegin.
Egoera txarra pasatu zenik
ez dut sinisten nerekin,
gaur hitzek bala forma daukate
eta hiltzen dute berdin. (bis)

Egaña: EGIN itxi zen ta erantzunez
kalean hor dabil GARA,
gainera Garzon jauna ari da
boteaz zaborretara;
beste ejenplu bakar batekin
ahaleginduko naiz hara:
Mahai Nazionala kalean dago

eta hori pausu bat da. (bis)

Silveira Garzon aipatu duzu ta ez du
merezi hortan hasteak,
gazteriari egin baitizkio
sekulako desastreak.
Gure enborretik nola demontre
sortuko dira besteak,
egun osoan diskotekatan
baldin badaude gazteak? (bis)

Egaña: Gazte guztiak ez dabiltz berdin,
ez zaite izan astoa;
gazteriaren zati haundi bat
badegu jator askoa.
Zure dohaitzat nolatan hartu
etsipen ta disgustoa?
Esperantza da herri txikien
su biziaren hauspoa,
bizi-suaren hauspoa.

Silveira: Bizi-suaren hauspoa zein den
agian ni naiz testigu,
egonagatik suaren eta
bizitzearen gatigu.
Orain ordea gure indarrak
guri mina egin digu,
sua pizten laister ikasi genun,
guain itzaltzen ez dakigu. (bis)

Egaña: Baina aldaketak etor litezke
urte gutxitan barrena,
azken urteko aldaketa hau
ez ote zen nabarmena?
Lizarra ahaztuz dohai dituzu
ezina ta etsipena,
ta ikuspegi horixe degu
Aznarrek nahiko lukeena. (bis)

Silveira: Barkatu, igual luze xamarki
kantatzen dizuegu guk,
baina Andoni mintzatu orduko
erran behar aunitz ditut:
Aznarrek hori nik pentsatzea
nahi duela diozu zuk,
Aznarrek hori nahi baldin badu
zure postura hartzen dut. (bis)

Egaña: Nahiz hasieran eztabaidatan
katigatu geran bero,

azkenerako konpondu degu
hainbat xextra ta enredo.
Hiruna bertso, ondoren launa
eta bosna bertso gero,
ai, euskaldunak orain gu biok
aina saiatu ezkerro! (bis)

E.Arozena

Gaia: “Erakutsiko dugu bertsoaritzak ez duela barrabilik”erran zenuen duela lau-bost urte. Zer uste duzu orain?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

Bertso honekin oroitzapenak
eragiten dit zirrara,
garai horretan erantzuna zen
irrifar edo algara.
Urteak dira irten ginela
emakumeok plazara
lehen anekdota hutsa ginenak
orain bertsolari gara (bis)

Oinarri txarrak baldin baditu
aldatzen dira ohiturak;
bidetxiorrik ez izan arren
bidea egin du urak.
Haseran garbi izan genitun
eredu eta helmugak,
arriskutsuen bihurtu dira
ikusten ez diren mugak. (bis)

BILBO (1999-08-19)

Bertsolariak: A.Lopategi, Peñagarikano, O.Enbeita eta Irazu.

Gai-jartzailea: Joserra Bilbao

Bilboko Aste Nagusian Santutxuko bertso eskolak eratu ohi dituen saioetako bat.
Eguerdiko ordu batean, Santiago plazan. Entzule asko.

A.Lopategi-O.Enbeita

Gaia: Zu, Aritz, euskalduna zara, urpekaria eta Keniara joan zara. Hango aireportuan mariohurekin harrapatu zaitu poliziak. Baldintzapeko askatasunean zaude, epaiketaren zain, urte askotako zigorra jasotzeko arriskuan. Ama Oihane etorri zaizu bisitan.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

A.Lopategi: Ama, hementxe ibili naiz ni
Kenia honetan zehar,
baina azkenean detenituta
nola ez dot egingo dear,
orain hementxe biok baigagoz
negar, negar eta negar?
Behin porrotxo bat erreko eta
harrapatu egin behar! (bis)

O.Enbeita: Ni engainatzen hastea duzu
orain zure helburua,
baina lehena ez zan izango,
hau da nire aburua.
Kenia aldeko juzgauetatik
salbatu zure burua,
gero etxean zai baitaukazu
sei urteko kastigua. (bis)

A.Lopategi: Kastiguren bat mereziko dot
ta inori ezin uka,
halan ta guzti pozik ez nago
hemen kartzelan lotuta
eta etxera joan gura neuke
ta hau hainbat arinen buka,
besteik ez bada eroan nagizu
zeure maletan sartuta! (bis)

O.Enbeita: Gainera oraindik txiste kontuan,
hori da hori patxada!
Zure haserako dibertsioa
gero azkenik ikara.
Maleta baten eroango zaitut,
zuk esan duzun erara
eta etxera heltzerakoan
bertan geldituko zara. (bis)

A.Lopategi: Etxean ere preso eukitzea,
gure amaren jarduna,
zuk badakizu ni ez naizela
holako gauzen laguna;
zuri entzuten jarri naiz eta
ez baitzaitut ezaguna,
ez egizu hain txarto tratatu
zure semetxo kuttuna. (bis)

O.Enbeita: Niretzat tratu txarra izan da
sortu diguzun ezbaia,
Kenian baina hemendik ere
jada badugu etsaia;
aitak ikusten zaituenean
ez da jarriko alaia,
izarretara egingo duzu
zure hurrengo bidaia! (bis)

BILBO (1999-08-20)

Bertsolariak: J.Enbeita, Lazkano, J.Agirre eta M.Arozena

Gai-jartzailea: Mikel

Bilboko Aste Nagusian Santutxuko bertso eskolak eratu ohi dituen saioetako bat.
Eguerdiko ordu batean, Santiago plazan.

Lazkano

Gaia: Garai batean lige kontuak ez ziren gaurko modukoak. Lehen neska laguntza edo horrelako zerbait egiten zenuten. Erromeria amaitu eta neska lagundu ohi zen bat, bi, hiru edo lau orduz, mendiz mendi, biderik bide, zelairik zelai haren baserriraino. Seguru gaude zuk ere holako neska laguntzak egingo zenituela. Kontatu pasadizorik bitxiena eta neska laguntzarik emankorrena.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hasiko al naiz hasiko al naiz

Disimuluan esana du gaur
ni zenbatsu zahartu naizen,
gertaera hoiek hain aspaldiko
kontuk baitira hain zuzen.
Nahiz ta neskata joandakoan
sentitutzen ginan zezen,
zoritxarrean guk alpargatak
bakarrik busti ginuzen.

Sasoia eta indarra gendun
guk ezin errendituan,
ilusio ta ametsa ere
sortutzen zan segituan.
Arrats batean batengana juan
nintzan ia-ia ituan,
broman baietza eskatu nion
ta harek lotu nituan.

Garai haretan izandu arren
guk ere txoro haizea,

ondorengoan probetxua ez zan
izaten beti luzea.
Gazte denboran eman genuen
halako bizi klasea,
bainan ez daukat gaur damurikan
larre motxetik pasea.

IBARRA (1999-08-23)

Bertsolariak: S.Lizaso, Lazkano, Amuriza, Irazu, J.Agirre eta Lujanbio

Gai-jartzailea: Joxe Mari Aranalde

Sanbartolometan eraturako jaialdia. Gaueko hamaikak laurden gutxitan, Emeterio Arrese plazan. Entzule asko.

Lujanbio-J.Agirre

Gaia: Joxeri komeria gertatu zaio, berak esanda jakin dugunez: hona etortzerako goizean janzten hasi da eta hor erori zaio galtzetako botoia; eta galtzak eta botoia eskuan dituela joan da bere andrearengana, eta "hauxe josi beharko didazu" esan dio. Andreak telebistatik begirik kendu gabe "jostorratza eta haria hortxe dauzkazu" erantzun dio.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Salbatoreko ermitan

J.Agirre: Beste modutan konpondutzeko
guk bagenduen ustea,
aitortu gendun maite gendula
itxuraz bata bestea;
ustegabetan atera zait nei
hau emazte desastrea,
pentsatu zazu josten hasteko
ni ez naizela sastrea.

Lujanbio: Neroni ere ez naiz jostuna
gauzak garbi kontatuta,
botoia hautsi duela eta
orain andrearen kulpa;
beti emaztean babes goxoan
ezingo dezu ezkuta,
konpontzen ere jakin beharko´zu
puskatzen badakizu-ta!

J.Agirre: Ez nuan uste gertatutzerik
sekulan holako jira,
umiltasuna baldin balu ere

hutsa litzake sikira!
Gizonan galtzak baztertu eta
telebistari begira,
garai bateko andre on haiek
nora jua n ote dira?

Lujanbio: Andrea n kulpa egiten dezu
lotsa haundirika gabe,
baina nik beti ezin det egin
zure alde, zure mesede;
azkenaldian gure etxe
janak egin ditu bere,
tripak galtzeri eutsiko die
botoiikan gabe ere!

J. Agirre: "Tripak galtzeri eutsiko die",
hala esaten da ari,
lanik egin nahi ez duen batek
beti holako komeria;
garai batean maite zun honek
jostarratza ta haria,
orain ederki baztertutzen du
aitona erdi eria!

Lujanbio: Urteen joanez gure aitona
ari da beheruntza jaisten,
baina halare andriai gauzik
ez diozu erakusten;
zure edadia ikuilurako
ta laneako nola ez den,
zuk ere hasi biharko dezu
punto egiten ta josten.

J. Agirre: Holako gauzak utzi itzazu
andrea alde batera,
bide hortatik ezin gindake
martxa onikan atera;
gero ta gehio maite behar dala
asko dua esatera,
maitasuna ere joan zaizu zuri
sasoiarekin batera.

Lujanbio: Urte mordo bat ondo-onduan
pasatakoak gera gu,
egin dizkizut mila mesede,
beste hainbeste enkargu;
baina ze nahi'zu, urteen zama
bizkar gainean dakargu?
Gu biak'e behin josi ginan ta
josia lasaitu zaigu.

Lazkano

Gaia: Zer pentsamentu ekartzen dizkizu Ameriketara dabilkizun anaia misiolariak?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Biok berdina degu jatorriz
berdin aita eta ama,
noizbait fedeak bultzadatxo bat
egin zuen zuregana;
urte hauetan hori izan da
zure lana eta arma.
Hori dela ta Euskal Herritik
Amerikara joana,
ta hemen ere badadukagu
gizonak zuzentzen lana. (bis)

Nunbait hor zabiltz Ameriketara
ia lur-galduren baten,
harremanik ez zenduke nahi
zuk jendearekin eten.
Ba al dakizu nere motzean
gaur nik zer kezka daukaten?
Beti ez dira kanpoko hitzak
oso zuzenak izaten,
behintzat sekula ez galerazi
bertako seme izaten! (bis)

Ez det pentsatzen bihotza horren
galdua daukazutena,
bestela ziur izango nuke
ahaztuko ez zaidan pena.
Herri bakoitzak nortasuna du
leiken gauzik politena,
ta hori degu zenbait gizonen
galerazi ohi dutena;
ez zazu egin garai batean
espainiarrak ein zutena. (bis)

BIDEGOIAN (1999-08-24)

Bertsolariak: J.Sarasua, Egaña, Iturriaga eta I.Elortza.

Gai-jartzailea: Laxaro Azkune

Goiazko festetan ohikoa den bertso jaialdia. Gaueko hamaiketan, pilotalekuan.

I.Elortza-Iturriaga-J.Sarasua

Gaia: Clinton bakarrik ez da bere maitale izandakoekin arazoak dituena. Hauek hirurak Andoni Egañaren maitale izandakoak dira eta elkartzea pentsatu dute, baina ez dakigu zertarako.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Kantatzera nijoa

J.Sarasua: Txoriburua eta
gaztea izanik,
Andonikin izan nun
noizbait harremanik.
Gaur ez nuke egingo
horrelako planik,
ilea zeukanean
maitatu nuan nik. (bis)

Iturriaga: Gau baten ezagutu
ta izan zan aski;
alkar hartu genuen,
hala izan zan noski
eta gau bero baten
ginen elkar busti;
soineko bat dut bere
sello eta guzti. (bis)

I.Elortza: Bere aldaketa argi
ikusten da hemen,
nola urterik urte
burusoildua den.
Jonek dio gehiago
maite zuela lehen
ta niri berriz orain
gustatzen zait gehien. (bis)

J.Sarasua: Andoni abila da,
txapeldun kantuan,
baina mutil torpea
harreman kontuan.
Erropak erantzita
atarramentuan,
puntua jartzen zidan
azken momentuan. (bis)

Iturriaga: Alper samarrik gabiltz
gu hemen hizketan,
nor zuten gogokoa

dabiltz esaketan.
Batek aurretik eta
besteak ostetan,
nik berriz gustoko nun
momentuan bertan. (bis)

I.Elortza: Puntua, azken orduan
jarritako lanak,
nola maite ditudan
denbora joanak!
Eta nere gogoan
ondo ditudanak,
beratziko zaharrear
egin zizkidanak. (bis)

J.Sarasua: Baina kontu hortan'e
xelebrea omen,
jakin nahi nuke zuei
pasa zitzaizuen;
momentu gorenean,
ene Jesus, amen!
Zigarroa pizten zun
bukatu baino lehen. (bis)

Iturriaga: Niri ere horrela,
gauzak nola diran!
Luze jarduten ginen
biok tira-biran;
sei hilabetez edo
nenbilen ni jiran,
bertso txorta politak
idatzi zizkidan. (bis)

I.Elortza: Zertarako elkartu
garen hiru lagun?
Argitzeko nahi nuke
oraingoan jardun:
nola banaka ez duen
nahi izaten egun,
ia hiruron artean
lortu dezakegun. (bis)

Egaña

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Adiskidea Andoaindikan

Garai batean nexka mordo bat
zebilen Egaña gose,

eta nik berriz sexu irrika
bat baino gehiokin ase;
orain bastante bajatua naiz
ta desgrazia da hauxe,
beti bakarka jardun beharra
mutilzaharrak bezelaxe!

Tarteko horrek selluagatik
neri erasan dit, “danba”;
behin bota nion eta gorde du,
egina du propaganda.
Mantxa txuriaz ez naiz harritzen,
egia garbi esanda,
normala danez kulerok’e
beltzak janzen zituan-da.

Juanitak berriz eseria nau
akusatuen aulkian
ta adar jotzen hasi ez zait ba
ilearen aitzakian!
Orain burua ez euki arren
oso modu egokian,
oraindik ile pixka bat badet
zuk maite zendun tokian.

Iturriaga-I.Elortza

Gaia: Amona eta iloba bizi zarete etxean eta amona hasi da ilobaren prakak garbitzeko poltsikoak husten, eta halako zorrotxo berezi bat aurkitu du barruan. Nonbait ilobari kentzea ahaztu, eta hor hasi zaio amona galdezka zer den hori.

Neurria: Lauko handia

Doinua: Kontu barri bat suzeditu da

Iturriaga: Zuri beharbada nahiz ta iruditu
nahiko galdera tontoa,
ai, patriketan zertako duzu
seme, bikarbonatoa?

I.Elortza: Harri koskorra bikarbonato
ta beste pare bat harri,
goizez errekan aurkitu ditut
ta zuretzako ekarri.

Iturriaga: Hautsa ta harriak denak batera,
ai, hemen ez zegoenik!
Nik ez nekien gure iloba
eskultore genuenik.

- I.Elortza: Eskultorea ez naiz ni baina
hauts pixkat badago hemen,
gela garbitzen jardun naiz eta
begira zer gertatu den.
- Iturriaga: Harri koskor bat eta hauts pixkat
patrikan zeuden nabari,
benetan zer den jakin dezagun
emaiozu aitonari.
- I.Elortza: Benetan zer dan, benetan zer dan,
nola hasi esplikatzen?
Nik zuretzako ekarri ditut,
ez al zaizkizu gustatzen?
- Iturriaga: Aitonak lehendik ere hartzen ditu
Optalidon ta Nolotil,
hori hartuta ere ez da hilko
orain arte ez bada hil!
- I.Elortza: Honelakorik amona ezin
zaio eman aiton bati,
igual gaur salto egin dezake,
baina bihar ezetz jaiki!
- Iturriaga: Aitonak behar du ene iloba,
gaurkoan hori probatu,
gure aitona sasoian dago,
ez zazu gaizki pentsatu.
- I.Elortza: Barkatu baina ez da plan ona
honetan aitonarena,
denak neuretzat hartuko ditut,
hori izango da onena.
- Iturriaga. Itxura danez ez da nahikoa
izan jaso duzun bronka,
multarik ez da egongo baina
denak porrusaldan bota.
- I.Elortza: Bazkari ona izango dugu
zuk hori egin ezkerro,
ta seguraski etxean festa
egin beharko da gero.
- Iturriaga: Behingo batean gure arazoa
behar dugu bertan laga,
ai Jaungoikoa, hautsetik gatoz
eta hauts izango gara!

I.Elortza: Hautsetik gatoz ta izango gara,
banoa festa batera,
amona ahaztu itzazu hauek
ta zoaz lo egitera!

ERANDIO (1999-08-28)

Bertsolariak: Ibarra, Iturriaga, A.Paia eta Gaztelurrutia.

Gai-jartzaile: Joseba Santxo

Erandio Beheko jaiak zirela-eta Berbots euskara taldeak antolatutako jaialdia. Gaueko bederatzietan, plazan. Ehun eta berrogeita hamar entzule inguru.

Ibarra-Iturriaga

Gaia: Hemen dauzkagu graffiti egile bi. Eurok ez dabe elkar ezagutzen eta hor aritu dira nor bere graffiti egiten. Oraintxe amaitu dute beharra eta hauxe dino Iratxeren graffitiak: "Gerra buka dadin, amodioa egin"; Unairenak, berriz, hauxe dino: "Euskal Herrian larrua jotzea ez da gatxa, miraria baino". Elkarrenak irakurri eta berbetan hasi dira.

Neurria: 4ko handia

Doinua: Kontu barri bat suzeditu da

Iturriaga: Maitasuna ta gerrarenakin
behingoz emazu pakea,
Euskal Herrian errezagoa
baita gerrara joatea.

Ibarra: Amodioa egin behar da,
umore onez gainera,
amodioak bultzatzen gaitu
gerrarik ez egitera.

Iturriaga: Graffiti hauen gaia izan da
beti kontu serioa,
larrutan egin behar da lehenengo
ta gero amodioa.

Ibarra: Egia da bai, ez da erraza
gaur larrutan egitea,
baina askozaz zailagoa da
gerrarik ez egotea.

Iturriaga: Ez nago oso seguru Iratxe,
ez zan arrazoi sanoa,

hemen siketa galanta dago
ta Dagestanera noa.

Ibarra: Baina denek ez dute gaur zertan
zurean jarri arreta,
aldarrikatzen duzuna soilik
zeure akatsa da eta.

Iturriaga: Zuk diozunez egin behar da
askoz gehiago larrutan,
krabelintxo bat jarriko al duzu
nire fusilaren puntan?

Ibarra: Krabelintxoa jarri dezaket
igoal nonbait afanean,
baina seguru egon zaitez zu
ez dela ba zurenean.

Iturriaga: Esaten dute honetarako
behar direla bi arrautza,
zu gogoz baldin bazaude behintzat
egingo dugu iraultza.

Ibarra: Beste era baten bota behar dut:
gorringo bako arrautza
esaten dute izaten dela
gazterikako iraultza.

Iturriaga: Nik gorringoa ta zuringoa
biak dauzkat ipinita,
baina aspaldian nabil jendeai
biak ezin ikusita.

Ibarra: Amodioan azkenaldian
gu gabiltza nahiko txiro,
tiratu gura baduzu egin
baina maitasunez tiro.

Iturriaga: Demagogia ta grokitia
kontua da bat bakarra,
batzuk larrutan segiko dute,
guk poesia popularra.

Ibarra: Arrazoi pixka bat baduzula
esan beharko dizut nik,
jende ugari baitio "ez da
gerrarik bako bakerik"

Iturriaga: Hemen bizi da jende guztia
triste antzean ta pakean,

Euskal Herria Karibe aldera
hurbiltzen ez den artean.

Ibarra: Hara hurbiltzea jende askori
iruditu gaur ederto,
baina txartela nork ematen du
hara doan joateko?

Iturriaga: Ta amaitzeko lotu ditzagun
arrazoietatik biak:
gora Euskadi ta gora gerra
eta gora mirariak!

F.Paia-Gaztelurrutia

Gaia: Beñat mutil itsua izango da eta Fredi, berriz, itsumutila. Beñat, itsua den arren,
parrandero galanta da eta Erandiora etorri da jaietara, Fredi itsumutila laguntzaile
hartuta.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

F.Paia: Egia esan jaiak ditugu
guretzat nahiko sakonak,
ezin ikusi neska politak
ezta neska hoiengonak;
baina Erandio ondo ezagutu,
behar digu gaurko gizonak,
"puntxa" (1) badago, tabernetan gauz,
ertzainak badagoz, txosnak. (bis)

Gaztelurrutia: Paranoiakin nor etorri dan
gure gizajoa berton,
zu bezalako kakalarririk
nik ez dut ikusi inon!
Parranda berdin egin dezaket
ene laguna edonon,
neskarik bada txistu egin zazu,
bestela isilik egon! (bis)

(1) puntxa: *bakailao* musikari deitzen zaio egungo argotean.

F.Paia: Neskei begira egongo naiz ni
zure ondoan ta adi,
oraintxe bertan ikusten ditut
gure aurrean ugari;
isildu aurretik detalletxo bat:
zure ezkerrean nago ni,
Beñat askatu eiozu eskua
ondoko bizardunari. (bis)

Gaztelurrutia: Bizardun hori izan daiteke
igoal zu baino hobea,
halan ta guztiz itxura behintzat
ez da oso dotorea.
Eskua euki beharko dut nik
patrikan gorde-gordea,
lehen txistu egin duzu laguna
ta orain kulpa nirea. (bis)

F.Paia: Nik txistu apurrik ere ez dut egin,
bidean zabiz (1) gortzeko,
lanbide honekin ibili ohi naiz
ni baragarri (2) antzeko.
Bizardun horrek hartu du hauxe
gu biok baino hobeto,
farmazirantza doala dino
eta hemen itxoiteko. (bis)

Gaztelurrutia: Beraz gizonak ospa egin du
gaur farmazia partera
eta urduri egonagatik
pozarren nago gainera;
bakar-bakarrik utzi nazazu,
horrela askoz hobe da
ta nire bila etorri zaitetz
hiru t'erdiak aldera. (bis)

F.Paia: Hiru t'erdiak arte banoa
ta ondo pasatu gaba,
ta zuk ikusi eiten dozuna
zure eskuekin, hara.
Halan ta ere ez dut hartuko
zuk utzi arren ikara,
hiru t'erditan ondino ere
hementxe egongo zara. (bis)

(1) zabiz: zabilta

(2) baragarri: beti estu ibiltzen dena, gauzak ganora barik egiten dituen. Mendebaldean zabal dabil berba hau. Seguruenik "barregarri" berbatik etorriko da, baina erabiltzen den lekuetan eremu semantiko zabalagoa hartu du.

Gaztelurrutia: Gure laguna ez da etorri
oso itxura santuan,
nik kanporantza bidali dut ta
hara gizonan onduan;
baina gauza bat esan nahi dizut
azken bertsoan kontuan:
igual hementxe egongo naiz bai
baina ez oraingo moduan. (bis)

EIBAR (1999-09-07)

Bertsolariak: Mañukorta, Lujanbio, J.Agirre eta Egaña

Gai-jartzailea: Rafael Zubizarreta

Ohiko bertso afaria Arrateko Kantabria jatetxean, ... eta kitto! euskara taldeak antolatua.

J.Agirre-Mañukorta

Gaia: Bi artzain zarete. Zuen lagun-taldean bildots-jan bat ematea erabaki duzue;
Mañuk bildotsa ekarriko duela eta Agirrek gastuak ordaindu. Egin duzue bazkaria eta
Agirre hurrengo egunean konturatu da artaldean bildots bat falta duela.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Mando baten gainian I

J.Agirre: Lehenago're sarri ohi det
 nik etekin motza,
 ta oraintxe're pasa danak
 eman behar lotsa;
 biak dauzkat oainguan,
 triste det bihotza,
 taldeko otso horrek
 ostu dit bildotsa!

Mañukorta: Etxian ez neukan eta
 kontuak atera,
 lagunak konbidau behar
 arkume jatera!
 Zuk ere jan zenduen
 gurekin batera
 eta jan ta gero horrekin
 damutu al zera?

J.Agirre: Arrazoi balu bezela
 hartzen du laineza,
 honek dadukana da

lotsarikan eza;
laguna izurratzeko
badu interesa,
bestenetik gonbidatzen
ez da aldrebesa.

Mañukorta: Mundura jaiotzen dira
hainbat gizon klase,
inork konbidau ezian
zu sarritan gose.
Atzo ondo eran zendun
ta janakin ase,
oso pozik egon zeinke
aizu lagun Jose.

J.Agirre: Zeuk ere mordo bat sartu
zendun sabelian,
ta dirua're zeuretzat
zeure sakelian.
Hau bapo moldatu da
nere epelian,
tipo ederra daukagu
tonto papelian!

Mañukorta: Pasatutako eguna
ez gendun kaltian,
bapo ibili ginaden
gu lagun artian;
ta zin egiten dizut
guztien tartian
nerea jango degula
datorren urtian.

J.Agirre: Pobre banaiz honekin
ni ez naiz jantziko,
gizon hau zikin degu
gaur kontzientziko;
oain ere gezurra esan du
nere iritziko,
hurrengo urte hori
ez da iritsiko.

Mañukorta: Lagun zahar jatorra Joxe,
jator eta bitxi,
lagun artera dotore
ein zera iritsi;
banketa eder horrek ez du
gaur balio gitxi,
hori ein dezula ta ez zera
zu batere jetxi.

J.Agirre: Horregatikan biziko
ahal naiz bai aurrera!
Lehen ere egina da
hamaika jokera!
Baina ezagututzen
bapo ari gera,
bekain zahar horiek ditula
gora eta behera.

Mañukorta: Bekainak gora ta behera
dirade egiak,
baina gauza hauek ez dira
gauza gehiegiak.
Gizenak eta lodiak
dauzkazu ardiak,
ikusita dauzkate
Mañuren begiak.

ARRIETA (1999-09-10)

Bertsolariak: F.Paia, X.Paia, I.Muniategi eta A.Muniategi.

Gai-jartzailea: Asier Legarreta

Gainko ("Jainko") auzoko jaietan eraturako saioa. Gaueko hamaiketan, plazan.
Hirurogei bat entzule.

F.Paia-A.Muniategi

Gaia: Fredi ijitoa oiloak lapurtzen harrapatu du Anertz baserritarrak.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Kantatzera nijoa

A.Muniategi: Pare bat oilo falta
ziran herenegun,
nahiz ta kontatzen gogor
nintzen oso jardun,
ezin nuen bilatu
zentzu ez erantzun;
hara azeri zaharra
non agertu jakun! (bis)

F.Paia: Ni aurkitu nau eta
badu hainbat zorion,
hara baserritarra
zeinen pozik dagon!

Ijitoak horrela
dabiltza ta hor konpon,
dekonari kendu ta
ez dekonari emon. (bis)

A.Muniategi: Lehen ez da gertatu
holako hanbat kasu,
pasa beharko dozuz
hainbeste arazu;
nahiz ustetan bizkorra
izango zaren zu,
orain nire makila
probatu ezazu. (bis)

A.Paia: Makila atera du
laborariak lasai
eta alde egitea
nahiz eta nukeen nahi,
bi ubelune hartu,
halan ta ere jai,
makila probauko dot
oilaskoa be bai. (bis)

ORDIZIA (1999-09-11)

Bertsolariak: Maia, Lujanbio, I.Elortza, Munduate, Gabilondo eta Iturriaga.

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Euskal jaien barruan Argi Berri Elkarteak urtero eratzen duen jaialdia. Herriko antzokian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Ehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

Maia

Gaia: Lehen drogazalea zinen, baina gaur guztiz sendatuta zaude. Gainera, baduzu lanpostu bat eta familia bat. Epaileak dioenez, ordea, justiziarekin baduzu zor bat, eta zu kartzelan sartzeko agindua eman du. Kartzela atarian zure familia agurtu eta bazoaz barrura.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Garai bateko bizimodua
oraingo zorra ote da?
Ez deritzot nik lekuz kanpoko
hor egindako galdera.

Gazte garaian egindakoak
gaur egunean kaltera,
arrazoi hori ikusi eta
guztiok ohartzen gera,
legea beti ez dijoala
arrazoiakin batera. (bis)

“Sei urtetako zoaz zulora”,
hala esan dit xuabe.
Garai haietan ez nun pentsatzen,
oraindik nintzen nerabe;
orain zigorra ezarria da
gizartearen zutabe,
nere kasua ikusi eta
zigorrak zertako daude?
Nere bidea zuzendu det nik
kartzelatik pasa gabe. (bis)

Adizu jueza, gaizki zabilta,
halaxe behar da jakin;
lanpostu hori daukazu eta
zigorra dezu etekin,
baina alperrik saiatzen zera
represioan nerekin;
nik kontzientzia garbia dauka
nere adimenarekin,
nik zor bakarra nerekin neukan
ta ez beste inorrek. (bis)

Lujanbio-Gabilondo

Gaia: Bi ahizpa zarete, zaharrena Maialen eta gazteena Nahikari. Gaur, Nahikari negar zotinetan etorri da etxera, Maialeni esanez lehenbiziko amodio porrota jaso duela eta gizonezko guztiak gorroto dituela.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Lujanbio: Batek ezetza eman dizu ta
 zaude kezkatu ta izu,
 ezetza ere onartzen jakin
 behar dela badakizu.
 Nahiz ta mundua bukatzen dela
 pentsatuko duzun, aizu,
 eon zaite lasai, honek bihotza
 zabaleraziko dizu. (bis)

Gabilondo: Bihotza guztiz hautsita daukat,
 hau da mina, hau da pena!

Ez det eduki malkoak ondo
aguantatzeko kemena;
lur jota eta gaizki nagola
hain da gauza nabarmena,
orain artean ni izan bainaiz
denak utzi dituen. (bis)

Lujanbio: Lehenoz zuk utzi ta orain berak,
gertatu da eta kito!
Charlot zaharrak esaten zuna
oroitu det nerekin:
"Ez egin negar, ez bota malkoik,
ez hartu penak begiko,
edo malkoek ez baitizute
ezer ikusten utziko". (bis)

Gabilondo: Orain artean moldatzen nintzen
airosa eta primeran,
hau gertatzeko ez hasterikan
nahiago nuen aukeran.
Ahizpa zahar gisa hartua zaitut
gaur aholkulari eran,
ta esaidazu hau gertatzeko
nik gaizki zer egin dedan. (bis)

Lujanbio: Itxura danez ahizpa txikia
zu zaude azalpen premiz,
baina eredurik ez det zuretzat
ta aitortzen dizut egiz.
Gertatu zaizu behingoan eta
gertatuko zaizu berriz,
harri horretan estropoz egin
behar dezu mila aldiz. (bis)

Gabilondo: Nere bihotza hautsi ondoren
mutilak nauka erreta;
begiak ditut malkoz bustirik,
burua lausoz beteta.
Estropozuka berriz hasi ta
alperrik ez det nahi neka,
ezezko batek baiezko danak
ahaztuarazi dizkit eta. (bis)

Lujanbio: Batek ezetza eman dizula
eta jarri zera grabe,
parre pixka bat egin ezazu,
egin ahizpari mesede!
Bizi luzea ta oparoa
hortxe dezu parez pare,
baiezko batek ahaztuaraziko

dizu ezezko hau ere. (bis)

Gabilondo: Gaur negar malko bihurtu zaizkit
atzoko parre ta algara,
orain bidean topatu ditut
mila oztopo ta traba;
eta aurrera jarrai dezadan
gogorik ez daukat, hara,
honen ondoren berriro ere
ezezkerik baldin bada. (bis)

BERMEO (1999-09-13)

Bertsolariak: Iturriaga, I.Elortza, Amuriza, Egaña, S.Lizaso, A.Lopategi.

Gai-jartzailea: Bernardo Mandaluniz

Bermeoko jaietan ohikoa den jaialdia. Aurten dira hogeita bost urte herri kirolak eta bertso saioak antolatzen hasi zirela. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan. Entzule asko.

Amuriza

Gaia: Gaur, ospakizunak aipatzen hasita, Lizarra-Garazi itunarena aipatu behar. Zer osasun, zer etorkizun ikusten dautsazu Lizarra-Garaziko itunari?

Neurria Berezia

Doinua: Uso zuria errazu

Erdi gaixorik ginena,
gaur badot itzaropena. (bis)
Urtebete da martxan abitu
zala Lizarrako tren,
gaixo zaharretik osasunera
eroango gaituena. (bis)

Madrilen “ezetz ta ezetz”,
ume temosoen legez. (bis)
Baina esandako berbak agudo
iruntzi beharko dabez;
tren hau ezin da gelditu eta
alde paretik, mesedez! (bis)

Aurten urte bat bete da,
Lizarratarren aukera. (bis)
Urtebetean pentsatu zenbat
egina dogun aurrera;
ez dot pentsau nahi nun egongo garen
hemendik urtebetera! (bis)

Egaña-Iturriaga

Gaia: Unai Aita Santua eta Andoni Bermioko parrokoa. Agindu berria dakar gaur Aita Santuak: “Hemendik aurrera ez dago infernurik”.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Egaña: Aita Santu naukazu
 erabat eginda,
 zure enziklika dut
 oraintxe jakin-da!
 Kanpaiak martxan jarri
 horrek eraginda,
 nik ulertu dudanez
 infernua hil da. (bis)

Iturriaga: Sermoiak bideratu
 oin zerura, gora,
 trinitaterantza ta
 gero Jangoikora;
 infernua berba bialdu
 Bibliatik kanpora,
 bestela gure enpresa
 hara joango da! (bis)

Egaña: Askotan hartu det nik
 sermoietan parte,
 infernua aipatzen
 nien nik gaur arte;
 orain zuzentzen badut
 neuretzako kalte,
 gezurtia naizela
 esango didate. (bis)

Iturriaga: Inor ez eleizan ta
 bizi gendun drama,
 laster aldatu dogu
 gure panorama;
 ardo ona erosi,
 Riojan dauen dana
 ta elizara doanai
 eman trago bana. (bis)

Egaña: Gure Aita Santu hau
 ze gizon gaixua!
 Ez daki ez Bermion
 daukadan kasua:

denei ematekotan
nik ardo goxua,
erosi beharko nuke
Rioja osua! (bis)

Iturriaga: Ez dakit zelan esan
hurrengo kontua,
ez naz laburra eta
zu ez zara tontua,
baina ni zelan nazen
gaur Aita Santua,
legalizatu dala
fornikamentua. (bis)

Egaña: Fornikazio hori
lehengoan mantendu,
hutsa litzake lehendik
probatu ez bagendu!
Juan Pablo seigarrenak
ze atarramendu,
hiltzera doanean
infernua kendu! (bis)

Egaña-S.Lizaso

Gaia: Aiton-amonak zarete. Gaur, oheratzerakoan, eguneroko pastila hartu du aitonak eta ez dakigu herratu egin den edo, ohean, ezohizko mugimenduak nabaritu ditu amonak.

Neurria: Lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzeditu da

Egaña: Ene aitona, mugimentutsu
nabaritzen zaitut hemen,
Turkiako terremoto hori
ikusi eta ondoren.

S.Lizaso: Motiboa zer izan ote dan
orain ez zaio inporta,
benga Joxepa prestatu zaitetz,
sasoi betean nago-ta!

Egaña: Zerbait egiteko asmoakin
ene Nikolas, gaiztoa;
garai batean amets nuena
orain da amesgaiztoa.

- S.Lizaso: Ez ikaratu, ametsa ez da
horren gaiztoa izango;
jakin nahi nuke, beste traste hori
lehengo lekuan al dago?
- Egaña: Nere trastea lehengo degun
ez da gauza segurua,
badaezpada're hartu ezazu
instrukzio liburua.
- S.Lizaso: Zer arraiotan hasiko gera
adin honetan horrela!
Pixkabanaka egingo degu
garai batean bezela.
- Egaña: Nik ez dut bate gogorik baina
hasi zaitez zu xuabe,
nik animatu egingo zaitut
batere mugitu gabe.
- S.Lizaso: Amonak hemen borondatea
gehiegi ez du azaldu,
jolas osoa izango bada
portatu egin behar du.
- Egaña: Buelta eman ezazu Nikolas,
egin loaldi mardula;
bihar lagunei lasai kontatu
zertxobait egin degula.
- S.Lizaso: Zertxobait soilik izango degu
noski geure kalterako,
bihar gauean berriz pastilak
dobleak hartu beharko.
- Egaña: Jergoi gainean saltoka hasi,
ohitura dezun bezala,
seme-alabek pentsa dezaten
horretan ari gerala.
- S.Lizaso: Hemen hizketan luzaro jardun,
noski gure kalterako
eta eguna argituko du
guk ezer egiterako.
- Egaña: Zu ixkoaren salida dezu
ta zezenaren hasera,
baina minutu bat juaterako
zurrunkaz hasiko zera.

S.Lizaso: Zure ondoan nik lo hartzen det,
hain aspergarria zera!
Bihar kanpora joan behar det
puxka bet entrenatzera.

Egaña: Nahi dezuna egin ezazula,
eskertzen dizut, estima;
agur Nikolas ondo lo egin,
“abe Maria purisima”.

ALTZAGA (1999-09-25)

Bertsolariak: Sarasola, A.Agirre, Uranga eta Usandizaga.

Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio

Pilotalekuaren estreinaldia zela-eta antolatutako saioa. Pilotalekuan bertan izan zen,
gaueko hamar eta erdietan.

A.Agirre

Gaia: Etxean zaude afari eder baten aurrean, telebista piztuta. Telebistan modeloen
desfile bat botatzen ari dira. Zure gogoeta.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Gizartearen aurrean hauek
badute mila bertute,
euren gorputza zer-nola zaindu
pasa dute hainbat urte.
Nahiz ta liraina egon naitekeen
gutxio jatean truke,
hau ikusita nik ez jaterik
inork ez dezala uste,
baserritarrek gutxinez atze
zabalak maite dituzte. (bis)

Neurri guztiak ondo mantentzen
dabiltza ahaleginean
eta kezka bat sortuarazi
didate gaur barrenean;
itsusia naiz askoren ustez
ederren aldamenean,
baina nik nere kasa jarraitu
nahi det eundoko planean,
haragiak zer balio du ba

non heldu ez dagonean? (bis)

IURRETA (1999-10-02)

Bertsolariak: S.Lizaso, J.Sarasua, Iturriaga, I.Elortza, Maia eta Amuriza.

Gai-jartzailea: Hodei Zenikaonaindia

Sanmioletan ohikoa den jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan. Entzule asko.

Maia

Agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Bertso platera berandu dator
eta jendea da gose,
gure menua ezaguna da,
horrekin nahi degu ase;
ta atzeko paretan
gure alde bietan
jartzen duen bezelaxe,
ia neurrian aritzen geran,
ez labur eta ez luze! (bis)

ZEGAMA (1999-10-23)

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, Murua, Peñagarikano, Irazu eta J.Agirre.

Gai-jartzailea: Laxaro Azkune

Jende asko elkartu zen Zegamako pilotalekuan suak erretako Asumendi baserriaren aldeko bertso jaialdian. Motel antzean hasi baziren ere, bizi-bizi jardun zuten erdialdetik aurrera. Entzuleak oso gustura.

Egaña-J.Agirre

Gaia: Gipuzkoako herri arteko txapelketan elkarren kontra aritzekoak dira hauek, Zarautz Jai Txiki eta Azpeitia Oñatz taldeetan. Baina justu txapelketa honetan, fase honetan behintzat, ez zuten elkarren kontra aritu nahi; elkarri beldur pixka bat badiote, ez dakigu zergatik.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

- Egaña: Guk dabilkigun suerte ona're
ez dabilkigu hurrean,
behin behar eta tokatu gera
egokiera txarrean.
Joxek beldurra sortzen dit neri,
hala da derrigorrean,
oiloa beti izutzen baita
axeriaren aurrean. (bis)
- J.Agirre: Pizti gaizto bat bezela ere
tratatzen naute nolnahi,
bainan Egañan inguruan ni
joango nitzake noranahi.
Bertsotan honen erdirik ere
naizenik ez det esan nahi,
bildurrik ez dit ematen baina
errespetua latza bai. (bis)
- Egaña: Erdi usteko bat ta erdirekin
ez naiz fiatzen sekula,
sorteo hori guretzat ez da
tokatu oso mardula.
Galdu ezkeron aitonagatik
egingo digute burla
ta irabazita esango dute
meriturik ez degula. (bis)
- J.Agirre: Zeresan franko jarri litake
batean eta bestetan,
txapelketa horren gorabeherakin
asko ai dira hizketan.
Andoni Egaña gaur aitonari
burla egiteko ustetan,
nere tamaina izango al zera
oain nik dauzkatan urtetan? (bis)
- Egaña: Zu kontrario tokatu eta
galdu det nere patxada,
pentsatzen baitet "aitona honek
emango digun pasada!".
Faborito zeu ikusten zaitut,
Joxe egitan hala da;
peligroso da aitona zaharran
azkenengo buztankada. (bis)
- J.Agirre: Zuk esan dezun elementu hori
indartsu ez dadukat nik,
bainan orandik ez zazula uste
azkena izango danik;

eta bertsotan probauko gera
gu Oñatira juanik,
nahiz galdu edo nahiz irabazi
gero eskua emanik. (bis)

Murua

Gaia: Amodioa edo maitemina edozein adinetan lora daitekeela esaten da. Zer berezitasun ditu haurtzaroan, gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

Amodioa hurbiltzen zaigu
guri txiki-txikitatik,
behin sartu eta ez du irtetzen
bihotzan erdi-erditik.
Haurtzarokoa da goxoena
ta esango det zergatik:
trago goxotan edaten baita
amaren bularretatik.

Gaztarokoa uda garaian
koskortzeko esamina,
nerabezaro aldi horretan
maitatzeko ahalegina;
amets artean, maindire artean,
bietan ez nahi dan aina;
biak batera izaten ditu:
zoriona ta samina.

Udazkenera iritsi al naiz?
Sinistea're hau lana!
Maitasunean daramakit nik
etxeko bi haurren ama.
Oraindik ere maitasun finez
joaten naiz berarengana
eta uste det oraintxe dala
gehien maitatzen dudana.

Zahartzaroa negu beltza da,
hori dator azkenean,
ta maitasunak segi dezala,
segi dezala lanean;
huts egin gabe makulu gisan
pertsonek aldamenean,
nik ere euskarri izan dezadan
elbarritzen naizenean.

Peñagarikano-J.Agirre

Gaia: Joxe Agirreren baserrira azaldu da Peña, saltzailea. Ez zuen uste Joxe aterako zitzaionik atera, baina Joxe atera zaio. Produktu afrodisiakoak saltzen hasi zaigu orain, eta ez dakit zergatik joan izango den Orandara.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Nere senarrarekin

Peñagarikano: Saltzaileak badauka
gaur nahikoa treta,
baten karpeta eta
bestean maleta.
Nik afrodisiakoz
dakarkit beteta,
zuri saldu nahiean
beharrean zaude-ta. (bis)

J.Agirre: Beharbada laster juango
naiz ni mundutikan,
baina ez det mudatu nahi
bizimodutikan.
Engainatu nahi nazu
gaur zuk kontutikan,
nei ez diazu galduko
lehengo kondujukan! (bis)

Peñagarikano: Orandara heldu naiz
holako produktoz,
nonbait etxe hontara
saltzaileak datoz.
Gainera etorri naiz
zuri saldu asmoz,
zure andreak deitu dit
neri telefonoz. (bis)

J.Agirre: Hau ere iritsi zait
gaur halabeharrez
ta ezin hartuko det
hain jenio txarrez.
Orain arte kontua,
besterik ezer ez;
zer jenero daukazun
zuk esan mesedez. (bis)

Peñagarikano: Jeneroa esan gabe
nik ezin det laga,

ta oraintxe izango da
hortako bolada.
Egañak esan duna
egia beharbada,
ez ote dezun eman
azken puztankada. (bis)

J.Agirre: Erantzun nahi nizuke
umil eta bare,
lotsagabez bazera
edozeinen pare.
Hontaz aurrera gutxi
eingo badet ere,
zu bezela ez nago
demostratu gabe. (bis)

Peñagarikano: Nunbait zure inguruan
badira birjinak,
honek esaten ditu
hain kontu zikinak.
Erosiko al dizkit
oain nagusi finak,
lenteja tankerako
pastila urdinak? (bis)

J.Agirre: Neri ez dit inportarik
urdin edo gorri,
baina kontuarekin
ez zaitez etorri.
Zerbaiten beharrian
zu zaude zerori,
lodituko bazaizu
lepo alu hori. (bis)

Peñagarikano: Honi pastilak saltzen
nik badaukat lana
ta ezin det onartu
oain berak esana.
Zeorri zabilta oker,
nagusi laztana,
zerorrek dadukazu
loditzen ez dana. (bis)

J.Agirre: Nolanahi kontatzen du
hain gauza lizuna,
pentsa behar zendun zerbait
esango nizuna.
Nik nola daukatan da
zuk ez dakizuna,
zuk dezu ezer ein gabe

mehetuko zaizuna. (bis)

Peñagarikano: Entzun al diozue
honi albistea?
Nik ez nuen pentsatzen
horta iristea.
Lodituko zaidala
badaukat ustea,
bai prestatzen badezu
zeure emaztea. (bis)

J.Agirre: Hola mintzatzen da hau
bakinat alditan,
holaxen jarduten du
hirutatik bitan;
esaten du dagola
hain sasoi haunditan
ta azkenian amona
baten inbiritan! (bis)

MALLABIA (1999-10-24)

Bertsolariak: Egaña, S.Lizaso, Ugartetxea, Maia, Irazu eta Iturriaga

Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea

Mallabiko Udalak herriko festetan eratutako jaialdia. Pilotalekuan izan zen, igande arratsaldean.

Ugartetxea-S.Lizaso

Gaia: Hamasei urteko bi gazte zarete, elkarren lagunak oso. Hamasei urtetan gauza bakarra izaten da buruan, mutilek bai behintzat: neskak. Ez duzue batere ligatzen, ordea, eta elkarri botatzen diozue horren errua. Zuk, Arkaitz, Xebastiani botatzen diozu errua, duen bizarrarekin zuen adineko neskak uxatzen dituelako. Zuk, Xebastian, errua Arkaitzena dela uste duzu, ume-aurpegi horrekin neska helduagoek umetzat hartzen dutelako.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Ugartetxea: Xebastianekin ezin
luzaro mantendu,
aurrean dauden denak
zuk bistatik kendu;
sarri askotan berriz
ezetz ematen du,

berbetan hasi eta
orruka amaitzen du. (bis)

S.Lizaso: Premizko izan leike
orruan itzala,
hamasei urterekin
ez al da normala?
Neska denak ihesi
doaz berehala,
denek pentsatzen dute
ume bat zerala. (bis)

Ugartetxea: Neskak beti dabilta
gugandik aparte,
itxura denez asko
ez gaituzte maite;
horrela baldin bada
guretzako kalte,
zugatik ere gauza
bera esaten dute. (bis)

S.Lizaso: Ezin dugu atera
nahi hainbat etekin
ta aukera galtzeak
beti ematen du min.
Ez al dut askoz hobe
zugandik aldegin?
Festara joaten zara
gurasoarekin. (bis)

Ugartetxea: Zugandik aldentzeaz
ni ez naiz harritzen,
zure ondoan asko
ez dira kabitzen,
berbetan ere beti
ez zabilta zuzen,
azpeitiarrez ez dizu
inork entenditzen. (bis)

S.Lizaso: Beraz nik bi hizkuntza
behar orain nahasi
ta sentitzen dudana
garbi adierazi:
gaurkoagatik Arkaitz
neskatan ez hasi,
egon neri begira,
nigandik ikasi. (bis)

Ugartetxea: Gure martxa beharko
duzu, aizu, eten,

izan ere ez baitugu
guk ligatu aurten.
Bertsotan ari gera
orain frontoi baten,
beitu txaloak nola
jotzen dizkidaten. (bis)

S.Lizaso: Hobe egin ez balu
horrelako hitzik,
honek ez baitaduka
normalaren antzik;
"beira nere txaloei"
berak dio pozik,
txaloea ez da ikusteko
entzuteko baizik. (bis)

Ugartetxea: Baina azkena ez zaizu
horren ondo irten,
zer pasa leiken ez da
askotan jakiten;
ta azalduko dizut
bertso txiki baten:
nik ikusten det hauek
nola jotzen duten. (bis)

S.Lizaso: Hamasei urte eta
hau da hau trantzea,
kosta behar zaio gaur
espabilatzea!
Besteak txalo jo ta
honek gozatzea...
honi gustatzen zaio
besteak jotzea. (bis)

MUTRIKU (1999-10-31)

Bertsolariak: Irazu, Lujanbio, Mendiluze eta U.Agirre.

Gai-jartzailea: Arantza Arruti

Jangek/n Me Gazte Elkarteak eta Mutrikuko Bertso Eskolak antolatutako bertso-hileta afaria. Loja zaharra soziedadean izan zen. Hildako bat -Irazu- ardatz hartuta jardun zuten kantuan, orain librean, orain gaia emanda, hildakoak berak, haren emazte, lagun, ehorzle eta abarrek.

U.Agirre

Gaia: Hil berria den laguna.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Hautxo txikia negarrez dago

Hi hil ondoren bolada hauxe
ez dek ederra izango,
mundu hontatik beste mundura
nola egin dekan txango.
"Ze mutil ona, ze mutil fina!"
esanaz hemengo ta hango,
nik bezain ondo ezagututa
ez lukete hau esango.

Autobusari sokaz lotuta
gu biok aurpegi alaiz,
saltaka ere irristatuta
lurrera joaten hitzan maiz;
hamaika zauri, hainbeste odol,
baina ez zin ez, egin gaitz;
horiek guztiak bizik pasata
orain nola kristo hil haiz?

Mozkorraldiak kanposantuan
guk sarri askotan buka,
panteoitikan lore-lapurtzen
ai, guk hamaika burruka!
Baina hildakoa oran hi haugu,
hori ezin diat uka,
eta loreak jarriko'izkiat
albokoari kenduta.

ZARAUTZ (1999-11-5)

Inazio Eizmendi *Basarriri* omenaldia egin zitzaion hileta egunean Torre Luzea enparantzan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Zarauzko Udalak antolatuta. Hainbat eta hainbat bertsolarik kantatu zuten, baina hiru baino ez ditugu jaso hemen.

J.Agirre

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Agur Iñaki, egin dezunak
badu nahiko meritua,
hori izango da gure tartean
betirako gelditua.

Hizkuntza eta herrian alde
urte askoz aritua,
pakezalea zinaden beti,
bihotz gutxi zauritua;
nere ustetan izango zera
betirako saritua.

S.Lizaso

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

Berezia zen bertsoen bidez
lortzen zenduen dizdira,
makurtzen ginen zure euskera
indartsu eta eztira.
Lehenak joan, berriak sortu,
munduko martxa hori da;
zu zinalako izan bagera,
bagera, izango dira.

Sorozabal

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Euskaldun bi andre zeratenoi

Zurekin kantuz jardun zirenak
sentitzen dira zorretan,
bertsoa utzi zenigulako
belar gozoko larretan.
Gaztiak asko ikas lezake
betiko bide zaharretan,
leiho txiki bat zabalik euki
zure bordatxo horretan.

EIBAR (1999-11-19)

Bertsolariak: Agirreazaldegia, Gabilondo, Mantxi, Uranga, Irazu eta Mendiluze.

Gai-jartzailea: Ernesto Ezpeleta *Bihurri*

Urte garaitsu honetan ...eta kitto! euskara taldeak antolatu ohi duen gazteen saioa.
Ganean izan zen, Orbea pilotalekuan.

Irazu-Agirreazaldegia-Gabilondo- Mantxi-Uranga- Mendiluze

Gaia: Zu, Irazu, herriko apaiza zara. Atzeko bostak aitortzera etorri zaizkizu. Egin duten pakatuaren arabera, jarri penitentzia.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre txarraren bentajak

Mendiluze: Oraindikan naiz mutil gaztea
itxuraz eta jakitez,
bainan jadanik aspertua naiz
gaztearena egitez;
ta nik dauzkadan pekatu denak
zure aurrean azal bitez,
amets lizunak egiten ditut
baino ametsak besterik ez. (bis)

Irazu: Amets hutsa're izan liteke
nahiko pekatu tristea,
hobe lehenbailehen ametssetikan
beste zerbaiten hastea;
komeni danez gauza batzuei
buruan argi eustea,
penitentzia ipintzen dizut
ilea zero moztea. (bis)

Uranga: Ez dakit nongo herrian bertso
saio bat egin ondoren,
Irazurekin Hernani aldera
ahalik eta ondoen;
eguardia ere iritsi zan ta
oraindik juergan nabarmen,
baina ez dakit nerea edo
Irazuren errua den. (bis)

Irazu: Bertso saiuan aitzakiakin
batera eta bestera,
eguerditikan segida ere
egin zenduen aurrera.
Irazurekin ibili zinan,
doble errua gainera,
penitentzia ipintzen dizut
bertsotan konfesatzera. (bis)

Gabilondo: Senarrarekin ezkon-bidaira
abiatu afanean,
ta saltzaile bat gerturatu zen
ni erosteko planean;
senarrak hura onar ez zezan
saiatu nintzen lanean,
ta saltzailean ohe beroan
bukatu nun azkenean. (bis)

Irazu: Zorionean Marruecosera
pozik egin zendun buelta,
xirrika eta buelta polita
bertako ohe beroeta,
pekaturikan ez zendun egin
penitentziik'e ez berta,
zure senartxo gizarajuak
nahikua izan zun eta. (bis)

Agirreazaldegia: Umetatikan beti izan naiz
neskatxa zintzo xamarra,
mutilik ez det nik muxukatu,
ez det sentitu beharra;
mozkor txiki bat behin hartu nuen,
hura're nahiko kaxkarra;
pekaturik ez egitea da
nere pekatu bakarra. (bis)

Irazu: Gezurra esaten zertan ai zera?
nolako mala letxea!
pekaturikan haundina baita
ni tontotzako hartzea;
ezagutzen det zer izaten dan
mozkor ondoko trantzea,
ta penitentzi gisara denak
lehenbailehen gogoratzea. (bis)

Mantxi: Nere hazaña ikasi gabe
ez det lagako apaizik,
lagun-minaren nobia atzo
ipini nuen biluzik;
gero hondartzan egin genuan
esan nahi ez dedan gauzik,
egin izana ez da pekatu
damu ez naizela baizik. (bis)

Irazu: Hori pekatu ez da izango,
desioa somatzen da;
begiratuta antzematen da:
hau ez da dudako prenda!
Penitentzitik ahal dan azkarren
Mantxi behar zaitut senda,
marea goran egindakoa
jeistean desagertzen da. (bis)

DONIBANE-LOHIZUNE (1999-11-20)

Bertsolariak: Xanpun, A.Arzallus, Kolina, Lujanbio eta I.Elortza

Gai-jartzailea: Xabier Soubelet

Begiraleak-ek apailatutako bertso-afaria. Hirurogeiren bat afaltiar elkartu ziren Sardinategian. Afari aitzinetik eta afari ondoan egin zuten bertsoan.

I.Elortza-Lujanbio

Gaia: Iduri du herri eta jende xumeek jasaiten dituztela naturaren ezbeharrak. Zu, Igor, Mexikoko herri tiki bateko laborari indiar bat zara eta zu, Maialen, Miami herri aberats batekoa. Zein dira zuen gogoetak jakitean izugarritzko tifoia hurbiltzen ari dela?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

I.Elortza: Gaur arte ere lurrikaretan
 jaso dugu nahiko egur,
 tifoia bat dator mendebaldetik
 ta denbora dugu labur.
 Miamiokoek badute zenbait
 etxe, kotxe edota lur;
 nik bizia soilik galdu nezake
 ta horrek ematen dit bildur. (bis)

Lujanbio: Miami aldean xoxak sobra ta
 bizimodua seguru,
 aukeratzeko ere badauzkat
 beste bost etxe inguru.
 Baldin tifoia etxerik gabe
 uzten baldin bagaitu gu,
 dotorego bat eraikitze
 aprobetxatuko dugu. (bis)

I.Elortza: Honek badauka etorkizunaz
 pentsatzeko ere astia,
 niretzat berriz datorkeena
 izango da garestia.
 Tifoia berbera dugu hor baina
 desberdin beste guztia,
 gordelekua daukazu zuk zai
 ta nik berriz lur azpia. (bis)

Lujanbio: Batzuk sobera duten garaian
 beste batzuk gabezia,
 nik txanpon batzuk dauzkat jokoan
 eta zuk zure bizia;
 nigana pena ekar dezake

ta zugana desgrazia;
zer eingo degu horrela bada
naturaren kutizia? (bis)

I.Elortza: Beraz naturan kutiziatan
jarri gaituzte lekuko
ta goitik behera datorrenari
ezin zaio egin uko.
Zu hortik nonbait joango zara
tifoia heldu orduko,
baina nik berriz lur hau maite dut
eta ez naiz mugituko. (bis)

Lujanbio: Mila arrazoi dauzkazu beraz
hortxe bertan gelditzeko
ta nik ordea penarik bate
munduz mundu ibiltzeko.
Diru pixka bat emango dizut
errukigarri antzeko,
ogi kozkor bat zuri emanaz
kontzientzia zuritzeko. (bis)

I.Elortza: Hau da Miami eta inguru
horretan duten ahalmena:
pentsatzen dute diruarekin
konpontzen dela problema.
Barka Maialen, baina zeuretzat
gorde dezakezu dena,
zure dirurik ez dut behar nik,
datorrela datorrena! (bis)

I.Elortza

Gaia: Mitxel Labegetxe euskal kantu berriaren aita izan zen. Gero *Ez dok hamahiru*,
Laboa, Lertxundi, Lete, Errobi; geroxago Itoiz, Ertzainak, euskal rocka, eta orain Su ta
Gar, Koma eta abar. Zu, Igor, euskal kantu hori zara, Labegetxearekin hasi eta rock
gogorrean bukatu duzuna. Kontatu zure bizia.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Bihotz gureko Tolosa zaharra

Guzti hau hasi izanaz noski
Labegetxe da errudun,
berarengandik gaur egunera
beste horrenbeste lagun;
ta noski euskal kantagintzak hor
horrela behar du jardun,
garaietara egokitu ta

garaikoeri erantzun.

Garai denetan izan ditut nik
batzuk kontra, batzuk alde,
baina aurrera egin dut eta
ez da gertatu debalde.
Gaur honeraino iritsi gara
ta gauden bezala gaude,
orain aurrera segi behar da
atzekorik ahaztu gabe.

Hamaika jende irrian eta
negarrez hor ikusi nik!
Aurrera ere jarraitu nahi dut
sentimenduei loturik.
Gaur egun ere hor ari gara
nortasuna landu nahirik,
kantatzen duen herriak beti
iraungo baitu bizirik.

A.Arzallus-Kolina

Gaia: Zer da Lizarra-Garazi, ametsa ala sustraia?

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Hamalau heriotzena

A.Arzallus: Oraina hemen eta
iragana hor da,
horregatik nahi nuke
pixka bat gogora.
Lehen eduki genuen
hainbeste ganora;
amets bat izan zela
pasa da denbora,
baina jada hazi da
sustraitikan gora.

Kolina: Hau ametsa dugunik
ez dugu usteko,
prozesuan baidaude
sustraiak tarteko.
Beraz biak gabiltza
lagunen antzeko,
ez uste gabiltzanik
elkarren menpeko;
sustraiiei euts zaiegun
amesten hasteko!

A.Arzallus: Poliki aurrerantza
goaz gu urtero
eta buruan dugu
hainbat amets bero.
Ametsa izan zela
esan egunero,
ta zuhaitz izanen da
lore den ezkerro,
eta fruitu ugari
emanen du gero.

Kolina: Inguruan daudenez
horrenbeste etsai,
aurrera joatea
baino ez dugu nahi.
Frogatu behar dugu
gu bagarela gai,
amets guztiei lotuz
erro eta sustrai
edo ametsik gabe
egongo da Sustrai.

A.Arzallus: Loratzen aritu da
euskaldun baratza
eta martxa horretan
goaz aurrerantza.
Horregaitik badugu
hainbat esperantza,
zuhaitza, lehen lorea
edo amets antza,
ta Gobernuarentzat
amesgaizto latza.

Kolina: Itxaropen urria
ez zaigu agortu,
lehen bero zegona
ez da oino hoztu.
Kopetak altxa eta
malkoak lehortu,
helburua hau dela
behar dut aitortu:
garenetik joanez
ez garena lortu.

DONOSTIA (1999-11-27)

Bertsolariak: Murua, Iturriaga, Agirreazaldegi eta Peñagarikano.

Gai-jartzailea: Iñaki Iturain

Donostia bertsotan izenarekin eratzen diren jaialdietako bat. Lugaritz kultur etxean izan zen eta gaueko hamar eta erdiak ondo jota hasi zen. Sarrera dohainik.

Peñagarikano-Murua

Gaia: Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketan ia denek parte hartu dute, Peñak izan ezik. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko ordezkari Murua kargu hartzera etorri zaio.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Pello Josepe tabernan dela

Murua: Behin Gipuzkuko txapeldun izan
ta harrezkeroztik lotan,
behinik behin parte ez duk hartu nahi
moteil txapelketa hortan;
hire hutsuna nabaritu dik
bertsozaleak askotan,
gaur ere etxean egon behar hun
hor parte ez hartzekotan.

Peñagarikano: Esaten dute produkto ona
nik daukadala saltzeko,
sua pizteko txispa nik daukat
ta zuk hura itzaltzeko.
Irabazteko gutxi neukan nik
ta asko neukan galtzeko,
nik txapelketan beharrik ez det
zenbat naizen azaltzeko.

Murua: Baina Anjel Mari, hik ez duk bete
txapeldun baten tokia,
Gipuzkukoan parte hartzea
izango hun egokia;
ta hik atzera egin duk noski,
hi haiz tipo kakatia;
heure amak ere ez dik sinisten
ultzeraren aitzakia!

Peñagarikano: Oain urte batzuk ultzera nuen
aitzakia eta gaitza,
ta orain denek parte hartzea,
hori al genun baldintza?
Ridikuloa ein ote dedan,

zu horrela zera mintza,
haundiagoa egin nezakeen
atera izan banintza.

Murua: Atera gabe ez da jakiten,
aurrean ala atzean
geldituzeko proposamenak
daude epaileen hitzean;
arrixkau berriz arrixkatzen da
hemen bertso bakoitzean.
Joxe Agirrek parte hartu dik
eta hi berriz etxean!

Peñagarikano: Batzuentzako poza da hori,
beste batzuentzat ditxa
ta txapelketa izan zitekeen
zenbait exitoren giltza.
Joxe Agirrek parte hartu du,
hala eman dezu hitza,
baina Muruak askoz hobe zun
etxean egon balitza.

Murua: Neuk'e badakit beharbada etxean
hobetogo nengokeela
eta badakit ez dala noski
neretzat horko txapela;
bainan behinik behin ahaleginean
gogor saiatu naizela
gazteagoei ejemplo ematen
zaharrago batzuk bezela.

Peñagarikano: Txapelketa hontan ez dira egon
anoetarrari entzuten,
argi ta garbi azalduko det,
ea ulertzen dezuten:
“danok partaide behar genuke”
zer ari zera esaten?
Eozeinek parte hartzen dunean
ni ez naiz partaide izaten.

Murua: Hori esan ta geldituko zan
txakurra baino lasaio,
parte hartu gabe ere ba omen
ehun edota gehio saio;
edonork parte hartutakoan,
berak ez, ta ze arraio,
horrelakoai antipodetan
solidario deitzen zaio.

Peñagarikano: Bertsozaleek isuri al dute
horrenbeste negar malko?
Bestela ere han eta hemen
botatzen det bertso pranko.
“Txakurra baino askoz lasaio”
esan ta gerau da bapo;
hain zuzen ere ez naiz atera
txakur zaharra naizelako.

Peñagarikano-Agirreazaldegia

Gaia: Zuek biok lagun minak zarete. Baina Anjel Mari azken bolada honetan depresioak jota dabil, triste,
kexa besterik entzuten ez zaiola. Berak egiten duen kexa bakoitzeko botiaiozu loretxo bat-edo, Ainhoa. Ea laguntzen diogun.

Neurria: 10eko txi.
Doinua: Espainian behera

Peñagarikano: Nere ingurutatik
nik zenbat atake,
beti ni zirikatzen
dabiltza jo ta ke!
Aurtengo udazkenean
umilatu naute;
nik bizitzeko pozik
ia ez det bate,
Gipuzkoan “kobarde”
deitzen baitidate. (bis)

Agirreazaldegia: Lagun-usteengatik
hainbeste zertako,
zu zirikatu nahian
ibili da pranko.
Nik, pentsatzen jarrita,
uste dut zertako:
zure faltan guztiak
hain dabiltza bapo,
Gipuzkun ondo daude
zu ez zaudelako. (bis)

Peñagarikano: Nunahi egiten al det
hainbat enbarazu?
Zure lore horrekin
puxkat poztu nauzu
eta berriro ere
ni poztu nazazu;
aspaldin poztasunez

ni hain nabil antzu,
ilobak esaten dit
“ze zaharra zeran zu”. (bis)

Agirreazaldegia: Iloba jaio zala
hainbeste denbora,
hau ere ikastolan
ona izango da;
esan dizun horixe
izan duzu froga.
Daukazun ilobakin
zaudela gustora,
oso argia baita
daukazun iloba. (bis)

Peñagarikano: Hau bai ez dala broma,
hau ez degu txantxa,
bihotz barnean daukat
halako arantza!
Nere atzekaldean
hortxe daukat mantxa,
Ainhoak poztutzeko
badet esperantza;
diote daukadala
nik Bilintxen antza. (bis)

Agirreazaldegia: Berrero ere zatoz
lorearen eske;
nik erantzungo dizut
gozo bezin aske:
depresioak jota
zaude batz bestea,
Bilintx zure antzekoa
denikan ez uste,
hura perfilez ez da
zu zeran hainbeste. (bis)

Peñagarikano: Hau dana gainditzeko
aizu, ez naiz kapaz,
ni depresiok jota
egun eta gabaz,
ta berdina zait euskeraz
ta berdina erderaz.
Haren perfila ere
esan dezu, beraz;
nolaz deitzen didate
Cyrano Berberaz (1) (bis)

Agirreazaldegia: Aitzakia tristeez
hain zaude aseta,

ikusten zaitut oso
barrutik erreta.
Askok egin dizute
itxuraz iseka,
ezizen bakar horri
ez jarri arreta,
ezizen gehiago ere
badituzu eta. (bis)

Peñagarikano: Zugana etorri naiz
gaur Anoetatik,
isekak baintuen
alde denetatik.
Oain zer ein behar dedan
nik ondo badakit,
oso gustora noa
gaur Donostiatik.
Mila esker bihotzez
piropoengatik. (bis)

Agirreazaldegi: Nola ikusi zaitudan
gaur triste antzeko,
erabakia hartu dut
nik zu laguntzeko;
lagunak ez baititut
edonoiz saltzeko,
ta oraindik bazaude
noizbaite trantzeko,
berriro deitu lasai
kafe bat hartzeko. (bis)

Iturriaga-Peñagarikano

Gaia: Unaik ehizan ikasi nahi du, ehiztari izan nahi du, eta horretarako, inguruan ezagutzen duen ehiztaririk onenarengana etorri da.

Neurria: Lauko txi.

Doinua: Orbelak airez aire

Iturriaga: Ehizarako gogoa
soberan daukat nik, (bis)
zeri tiro egin behar dan
jakin behar lehenik. (bis)

(1) Cyrano de Bergerac.

Peñagarikano: Ondo entzun ezazu
ehiztarin esana: (bis)
ahal bada bota zazu
hegan dijoana. (bis)

Iturriaga: Lehenago ere banintzen
berri batzun jabe, (bis)
bota ote daitezke
hegazkinak ere? (bis)

Peñagarikano: Ez zaite izan horren
eskopeteroa, (bis)
mesedez zuk ez bota
helikoteroa. (bis)

Iturriaga: Ehiztari izatea
goruntzako malda, (bis)
derrigorrez gezurri
izan behar al da? (bis)

Peñagarikano: Gezurra esan behar da
haundia ta ondo, (bis)
bestela ez zera zu
ehiztari izango. (bis)

Iturriaga: Gezurra bota behar da
ahal dan handiena, (bis)
hargatik zu omen zara
ehiztari onena. (bis)

Peñagarikano: Nik bota izan ditut
makina bat txori, (bis)
pajaroa zera ta
zeu kontuz ibili. (bis)

Iturriaga: Dana botatzen duzu
badijoa hegan, (bis)
zenbat kartutxo daude
zure rekamaran? (bis)

Peñagarikano: Zuk nere kartutxoa
nahi dezu ikusi; (bis)
aizu, bakarra daukat
polbora ta guzi. (bis)

Iturriaga: Orain galderatxo bat,
zentzuak zabalik: (bis)
ba al da hegan eiten dun
guardia zibilik? (bis)

Peñagarikano: Guardia zibilak Vera
eta Barrionuevo, (bis)
neronek nahio nuke
aidean balego! (bis)

Iturriaga: Nere ustea ere
zurekin batera, (bis)
baina ausartuko al zara
tiro egitera? (bis)

Peñagarikano: Aurren jarri ezker
Vera ta Galindo, (bis)
tira eta ez nuke
nik hutsik egingo. (bis)

Iturriaga: Ehiztari hauekin ni
ezin naiz juntatu, (bis)
bate ez dute botatzen
ta hamabi kontatu. (bis)

Peñagarikano: Ehizera sarritan
egiten dut txango, (bis)
nik botatakorikan
zuk ez dezu jango! (bi)

AZPEITIA (1999-12-19)

Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketaren finala

Txapeldunen agurrak

Egaña

Neurria: Bederatzi puntukoa
Doinua: Gaztalondo handian

Enberrari adaxkak
irteten zaizkio,
horregatik gaude gu
bertso jario.
Bidelagun gogorra
nola den herio,
Basarriri oraintsu
esanak adio;
zor zaharrak merio,
ze erremedio,
azken laudorio,

txapel hau serio
adaxkak enberrari
eskeintzen dio. (bis)

Zulaika

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Hauxen da poza, egonezina
nere sentimentuetan,
lehengo maisua ta etxeoak
gogoan dauzkat benetan;
bertso eskola ta entzulea
bildu dana hemen bertan;
Haritz, Epelde eta Nahikari
lehen Salbideko taldetan;
neuk erantzi ta jantzi nahi nuke
zuen danon buruetan. (bis)

Mantxi

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko

Motxian jardun ohi gera baino
luzerako bada nahio,
hau presoentzat izan liteke
ta horri lotzen natzaio.
Baina Nahikari zuretzat dira
bertso, txapel eta saio;
Urtzi zu ere tarteko zera,
merezita, ze arraio!
Konstantziari detalleakin
erantzun behar baitzaio. (bis)

HERNANI (1999-12-28)

Bertsolaria: Egaña

Gai-jartzailea: Joserra Garzia

Eguberrien bueltan Iraulio Panttalone Bertso-Kabiyak eratu ohi duen Bertso Latako ekitaldietako bat. Kultur etxean izan zen, ilunabarrean. Ordu eta erditik gora jardun zuen bertsotan eta hemen hiru bertso bakarrik jaso baditugu ere, saio gogoangarria izan zen.

Egaña

Gaia: Adierazi bertso mundutik erretiratzera hoala *bando* formatoan.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Begira nago jarria bera

Tarrapatatan" uztera noa
nere bertsolari plantan,
bi hankan hasi nuena nola
ezin den utzi lau hankan;
pentsakizuna zapatiletan
ta nere etxeko mantan,
problemak dauzkat prostatan,
ilea ere eskapan;
badut andre bat, baditut haurrak,
ez nago ezereen faltan,
ta agindu hau neuk sinatzen dut
"tarrapatapatapan". (bis)

Gaia: Adierazi erretiratzera hoala *errezeta* formatoan.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Oihan beltzean zoinen eder den

Hirurehun gramo nazkatua ta
kilo erdi bat ezina,
bertsokidetzat ditudan askon
jenio ta pipermina;
denak labean sartu ondoren
erretirorako grina,
ta azken orduan zu bezelako
kritiko batzun ozpina (1).

Gaia: Adierazi erretiratzera hoala *eskela* moduan.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Anai-arrebak hementxe nator

Egaña eta Makazagatar
Antonio kaballero.
Andrea Elisa, ama Begoña
ta koinatua Xebero.
Bere etxeko tanatorioan
geratzen da bero-bero,
ta familiak dena hartzen du
debalde eman ezkeru.

(1) Bertso hau kantatu baino ordu laurden lehenago, Andonik bota berri zuen bertso bat hartu eta bertso-kritikariaren parodia bat egin zuen Joserra Garziak.

**BAT-BATEKO
SARIKETAK**

ORIXE SARIA (1999-03-05)

Kanporaketa

Bertsolariak: Jimenez, Ibarra, Arano, Silveira, And. Otamendi eta U. Agirre.

Gai-jartzailea: Iñigo Aiestaran

And. Otamendi-Ibarra

Gaia: Andoni zazpi aldiz ezkondu da eta beste hainbeste aldiz banandu. Iratxerekin sei hilabete egin eta ezkontzeko eskatu nahi dio.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Orioko balearena

And. Otamendi: Nik eskaintzak ez ditut
 egiten musutruk
 eta azkenekoa
 zuri egingo dizut;
 pareja oso ona
 egiten degu guk
 ta bizitza osoan
 maitatuko zaitut. (bis)

Ibarra: Aitormena egiten
 zatoz afanean,
 ni lortu nahian zabiltz
 zu gogor lanean,
 bainan lehen sartu ez dena
 zazpiren planean,
 ez duzu lortu nahiko
 zortzigarrenean? (bis)

And. Otamendi: Beste guztiekin nik
 frakaso egin nuan,
 bainan gauzak seguru
 dauzkat orainguan;
 ikastola batera
 guk egin genduan,
 ordutik zu bakarrik
 zauzkat nik buruan. (bis)

Ibarra: Horrek egiz egin dit
 barruan zirrara,
 oraintxe kendu duzu
 lotsaren maskara,
 bainan lagun maitea
 hau diotsut, hara:
 nigatik izango da

ondo irteten bada. (bis)

And.Otamendi: Orain arte bihotza
neukan oinazean,
beste guztiengandik
erdi ihesean;
baina ez zaitut jartzen
besteen klasean,
baina ezin da jakin
probatu ezean. (bis)

Ibarra: Ikastola kontua
bota duzu ozen
eta ni ere horretaz
jarri naiz pentsatzen.
Beraz hau ikusita
hor noa esaten:
benetan zabilta ta
ezkondu gaitezen. (bis)

And. Otamendi

Lau oinak emanda

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Xarmangarria zera

Arpegi polita ta
jertsea **berdea**,
Iratxek xarma dauka
barruan **gordea**,
gurea nahiko gaizki
irten zen **ordea**,
orain bilatu nahi det
beste bat **hobea**.

Silveira

Kartzelako gaia: Goizeko bederatziak dira. Martuteneko espetxetik irteten ari zara eskuan maleta handi bat duzula.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharra

Akusatua hatxixa eukitzez
ta hainbat drogatzeke gaiz,
zorionaren ostean sortu
zitzaizkidan hainbat ekaitz.

Nahiz ta “barruan bukatuko dut”
pentsatu izan nuen maiz,
sartu ninduten ta gaur askatu,
banoa aurpegi alaiz,
ta beti alai ibiliko naiz
berriz itzultzen ez banaiz. (bis)

Gaizkile artean, malko artean
ta burnizko barroteetan,
nere samina, sufrimendua
senti nezake zainetan;
lau urte pasa eta akabo,
akabo egun honetan,
duda bat daukat: zorionsua
izango al naiz benetan
gehienek mundu deitzen dioten
kartzela erraldoi horretan? (bis)

U.Agirre

Kartzelako gaia: Goizeko bederatziak dira. Martuteneko espetxetik irteten ari zara eskuan maleta handi bat duzula.

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Hamar urtean hemen egon naiz
ta askatasuna meta,
ziega beltzean belztuak zaizkit
bihotza eta kopeta.
Orain kanpora aterea naiz
pozez, animoz beteta,
baina arantza txiki bat daukat
bihotz barruan gordeta:
barruan dauden milaka lagun
eta milaka maleta. (bis)

Funtzionarioen zapatapean
pasatu dut mila trago,
zakurrak legez tratatu naute
enbido eta hordago;
kaskotik ere erotua naiz
urte hauetan zeharo.
Nahiz askatasun eder hau baino
ezer ez nuan nahiago,
pareta denak bota artean
askatasunik ez dago. (bis)

ORIXE SARIA (1999-03-28)

Finala

Bertsolariak: U.Agirre, Sarriegi, Silveira, Gorostidi, Munduate eta Suberbiola.

Gai-jartzailea: Aitor Basurto

Silveira-Suberbiola

Gaia: Xabierrek erabakiren bat hartzen duenean lagun hurkoa kontuan izaten du. Pablok berdin pentsatzen zuen, baina azkenaldian berekoi bihurtu da, bereak bakarrik kezkatzen du.

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Espainian behera

Silveira: Piura txarra hartua
zuk auskalo zeini,
lagunekin ez duzu
nahi aina harmoni,
baina lagunak bizi
egiten zait eni,
euretaz oroitzea
beti zait komeni,
zeren nere lagunek
osatzen naute ni. (bis)

Suberbiola: Ni're lagunak nintzen,
bestekin umila,
gaur ere hain maitea
det nere kuadrila;
elkarrekin gozatu
pasadizo pila,
baina gaur egun noa
nerearen bila
ta nahi duna nerekin
etorri dedila. (bis)

Silveira: Zure izanarekin
hamaika istori,
zu, zu ta zu, beti zu,
hori ez dago ongi.
Ustez ez duzu behar
aina kategori
ta ez zaiozula inoiz
eskatu inori
zuk berari eskeintzen
ez diozun hori. (bis)

Suberbiola: Lagunek bizi hontan
maite degu alkar
ta laguntzeak beti
poxa behintzat dakar.
Nik ez det ibili nahi
bizi hontan bakar,
bainan ikasia det
urteetan zehar
konpromisuz ez dala
ezer egin behar. (bis)

Silveira: Oraingoan bai zintzo
mintzatua zara,
nunbait zure buruak
gailendu du traba.
Nahiz ez jakin egiak
sortzen du ikara,
ongi gelditzearren
esatea txarra da,
bihotzez esan behar da
esan behar bada. (bis)

Suberbiola: Bihotza beti daukat
gogoan hartuta
eta maite nautenak
buruan sartuta;
nahi dedan haiekin ni
gustoz elkartuta
bote bat hartuko deu
nik gonbidatuta,
bainan nahi dedalako
ta ez behartuta. (bis)

Sarriegi

Kartzelako gaia: Aurrerakuntzetan aurrera doan gizarte honetan hilezkortasuna
bermatuko duen sendagaia aurkitu dute. Pastila hau hartuz gero, ez zara hilko; zure esku
dago hartzea ala ez hartzea.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Txiki-txikitan ikastetxera
joaten gara ikasteko,
karreraren bat atera eta
gero lanean hasteko,
bizi honetan ongizatea
ahal dela irabazteko;
munduak ez du atzera jotzen,

ondo dago ikusteko,
baina honaino helduko zenik
inoiz ez nuen usteko. (bis)

“Zeinen beltza den noizbait hiltzea!”
pentsatu izan dut noiznahi,
nere burua ez dut ikusten
unea gaingintzeko gai.
Mundu honetan batzutan triste
ta beste batzutan alai
bizi garenez, ez naiz egongo
ni aurrerapen honen zai,
ametsa izan liteke baina
ameskaiztoa ere bai. (bis)

Barnean daukat tentazioa,
barnean daukat beldurra,
pastila honekin nere bizitza
betirako da ziurra.
Baina halere ondorenean
ez dut jaso nahi egurra,
nahiago baitut itxuraz bizi
gelditzen zaidan apurra
ta mundu honi duintasunez
eman nere azken agurra. (bis)

BBK Sariketa (1999-03-28)

Finala

Bertsolariak: **Bilbo:** Jurgi Garitagoitia, Oihana Bartra, Matxalen Zabaljauregi, Urtzi Urrutikoetxea, Arkaitz Estiballes eta Marta Ortiz.

Txorierrri: Xabier Paia, Ortzi Garitano, Igor Muniategi, Etxahun Lekue, Anertz Muniategi eta Fredi Paia.

Gai-jartzailea: Bernardo Mandaluniz.

Estiballes

Lau oinak emanda

Bonbardero ta kazak
misilez **beteta**,
hor doaz gure mila
ta mila **pezeta**;
errugabeak berriz
sarritan **erreta**,
denok dakigu gerra

ez dela **errenta**.

Estiballes-A.Muniategi

Gaia: Neba-arrebak zarete. Arkaitz neba eta Anertz arreba. Arkaitz, astebete egon zara etxetik kanpo eta Anertzi itxi dautsazu akuarioan daukazun arraintxoa zaintzeko ardura. Bueltan, arraintxoa hilda aurkitu duzu.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Kantatzera nijoa

Estiballes: Zaintzeko eingo zuela
 bere ahalegina,
 etorri naiz ta hilik,
 hauxe da hau mina!
 Jateko eman dio
 janari gordina,
 katu bat ta arrain bat
 ez dira berdina. (bis)

A.Muniategi: Ez da katua izan,
 ez egon haren zain,
 uste zendun nintzala
 hura zaintzeko lain;
 baina penarik Arkaitz
 ez hartu zeure gain,
 laban erreta biok
 jango dogu orain. (bis)

Estiballes: Laban jango dogula
 esan dozu hemen,
 burutik ez zabilta
 neska, oso zuzen.
 Gutxi gorabehera be
 honelakoa zen,
 pintxo baterako be
 gaur ez zaku heltzen! (bis)

A.Muniategi: Uretan baino tripan
 dago ha hobeto,
 bazkaria egin ta
 gaude peto-peto.
 Hain tuntuna nintzenik
 ez zendun usteko,
 atuna ekarri dut
 harekin jateko. (bis)

Estiballes: Zure plana utziko
 dut nik bertan behera,

bengantza prestatu dut,
berdina gainera;
zoaz zure katutxo
hori bilatzera,
lehentsuau erori da
bentanatik behera. (bis)

A.Muniategi: Katua beraz gaurko
leihotik akabo,
zure aldetik hori
ez da hain arraro.
Baina arraina laban
prestatuta dago,
zuk ez daduzu gura
neuretzat gehiago. (bis)

OSINALDE SARIA (1999-04-24)

Bertsolariak: E.Eizagirre, Uranga, J.Gojenola, Perea, E.Goikoetxea eta A.Goikoetxea

Gai-jartzailea: Iñaki Murua

Finala

Goikoetxea-J.Gojenola

Gaia: Zu, Ekaitz, hainbeste urtean etxe huts batean bakarrik egon zaren sagua zara eta une honetantxe sartu da atean bizilagun berria, Joseba.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

E.Goikoetxea: Bakardadean ni arrenkuran
ibili izan naiz sarri;
bizilagun bat atean barna,
aguro diot igarri.
Otordua ta harreman fina
uztarketaren oinarri,
izotza urtu behar degu ta
gazta pixka bat ekarri. (bis)

J.Gojenola: Gazta ta lagun kontuak orain
utzi itzazu aparte,
mesede gutxi egiten duzu
ta sarri askotan kalte.
Saguen kontra jarduna naiz ni
bizi guztian jo ta ke,

aprobetxatu ezazu orain
katua erosi arte. (bis)

Goikoetxea: Bakardadea gustokoa det,
bakardadean naiz jaio,
katu kontuan murgildu arren,
irrikatsu eta iaio;
nere atzetik eginagatik
hainbat ahalegin ta saio,
zulo txikitan ni harrapatzen
majo kosta behar zaio! (bis)

J.Gojenola: Katua alperrik izango dela
diozu aho betean,
baina errekurtsio gehiago dauzkat
zure kontra atakean;
kontuz ibili zaitetz sagutxo
armarioko atean,
agian gazta jarriko dizut
bainan tranparen batean. (bis)

Goikoetxea: Lehen liparra pasa ondoren
beldurtua naiz zeharo,
zure alboan jolas ta solas
ezin naiz egon luzaro.
Neskalaguna ezagutzeko
irriki bizian nago,
ezkutatzeko izan dezadan
beste zulo bat gehiago. (bis)

J.Gojenola: Zuk kontrolpean nola dituzun
zeu izkutatzeko zonak,
beti izan naiz serioa ta
ez ditut onartzen bromak.
Bete-beteen tapatzen ditu
zuloak sarri gizonak,
irteera bat duten zuloak
ez dituzu horren onak. (bis)

E.Eizagirre-A.Goikoetxea

Gaia: Kabi bila dabilen mutil koskorra zara, Arkaitz, eta Estitxu kabian dagoen txorikumea. Une honetan biok elkarri begira zaudete.

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Nere senarrarekin

A.Goikoetxea: Ez nator beldurtzera
ez egin negarrik,

ez baitizut egingo
hain akzio txarrik;
eskuratu nahi zaitut
eta ez alperrik,
zure kantua nahi dut
neretzat bakarrik. (bis)

E.Eizagirre: Bakarrarentzat ez dut
kantatu sekula,
kaiolan sartu asmoz
neri ez egin burla;
jakin oso mingarri
egingo zaizula
preso dagon txorian
txorrotxio ahula. (bis)

A.Goikoetxea: Kabia utzi arren
ez dio ajola,
nere barruko mina
nahi nuke kontsola;
ez nazazu baztertu
txoritxo inola,
etxean egingo dut
biontzat kaiola. (bis)

E.Eizagirre: Gizakiak eman du
horrenbeste pausu,
aurrerakuntza dana
ona ez da, aizu;
etxean horrenbeste
jostailu baduzu,
bideo-konsolagatik
baztertuko nauzu. (bis)

A.Goikoetxea: Nik laztanduko zaitut
eta eman musu,
eta jakia ere
zuk nahi bezain usu;
maitatzen erakutsi
diezazuket, aizu,
ta zuk hegan egiten
erakuts zaidazu. (bis)

E.Eizagirre: Zuk hegan egiteko
daduzkazun planak,
lehenago ere asko dira
horrela izanak;
eta kontseju batzuk
nizkien emanak
ta lurpean bukatu

zuten ia danak. (bis)

A.Goikoetxea

Gaia: Halabeharrez, denboraldi luze bat egon haiz gurpil-aulki batean, baina orain heure kasa ibiltzeko gai haiz. Hor hago, lehen hire azpian egondako gurpil-aulki hutsari begira.

Neurria: 10eko txi.

Doinua: Lugundurikan denoi

Orain ikusten zaitut
modu desberdinez,
noizbait ikusi zaitut
gutziz atseginez.
Neroni zutitu naiz
nere ahaleginez;
gurpilak borobilak
dauzkazu zuk zinez,
ta nik hortzak zorrotzak
ezinaren minez.

Gorrotoa sekula
ez da pekatua,
hementxe bukatzen da
gu bion tratua.
Lehenago gertuko ta
orain ukatua;
uste al zendun zukan
neukala patua?
Hautsak jango ahal zaitu
madarikatua!

E.Goikoetxea

Gaia: Amerikar hegazkin batek daraman misila zara. Une honetan jaregin dizute.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Amerikarren aiherkundera
bete beharko det antza,
une batean eginaz hauen
aldartearen mudantza.
Hauxe da hauxe helburu zital
eta misilaren dantza!
Gerraren baitan piztu nahi dute

bakearen esperantza. (bis)

Nahiz ta atzean egongo diren
interes eta nahi pila,
zoritxarrean zoritxarreko
da zoriaren gurpila.
Nere indarra eta kemena
aidean lehertu dadila,
hiltzeko ez det bizi nahi eta
bizitzeko hil nadila! (bis)

PRUDENTZIO DEUNA SARIA (1999-04-27)

Finala

Bertsolariak: A.Otamendi, Perea, Iriondo, Z.Enbeita, S.Lopez eta Soroa.

Gai-jartzailea: Abel Enbeita

A.Otamendi

Gaia: Asteburua parrandan igaro ondoren, etxera heldu zarenean, ate ondoan, maletarekin batera, honako hau dioen oharra aurkitu duzu: "Agur. Hau ez da zure etxea".

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko

Asteburuan parranda egiten
izan dut hainbat umore,
lagun artean mozkortu eta
gero berriz hainbat lige.
Etxera oso pozik nentorren
gaurko hontan, alafede,
baina etxeko ama gaur ez zait
portatu oso dotore,
aukerarikan ez baitit utzi
dutxa bat hartzeko ere. (bis)

Mozkortzeak ta ondo pasatzeak
nun du hainbeste delitu?
Gaur nere amak egin duenak
ondorioak izango ditu.
Etxera heldu eta itxita,
semea zaigu larritu;
neska batekin atzo egona
gaur gustoz ez naiz aurkitu,
telefonoa eman zidan-da
ezin dut inon begitu. (bis)

LIZARDI SARIA (1999-09-03)

Finala

Bertsolariak: Gabilondo, Perea, Agirreazaldegi, E.Eizagirre, Uranga, U.Egaña, Mantxi eta E.Goikoetxea

Gai-jartzailea: Arantza Laskibar

Uranga-Agirreazaldegi

Gaia: Zuek aitona-ilobak zarete; Jokin iloba, haur kotxe batean eserita doana eta Ainhoa aitona, gurpil-aulki horietako batean eserita, iloba zaintzen dabilena.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

Uranga: Aitonarekin hementxe nabil
 jolasean oso jator,
 gaurko honetan mintzatu gera
 oso serio ta gogor.
 Diferentzia haundia degu,
 ez zaite jarri egoskor:
 ni laister jaiki egingo naiz ta
 zu betirako zaude hor. (bis)

Agirreazaldegi: Iloba honek ibiltzen ditu
 zaharrekin hainbat truko,
 diferentzia haundia dago,
 zertarako egin uko?
 Baina hain gaizki ere ez nago,
 ez naiz begi ilunduko,
 neri munduan ikusitako
 dana ez dit inork kenduko. (bis)

Uranga: Liluratua utzi nauzu gaur
 hain baikorra zeralako,
 beti nerekin ibiltzen zera,
 ni beti ondo ta bapo;
 behar nuenean esku zabalik
 laguntzen ninduzulako,
 jakin ezazu, nere babesik
 ez zaizu inoiz faltako. (bis)

Agirreazaldegi: Egia esan babes faltarik
 ere ez nuen espero,
 zure bihotza zein haundia dan
 begitan ikusiz gero.

Aholkutxo bat segi ezazu:
oinez ikasi ta gero,
azken eguna balitz bezela
bizi zazu egunero. (bis)

Uranga: Egia esan zuri aitona
gaur ez zaizu falta gaitzik,
jubilatuta nik azkenetan
hor ikusten zaitut kasik.
Aulki honetatik jaiki nahi nuke
ni behingo batean pozik,
eta ez oinez ibilitzeko,
zuri laguntzeko baizik. (bis)

Agirreazaldegi: Aitonarentzat iloba oso
goxoa izan zera zu
eta bizipoz pixkaten nahian
ni ere banago aizu.
Iloba, egon zaitea lasai,
laister ikasiko dezu
eta orduan aldapan behera
korrika eramango nauzu. (bis)

Gabilondo

Kartzelako gaia: Mundu honetan dena jakiten da azkenean, eta zuk ere jakin duzu jakin beharrekoa, gaur goizean gainera: ijitokumea zara, gaur arte ustez zeure guraso zenituenek jaioberritan jasotakoa.

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Esan nahi nuke buruan mila
ideia badauzkadala,
zergati on bat topatu nahian
egin nahi det eginahala.
Aitak ta amak saldu ninduten,
gaur esan didate hala;
lotsa minari gailendu zaio
mina pozari bezala,
ta orain ukatu egingo nuke
haien odola dedala. (bis)

Ni jaio orduko haiek ez ziren
portatu zinez galako
eta geroztik alper-alperrik
badet ilusio pranko.
Euren ondotik bota ninduten

eta bizi dira bapo,
aita ta ama nik zein ditudan
gogoz aitortu beharko:
nere bihotzak hazi nautenak
soilik maite ditulako. (bis)

E.Eizagirre

Puntua jarrita

Neurria: 8ko txi.

Doinua: Haizeak bidali du

Laskibar: Zenbat ijito dabil
 munduan barrena?

E.Eizagirre: Asko izango dira
 eta zu aurrena.
 Ez da horren grabea
 ijituarena,
 baizik haik marginatzen
 ditugun danena.

Agirreazaldegi

Kartzelako gaia: Mundu honetan dena jakiten da azkenean, eta zuk ere jakin duzu jakin
beharrekoa, gaur goizean gainera: ijitokumea zara, gaur arte ustez zeure guraso
zenituenek jaioberritan jasotakoa.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko

Egia esan zalantza izpirik
ez nuen egiten aurrez,
orain egia berri bat dakit,
hau ote da nere kaltez?
Eman didaten etxe goxoan
ni bizi izan naiz errez;
ama usteko, aita usteko,
lasai zaitezte mesedez;
nere odolik ez det ukatzen,
geroko babesa ere ez. (bis)

Guk holakoxe susto batzuek
hartzen ditugu tarteko,
ondorioak atera ditut
bateko eta besteko;

esan bezela bizi berririk
nahiz ez dedan ukatzeko,
egia dena jakite hori
gaur ez det izan kalteko,
balioko ahal dit zapaldu denak
orain hobe ulertzeko! (bis)

BERRITXU SARIA (1999-09-26)

Finala

Bertsolariak: F.Paia, I.Muniategi, U.Bilbao, G. Ostolaza, Kolina, Landa, Terreros eta Gurrutxaga.

Gai-jartzailea: Iñigo Gojenola

Kolina-Terreros

Gaia: Zu, Sustrai, arrazista zara, berezkoa, betidanik. Gaur jakin duzu, zure alaba honek, Xabierrek, seme edo alaba bat ez dakigu ondino, izan behar duela, baina mulatatxoa aterako omen da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Kolina: Dirudienez aurkitu duzu
 alaba, senar makala
 eta ez duzu kontutan hartu
 kolorearen itzala.
 Mulatatxo bat agertzen bada
 gertatuko zaizu hala:
 etorkizuna izango duzu
 zure senarra bezala. (bis)

Terreros: Semean eske lanean gogor
 ibiliak gara fedez
 ta errespetu pixka bat ere
 eskatzen dizut gutxinez.
 Azala agian hark izango du
 txuri, marroi ala beltzez,
 baina guk berdin izango dugu
 zuri gustatu edo ez. (bis)

Kolina: Zure ideia ez dut gustoko
 alaba, otoi aditu,
 hain beltza baden alabatxoa
 ezin gurea sentitu;
 eta beltzaren irudi hori

ez zait ondo iruditu,
jaio ezkeru mundu honetan
beltzak ikusiko ditu. (bis)

Terreros: "Nik izango dut" berriro ere
garrasika diot ozen,
azken finean erabakia
guk daukagulako hemen.
Bihotz oneko zinela aitatzxo
nik uste nuen bederen,
baina usteak erdi ustelak
berriro ere nabarmen. (bis)

Kolina: Ona izan leike edo igual ez,
hemen gabilta berbetan,
ezinezkoa iruditzen zait,
jarri zaitez gogoetan.
Ume txuriak tokirik ez du
hemen, diotsut benetan,
beltza den batek tokirik ez du
gizarte zuri honetan. (bis)

Terreros: Arrazismoa pizturik dago
herri honetan oraindik
ta elkartasun mezu apal bat
bidali nahi dut hemendik:
gorri, horia, marroi, txuria,
ez du ere garrantzirik,
alutikan nik erdituko dut
eta maitatuko dut nik. (bis)

F.Paia

Gaia: Gaur ekainaren hogeita seiko goiza da. Jakingo duzunez, egun bi barru gay eta lesbianen eguna ospatuko da. Hori dela eta, gaur, Donostiako bulebarrean manifestazio bat antolatuta dute. Txiki-txikitatik izan dituzu joera homosexualak, baina oraindik ez dituzu plazaratu. Balkoetik beraiei begira zaude.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Munduan libre bizi izatea

Homosexuala nintzela ere
batzuk zekiten lehendik
ta gauzak txarto ikusten dira
gure gorputzan barrendik;
bihotzez hurbil sentitu arren
begiratzen dut urrundik,
ez dut euki behar damurik,
behintzat halaxe dirudit.

Aurrera noa balkoian behera
eta pankarta harturik,
hauek bezela gizartearen
katea hautsiko dut nik. (bis)

Denbora dugu sentimenduz
dudan ibili naizela,
nire moduko beste mutilak
askatu egin zirela;
ta etiketaren menpe nengoen,
zeinen morrontza ergela!
Haien artean noiela,
esan behar dut horrela;
hanka tartea erabiltzen da
sarritan ikur bezela,
ikasi daigun sentimendua
bihotzean dagoela. (bis)